

ttipi-ttapa



PANDEMIAREN ONDOTIK PLAZAK BERRESKURATUZ

Ezohiko urte eta erdi honetan hutsik ikusi ditugu plazak, baina pandemia giblean utzita, nolabaiteko normaltasun itxura hartzen hasiak dira gure herrietako plazak.

Argazkiak Wikimedia Commonsen

1981etik 1992ra bitarteko bi mila argazki digitalizatu eta erabilgarri utzi ditu TTIPI-TTAPAK Wikimedia Commons plataforman. / 8



Maria Irigoien:
suizidioan aditua
den Berako
psikiatra / 10



Patxiku Irisarri
etxalartarra
Nafarroako EHNEko
idazkari nagusia / 24



Oier Iantzi Lesakako
Beti Gazte taldeko
futbol jokalaria
beteranoa / 50

SINADURAK

 EKHINE ZAPIAIN ARLEGI / 3	 AITOR ARATZENA ALBIZU / 3
 IRATXE MUXIKA KARRION / 3	 XABIER MARITORENA ZUBIETA / 4



ZOZKETA / 60

BERA LESAKA

Agenda 2021

**URRIA
AZAROA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

**LESAKAKO
UDALA**

URRIA	
31 IGANDEA LESAKA	ANTZERKIA AMUA 19:00 Harriondoa Kultur Etxean Sarrera 8 €
BERA	
29 ORTZIRALEA LESAKA	HAURRENTZAKO IPUIN-KONTALARIA KAMISHIBAI (INES BENGOA) 18:00 Herri liburutegian Iraupena 50 min Adina 4-7 urtekoentzat
BERA	
30 LARUNBATA LESAKA	MERKATUA MERKATU TITIKIA 10:00-14:30 Plazan
BERA	
30 LARUNBATA LESAKA	EMANALDIA IBIL BEDI Bira Nafarroan Barna programa 20:00 Harriondoa Sarrera 5 € Argibide gehiago www.lesaka.eus
BERA	
AZAROA	
4 ORTZEGUNA LESAKA	KONTZERTUA NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA 19:30 Kultur etxean Iraupena 70 min Sarrera 10 € Argibide gehiago www.orkestadenavarra.es
BERA	
5 ORTZIRALEA LESAKA	JARDUNALDIAK TOKIKO JURALDE ELIKADURA ESTRATEGIA GARATZEKO JARDUNALDI IREKIAK. Bortzietako elikadura sistemaren emaitzak 18:30 Kultur etxeko erakusgelan
BERA	
5 ORTZIRALEA LESAKA	EMANALDIA TXAPELDUN BIHOTZA 19:00 Harriondoa Kultur Etxean
BERA	
6 LARUNBATA LESAKA	LIBURUAREN AURKEZPENA "PALABRA DEL ÁRBOL" (FRANCISCO JAVIER IRAZOKI) 18:30 Harriondoa Kultur Etxean
BERA	
6 LARUNBATA LESAKA	KONTZERTUA ESTITXU: "ISILIK DAUDE HARRIAK" DISKO BERRIAREN AURKEZPENA 19:00 Kultur etxean Sarrera 7 €
BERA	
8 ASTELEHENA LESAKA	SOLASALDIA JUBILATU ETA ORAIN ZER? (RAMONI ORDOKI) 18:30 Beralandetan Antolatzailea Arkupeak
BERA	

ALMACO BAZTAN

GRUP

GAMMA

* erakusketan ditugun su-aparatu guztien likidazio osoa *

"Hotza hurbiltzen ari denean,
gozatu suaren magia"

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

www.almacobaztan.com



NIRE TXANDA

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI

Egiaren ertzak

Duela aste pare bat *Maixabel* pelikula ikusi genuen zineman. Ez naiz kritika zinematografikorik egiten hasiko, eta ez nuke filmaren tramaren inguruan mintzatu nahi. Baina, zer hausnartua eman zidan ikusitakoak. Izan ere, kontatzen zuena baino kontatzeko zuen modua bitxia iruditu zitzaidan. Bakea eta bizikidetzaren aldeko mezua helaraztea xede omen zuen pelikulak memoria baztertzailari ekarpena bertzerik egiten ez ziola iruditu zitzaidan. Gatazka betiko leku berdinetik kontatzen zuen kontakizuna bertzerik ez nuen ikusi irudi haietan. Baliteke ni neu egiaren ertz desberdinak ikusi asmoz joan izana zinemara, baina ez zen hala izan. Gertaturikoa esperientzia propioz bizi izan ez dugun arren, belaunaldi berrietako gazteok ere bizi dugu gatazkaren ondorena gure haragitan, eta pairatzen ditugu bere ondorioak. Kontakizun zapaltzailez jositako alde bakarreko kontakizunek kalte bertzerik ez dute egiten bakea eta bizikidetzaren bidean. Egiari zor zaiona eman behar zaio, eta hori bi aldeetatik pausuak emanez eta egiaren ertz guztiak ongi borobilduz lortuko da.

**«ALDE BAKARREKO
KONTAKIZUNEK
KALTE BERTZERIK
EZ DUTE EGITEN»**



EZPALA

AITOR AROTZEN AIBIZU

Solasetatik ekintzetara

Umea zela bihurkerietan hasi eta gaiztakeriak egiten ere ibili zen mutikoa. Ekintza bortitzen ordeztu berteekin solas egitera pasatzeko erran zioten gurasoek eta irakasleek. Hamar urte beranduago, orduan egindakoaz hausnartu, gaizki egin zuela ohartu eta barkamena eskatu du. Orain, solasetatik ekintzetara pasatu behar dela erran diote.

NABARMENTZEKOAK



**JULEN
ARBURUA**
GASNAGILEA



**IRANTZU
PASTOR**
ARGAZKILARIA

Txapeldunen txapeldun izan da bertze behin Kortariko gasna Ordizian. Azken 10 urteotako irabazleak lehiatu ziren urriaren 13an, Julen Arburuak lehen eta hirugarren sariak lortu zituen.

Igone Mariezkurrenarekin elkarlanean *Lumineszenteak* liburua aurkeztu du Irantzu Pastor lesakarrak, «emakumeen kontrako indarkeria ikusezinak eta erresilientzia historiak» bilduz.

ATZERA BEGIRA



2011-10-27 · TTIPI-TTAPA · 553 zk.

Jasone Mitxelorenarekin auzolanaz

Gaur egungo gizarte ereduak sortutako ezinegon tarteko abiatu zuten Auzolan egitasmoa, auzolanaren bidez bertzelako gizarte ereduak posible dela sinetsita. Horren harira, Jasone Mitxelorena etxalartarra Auzolaneko kidea elkarriketatu zuen TTIPI-TTAPAK duela hamar urte. *Auzolanaren kultura* bere liburua ere hizpide izan zuen Mitxelorenak elkarriketa hartan eta bertzeak bertze, «auzolanaren gainbehera» nabarmendu zuen. Horrekin batera, «auzolanaren balio garrantzitsuz batzuk» ere aipatu zituen: «elkartasuna, berdintasuna, errespetua, talde izaeraren kontzientzia...». Bere hitzetan, «auzolanak herri gisa erronka berriei erantzun eta bizirauteko balio izan digu historikoki, eta gaur egun ere balio dezake».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Kontaktak bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Ainhoa Larretxea, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Alizuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagaien,

Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Nerea Bazterrika, Aintzane Leiza,
Pablo Irastortza, Maite, Ana eta
Itziar, Juan Mari Barriola, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex
E., Xabier Maritorea, Maialen
Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz
Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Batzan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte

2021eko harpidetza sariak
Batzan, Urdazubi
eta Malerreka 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

IRATXE MUXIKA KARRION

Euskaltegiak

Zer da zuretzat euskaltegi bat?

Galdera honi guztiz erantzuten jakin gabe eman nuen izena nik Bilboko euskaltegi batean iragan irailean, titulu bat eskuratzeko asmoz.

Aurrez aurre zer topa nezakeen mila bider pentsatu eta gero, nire burutik pasatu ere egin ez zen egoera erabat ohiko bat topatu nuen. «Aurkeztu bada, zeuon burua» erran zuen Garbik, irakasleak.

Nor ginen eta nondik gentozen harro erran ondotik, galdera «ximple» bati erantzun genieziaion eskatu zigun: «Zertara etorri zarete hona?». Nire ondokoak titulua behar zuela adierazi zion, eta Garbik halaxe erantzun zion: «Tituluaren bila baldin bazatoz, etxerako bidea har dezakezu berriz».

Nire txanda zetorren, eta oraindik ez nuen Garbik niri halakorik erran ez ziezadan erantzun egokirik bilatu. Urduri bota nuen, «euskara maila hobetzera etorri naiz» zuzen bat. «Zu ere atetik atera zaitezke» izan zen bueltan aditu nuena, hitzez hitz.

Zer zen Garbik aditu nahi zuena? Horrezkero haserretzen hasia nintzen, zirudien Garbi bera ere bai, ez genuen eta elkar ulertzen. Orduantxe hasi zen neure burua hausnartzen eta pentsatzen. Zer da euskaltegi bat euskara maila hobetzeko aukera bat ez baldin bada?

«EUSKARAREN ZAINITZA LEHEN LERRORA ERAMAN BEHAR DUGU»

«Euskara maitatzen ikastera etorri behar duzue egoitza honetara, ez bertze ezertara».

Nik (nahiko mindurik) garbi utzi nahi izan nuen nik euskara maite dudala, eta anitz maitatu, gainera. Alabaina, ingurura begiratu eta berehala

ikusi nuen akaso ikasleok ez geundela berton euskara maite dugulako, halabeharrik horra bidali gaituelako baizik.

Irakaslea erabateko miresmenez solastatzen zen gure ama hizkuntzaren inguruan, benetan eta modu sano batean maitatzen baitu gure arbasoa, gure historia eta gure hizkuntza. Euskara ez delako komunikatzeko tresna bat, baizik eta sentitzeko eta bizitzeko era bat. Zoritzarrez baina, uste dut Garbiren errealitatea utopia bat ere badela hein haundi batean, eta ikasgelako mahaitxoetan eserita dagoen guztiak ez duela guk nahiko genukeen bezala bizi egoera hau.

Duela hogeit urtetik egunera, diotenez euskaldunon egoerak aldaketa anitz jasan ditu, eta horietako batzuk euskaltegietan ere azaleratu dira. Tituluaren eskaerak gora egin duten heinean, beharrez eta etsipenez betetako ikasle gehiago daude, eta horrek deus guti du maitasunetik. Geroz eta euskal maitale gutxiago atzematen du Garbik, ez ahal da mingarria hori? Noiz arte jarraituko dugu horrela?

Ezjakintasun eta segurtasun osoz erran nahi nizuke aitzinera egiteko 'txip' aldaketa bat beharrezkoa zaigula, eta hau bai halabeharrez, euskararen zaintza lehen lerrora eraman behar dugula. Apuntatu dezagun bada gure koaderno ikusgarrienetan, euskaltegiak, euskara maitatzeko txokoak direla. Oxala denek maiteko bagenu euskara Garbik egiten duen bezainbertze. Bitartean, ea euskaltegi bat sortzen dudan inguruko txoko bakoitzean.



XABIER MARITORENA ZUBIETA

Ar edo eme

Aite izan nintzenetik bi urte pasatu dira eta haur batek, edo bik hobe erranda, ematen duten 'lan' zerrenda amaigabeen bada bat bereziki maite dudana. Bazkalondoko siesta luzetik iratzartzean erdi lo egoten da eta nire izterren gainean *ttuttute* eta bularraren kontra burua paratuta ezin iratzarriz ibiltzen den denbora tarteak dut maiteen. Batzuetan luze, bertze batzuetan nahi baino motzago.

Denbora horretan berari begira egoten naiz, sekulan akituko ez den miresmenarekin. Bitarte horretan buruen galdera ausarki sortzen zaizkit, berari zuzenduak...

...ttiki, sortu zinenean ez nizkizun belarritakoak paratu, noiz utziko dute mutikoa zarela galdegietatik? Ze behar dago ttikitatik ar eta eme bezala bereiztekoa? Haurra zara eta kito.

...ttiki, zure kamisetak, galtzak eta zapatilak ez daude *unikornioez* edo adarbakarrez josiak, bat edo bertze bakarrik da kolore arrosekoa. Zure inguruko jendeak erranen ote dizute mutikoak bezala jaunzten zarela?

...ttiki, ohartzen naiz ilehori *ttar* pila bat duzula lepotik barrena. Kaskezurrean sartua dugun emakumearen irudia segituko duzu haztean eta zure gorputz ataleko ileak kentzen hasiko ote zara noizbait? Edo inongo lotsarik gabe eta 'zikina' edo 'utzia' zarela pentsatzen ahal dutenen gainetik zu erosoan

egiteko gai ote izenen zara?

«TRANSMITITZEN DIZUGUNA EZ DADILA IZAN BARNERATZEN DUZUN BAKARRA»

...ttiki, bestara ateratzen hasten zarelarik burua ibili beharko duzu. Eguneroko albisteak dira emakumeen kontrako indarkeria eta hilketak. Zerbaitetan helduok huts egiten ari gara eta ez

dugu izurrite honekin akitzea lortzen. Haurrak direnean helduok sortzen dugun neska eta mutil rol ezberdinduekin zerikusirik izanen ote du?

...ttiki, lagunekin solastatzeko elkartzen zarelarik gaur egun maiz erraten diren «*las damas primero*» edo «*mujer tenía que ser*» bezalako esaldiak behingoz desagertuak izanen ote dira? Emakume eta gizonaren rol bereizketa beharra berriz ere, modu naturalean erabilia.

...ttiki, zure gorputzaren jabe izanen ote zara edo emakumeen (eta gizonen) gorputz idealizatuaren irudiaren bilaketa-ren menpe egonen zara? Denak ezberdinak gara eta hor dago gure gorputzaren xarma eta ez komunikabideek saldu nahi diguten irudi (sasi)perfektu horren baitan.

...ttiki, akaso amatasun sentimendua zure bihotzean sortuko da eta haurrak izatea erabakiko duzu, edo agian ez. Egin ezazu sudur puntan jartzen zaizuna eta ez dezazula jendartean dagoen «ez da ama ezin duelako» edo «arroza pasako zaio» bezalako komentarioek zuri eragiten utzi.

Ni zure heziketa prozesuen zure bidelaguna izanen naiz, baita zure inguruko jendea eta eskola ere, baino lan handi bat zure kargu geldituko da, ikasitakoa desikastea. Transmittzen dizuguna ez dadila izan barneratzen duzun ikasgai bakarra, moldatu zure erara, ikusi mundua zuk nahi duzun izkinetatik eta bizi, libre bizi, 'eme' izatearen inongo beldurrik gabe.

11 GALDERA LABUR

MAIALEN BELARRA ENETERREAGA GAI-JARTZAILEA

«Emakume bertsolarien artean sare goxo eta sendo bat sortzen ari da»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Egunero zerbait berria ikasi nahi duen 29 urteko doneztebarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Ahal dudanetan bidaiatzea, mendian ibiltzea, eskiatzea, lagunekin besta egitea, bertsolaritza... Eta tarteka lasai egotea eta irakurtzea ere bai.

Noiz hasi zinen bertsolaritzarekin?

Zortzi bat urte nituela, Ituren go bertso eskolan.

Zein izan da zure ibilbidea?

Gaztetxoa nintzela Bortzirietako taldekakoan parte hartzen hasi nintzen, baita eskolarteko txapelketan ere, baina 20 urte nituenean jendearen aitzinean kantatzeari utzi nion.

Eta noiz hasi zinen gai-jartzaile lanetan?


Kantatzeari utzi nioenean, Bortzirietako taldekakoan aurkeztzen hasi nintzen, lagun giroan, baita Bardotan ere. Bertsolaritzaren munduan segitzeko bertze modu bat da eta aunitz gustatzen zait.

Nafarroako Bertsolari Txapelketan zaude orain...

Duela bi urte txapelketan gailueen taldean sartu nintzen, eta saioen bat aurkezteko aukera izan nuen. Orduetik taldean segitzen dut, eta aurten ilusio berezia egiten dit nire herriko saioa aurkezteak.

Zer nahiago duzu, bertsolari edo aurkezle?

Bertso eskolan eta autoan bakarrik noanean bertsotan zerbait egiten saiatzen naiz, baina publiko aitzinean nahiago dut aurkezle lanetan ibili.



Nola ikusten duzu bertsolaritza Malerrekan?

Eskualdean orokorrean bertsozale dezente daude, eta Malerrekan ere badira, noski. Helduen bertso eskolan geroz eta gehiago gara, eta zorionez, geroz eta emakume gehiago animatzen ari dira. Indartsu eta gogotsu datoz gainera.

Eta emakumeen egoera?

Aitzineko batzuek irekitako bidea elkarrekin egiten ari gara, eta pixkanaka bat egite horren emaitza ikusten ari da. Nafarroako emakume bertsolari/

zaleen artean sare goxo eta sendo bat sortzen ari da, eta espero dut azkenean plazak ere errealitate horren isla izatea, txapelketan zein txapelketatik kanpo.

Zure asmoak epe motzera?

Gai-jartzaile gisa, ahal dela, bertsolariak eroso sentiaraztea, eta bertsozale gisa, txapelketaz gozatzea.

Eta epe luzera?

Nahiago dut oraingoaz disfrutatu eta nahi tikiak bete.

Bilduma berria

70. urteurrena

urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toailak

Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Urriaren hamabia positiboan

JOXE FERMIN LIZARRAGA LAZKANO

Urriaren hamabian, nire lagunak eta nik –batez ere nik– lan egin nahi genuen, baina lantokiak itxita zeuden eta ezin izan genuen. Zer egin? Egun osoa atsekabetuta igaro, ala positibo pentsatzen hasi eta egunari nolabait teko probetxua atera? Bigarren aukera hobetsita, bazkaltzera joan ginen. Horrelako egun seinالاتu batean, nola ez? Soldaduska egiteko ohorea izan genuenon artean, hark utzitako oroitzapenak etorri zitzaizkigun gogora. Juan Luis nire lagunak esan zigun bera egon zen kuartelean arbola bat zigortua omen zegoela baten batek bere burua han urkatu zuelakoz edo. Hogeitazko zigorra omen zeukan arbolak; nonbait, hogeitazko urtean haren itzala edo fruituak ez zitezkeen baliatu. Ez nuke nire haragietan sentitu nahi arbolak izanzen zuen atsekabea. Edonola ere, egun positiboa –horrela esaten zaio orain onuraren bat izanzen duen egunari– izate aldera, eta ahalmena bagenu, zigorrak ez baina laudorio batzuk banatu eta beste batzuk lekuz aldatuko genituzke. Txikia da gure ahalmena, hori badakigu. Beraz, gure helburua ez da urriaren hamabian laudorio guztien jabe egiten den espainiar estatuko buuruaren aurka joatea. Zaila litzateke, oinarri sendoak baitaizka. Franco eta bere laguntzaileek (Nafarroan asko zituen) seiehun bat mila hildakoren gainean oinarritutako oinordekotzaren aurka joateko ahalmena ez daukagula badakigu. Baina izan gaitezen positibo, eta alai dezagun eguna. Helburu horrekin etorri zitzaidan semea telefonora bidali zizkieten irudi batzuk erakustera. Irudi haietan gertatutakoa ikusita, pozik oroitu genuen piperpototik zintzilik heldu zen paraxutista geldiarazteko nola mugitu zen farola iaz; eta orri hauen bitartez, hura ofizialki kondekoratzeko proposamena egitea otu zitzaigun. Eta behin hasiz gero, zergatik ez dominekin laudatu aurtengo ospakizun

militarrean piperpotoaren ordez hiru koloreko buztana hegazkinari jarri zion brigada espezialista, edo hark edan zuen botila Soberanoa? Badakigu gure ahalmena oso mugatua dela, baina proposamenak egitea merkea da.

Idatzi dudanaren helburua zein den galdetzen didate beti, eta nik ez dakit oso garbi zein zen idatzi honen helburua; bazuenik ere ez daukat oso garbi. Edonola ere, irakurri bitartean une atsegin bat pasa baduzu, ni pozik.

Bidegabekeria proiektu jasangarri batekin

MATTARI ALZUARTE GAZTELU

Bertze behin ere, Baztango Batzar Nagusiak hiru hilabete gibelatu du –bi urte daramatzagu bueltara– Baztan Parkea zabaltzeari babes emateko edo ez emateko erabakia, aitzineko aitzakia berarekin, hau da, «informazio faltagatik», oraingoan errepideari buruz, –argi utzi denean errepidea konpontzea ezinbertzeko baldintza dela proiektua gauzatzeko–, proposamen bat bozkatuz –inork sinatzen ez duena–, WhatsApppeko talde batek bultzatua, Baztango Batzar Nagusi osoa baldintzatuz eta Beartzungo bizilagunen izena erabiliz, tamalgaria eta arras larria.

Duela urtebete jarraipen batzorde bat sortu zen eta duela lau hilabete azken proiektua entregatu zen. Epe horretan guztian, nahiko denbora izan dute proiektuari buruzko zalantzak guri galdetzeko, eta ez dute egin, ez baitigute behin ere deitu. Eta orain hiru hilabetez gelditu dute proiektuaren onarpena, informazio faltagatik. Nahikoa da afera hau nahasteko gogo horrekin. Ikusiko dugu Batzar Orokorrak hiru hilabete hauetan urtebete egin ez duen zer egiten duen. Gu enpresa profesional serioa gara (erreferentziazoak Nafarroan), duela 28 urte sortua, eta egiten ari dugutena arras bidegabea da, enpresarekiko eta bertako langileekiko errespetu falta da, eta ez dugu ulertzen

zenbait pertsona zergatik ari diren horrela jokatzeko.

BKZk proiektua bertan behera utziko du (momentuz) Baztango Batzar Nagusiak baiezkoaren alde egin arte.

Diru dezente gastatu dugu proiektua idazten, denbora eta energia aunitz erabili dugu ekimen honen garrantzia (proiektu hau guztiz iraunkorra da, bai sozialki, bai ingurumenaren aldetik, bai ekonomiaren aldetik) Baztango herritar guztiei helarazteko, Nafarroako Gobernuari, parlamentuko taldeei, Turismo, Berrikuntza eta Errepide Departamentuari, Next Generation Europako laguntzei...

Batzar Nagusiko batzarrean, eskaera ofizial bakarra zegoen, BKZ-Navarra Abenturak proposatutakoa, hain zuzen ere, hau da, bai edo ez bozkatzeko proposamena: «Baztan Park handitzeko herri lurak erabiltzeko baime-na, errepidearen konponketarekin baldintzatua (notarioaren aitzinean)», hori zen Baztango herri aunitzek beren batzarrean onartu zuten proposamen bakarra (horietako batzuk % 100eko babesarekin). Izugarria, baina proposamen ofizial hori ezin izan zen bozkatu, alkateak ez baitzuen proposatu. Baina Whatsapp talde baten bidez sortutako eta Elizondoko alkateak bere gain hartutako proposamena bozkatzen utzi zuten (Elizondoko Batzarrean egindako proposamena, inork sinatzen ez zuena eta gai-zerrendan ez zegoena). Dena egoera *kafkianoa* izan zen.

Batzar Nagusian gertatu zen guztia «ongi planifikatutako pantomima» izan zen; gu ez gara sartuko, inondik ere ez, batzuk daramaten joko zikin horretan; une hori tristura eta sumindura handiz bizi izan genuen.

Horregatik, proiektu hau bertan behera utziko dugula diogu (momentuz), eta egunen batean Batzar Nagusia ekimen honek duen garrantziaz jabetu arte esperatuko dugu; izan ere, horrekin 30 lanpostu sortuko lirateke, argudio arras serioak izanzen genituzke Nafarroako Gobernuak errepidea

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

konpon dezan, parke ikaragarria sortuko genuke bailarako haur, eskola eta ikastolendako, lehen mailako baliabide turistiko bat sortuko litzateke, ikaragarritzko espazioa izanen litzateke desgaitasunen bat duten pertsonendako, langileek segurtasun hobia izanen lukete, baita lan baldintzak ere, gremio aunitzek lanerako arraz aukera onak izanen lituzkete –lau milioiko aurrekontua–, edozein baztandarrek inbertitzaile izateko aukera izanen luke, udalari baliabide arras indartsuak emanen lizkioke bere gastu sozialetarako, inbertsioetarako... (ikusi 14 arrazoiak www.navarraaventura.com webgunean). Eta hori guztia herri lurretan (balio handiagoa Baztango guztiendako).

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin borrokan aritu diren pertsona horiei guztiei, uneoro babesa eman diguten Beartzun-Berroko eta Antzarbordako pertsona guztiei, beren herrietako batzarretan proiektua bultzatzeko erabateko adostasuna agertu duten Baztango herri horietako herritar guztiei, beren babesa helarazi diguten udaleko alderdi politiko guztietako boto-emaileei, parlamentuko talde politikoei, Turismo, Berrikuntza, Gazteria eta Kirol Departamentuei eta Nafarroako Gobernuari, proiektu jasagarri horri buruz duten ikuspuntu positiboa helarazteagatik. Proiektu honek garapena, kohesioa eta berrikuntza ekarriko baititu Baztanera. Esker mila guztiei.

Atsedean hartzeko unea da, baina zuzenean galdetzen diogu Batzar Nagusiari: babesten al duzue ala ez proiektu hau? Bai ala ez? Erantzuna erraza da eta ez dugu bertze aukerarik aurreikus- ten (isiltasuna ezezko borobila da). Gu beti solastatzeko prest egonen gara.

HEMEROTEKA



«Gaur egun nork hartzen ditu murrizketak? Aunitzetan emazteak. Bikote batean bietako bat etxean gelditzen bada nor gelditzen da? Emaztea. Eta erraten da bat dela lan egiten duena eta bertzea ez duela lanik egiten. Bai? Gelditu zaitez zu etxean, eta erranen didazu! (...) Gizarteak gauzak behar den bezala egingen balitu, kontziliaziorako aukera gehiago egonen lirateke, eta gizarte hain matxista ez balitz, emakumeek ez lukete etxeko lan kargaz arduratu behar- ko, ez lituzkete murrizketa ia guztiak har- tuko, eta ez litzateke pentsioen esparruan ere halako arrakalarik egonen (...) Erretiroa eta gero linbora pasatzen zara zuzenean. (...) Lehen kalean geunden, orain ere bai, eta horrela jarraituko dugu ahal dugun arte. Gauzak ez daudelako ongi. Jendea ez delako ausartzen borrokatzera. Guk hiru urte daramatzagu elkarretaratzeak egiten, astez aste. Gero eta gehiago entzuten da pentsioen gaia eta gehiago deitzen digute handik eta hemendik. Ez digu inork gure iritzirik galdetu. Baina asmatu dugu gure iritzia entzunarazten».

ANA SAROBE | ARANTZA | ONEKA
PLATAFORMA | ARGIA | 2021.10.17



«Hasieran, 22 urterekin, ez nintzen hagitz kontziente zer gertatzen zen irudiarekin. TTIPI-TTAPAN gerritik goiti ikusten zitzaiz- danez, betiko bakeroak eta botak nera- matzan mahai azpian. Herriko bestei buruzko saioak eta Sorginen Laratza be- zalako gaueko showak aurkezten hasi nintzenean sentitu nuen presioa. Arropa aukeratzen zidaten, hagitz festiboa eta dotorea, batzuetan eskotearekin, beti takoiekin. Hagitz deseroso zitzaizkidan (...) Nik ez nuen Kazetaritza titulurik (Psi- kologia ikasi nuen) eta kazetaritza 'ez serioa' egiten nuen. Iruzurti sindromea itzela zen (...) Ni hasi nintzen garaian, ia denak ziren gizonak. Uste nuen ni hobe- to konpontzen nintzela haiekin, baina ez zen hori, baizik eta emakume lirainak niretzat mehatxu zirela eta baita ni bertze emakumeentzat ere. Jazarpen bortitza bizi izan dut (...) 'A ze soineko polita', 'Gaizki makillatu zaituzte', 'Pantailak loditzen zaitu'... Hagitz gaizki sentitzen nintzen [iruzkin horiek adituta], baina ez nekien zer erantzun».

ESTITXU FERNANDEZ
LESAKA | ARGIA | 2021.10.17



ANA GALAR ARIZTEGI





Zubietako inauteriak 1988ko urtarrilean. TTIPI-TTAPA

Argazki historikoak Wikimedia Commons-en

1981 eta 1992 urte bitarteko 2.017 argazki digitalizatu eta publiko egin ditu TTIPI-TTAPAK. Wikimedia Commons plataforman daude eskuragai, eta edonork erabili ditzake. Baldintza bat bakarrik bete behar da erabiltzeko: argazkiaren egilea TTIPI-TTAPA dela adieraztea

AINHOA LARRETXEA AGIRRE

Garai bat erakusten dute irudiek, bizitzeko manera bat, gizartearen irudi eta isla dira, une zehatz baten erretratu. Istorioak erakusten dituzte irudiek, eta baita historia ere. Argazki artxiboek altxorrak gordetzen dituzte beren baitan, eta horixe da TTIPI-TTAPA aldizkariaren kasua ere. Estitxu Arozena 1992ko apirilean Nafarroako Bertsolari Txapelketan lehenengoz aritu zenekoa, Aimar Olaizolari 1991n egindako lehen elkarrizketako argazki bat, 1983an Beran ospatutako Nafarroa Oinez, 1992. urteko Baztandarren Biltzarra, 1991ko Sarako Errugbilari taldea...Garaiko gizartearen isla ageri da TTIPI-TTAPAKO artxibo eta erretratuetan.

1981ean aldizkaria sortu zenetik, argazki artxibo oparoa

bildu du Ttipi-Ttapak, eta horietako anitz, zehazki 1981 eta 1992 urte bitarteko 2.017 argazki digitalizatu eta Wikimedia Commons atarian paratu ditu orain. Euskal Wikilarien Elkartek eta Tokikom tokiko hedabideen elkartek sinaturiko akordio baten bidez egin du lan hori Ttipi-Ttapak, eta tokiko bertze hedabide batzuk ere ari dira langintza berean egun.

Edonork erabiltzeko moduan

Digitalizatutako argazki horiek denak Wikimedia Commons atarian daude orain erabilgarri. Wikimedia Fundazioaren ekimena da Wikimedia Commons eta 2003an sortu zen Ameriketako Estatu Batuetako Kalifornia estatuan. Handik urte batzuetara, 2006an heldu zen Euskal Herrira, eta helbu-

rua argia du: munduko herri-tarrak CC lizentziadun eduki librea sortzera bultzatzea. Wikipedia entziklopedia librea da beharbada fundazioaren proiekturik ezagunena, baina, bere baitan ditu bertze hainbat proiektu, horien artean da argazki artxiboak biltzeko Wikimedia Commons.

Ezaugarri bat dute fundazioaren proiektu guztiek: lizentzia librea. Hau da, bertan paratutako edukiak edonork erabili eta editatu ditzakeela. Kasu hori da TTIPI-TTAPAKO argazkiarena ere. CC lizentzia li-

brean partekatuta daude irudiak. Hau da, argazki horiek nahi duen orok hartu, eta nahi duen funtziorako erabil ditzake. Baldintza bakarra bete behar da: argazkiaren jabetza intelektualaitortzea, hau da irudia TTIPI-TTAPARENA dela erratea. Argazki horiek bere baitan erabiltzeaz gain, bada-go editatzea ere. Hori egiten den kasuan, argazkiaren egilea nor den adierazi beharko da, eta baita argazki hori editatuta dagoela ere. Gainera, behin hori eginda, berriz ere lizentzia librean partekatu beharko da irudia.

Espero gabeko altxorrak

TTIPI-TTAPAKO kideekin batera, Euskal Wikilarien elkarteko Alex Pulido aritu da argazkiak sailkatzeko lanean, eta bidean espero gabeko hainbat altxor topatu dituztela kontatu du: «Espero genuen argazki batzuk aurkitzea, ferietakoak, jaietakoak edo baserrietakoak adibidez. Baina, espero ez genituenak ere aurkitu ditugu, Itoiz taldearen aurrekari izan zen Hegan taldearen lehenengoetarikoa argazki batzuk adibidez, edo Aimar Olaizolaren lehen elkarrizketako irudiak». Euskal kulturarekin zerikusia duen artxibo emankorra aur-

**DIGITALIZATUTAKO
IRUDIAK LIZENTZIA
LIBREAN DAUDE
ESKURAGAI**




Neska talde bat Urdazubiko bestetan 1991n. TTIPI-TTAPA



Aimar Olaizolari egindako lehen elkarriketa. TTIPI-TTAPA



Estitxu Arozenari 1992an egindako irudia. TTIPI-TTAPA



Baztandarren Biltzarra 1992an. TTIPI-TTAPA

kitu duela dio Pulidok. Horregatik, horrelako argazkiak eduki libre bezala partekatzeak gizarteari onura egiten diola nabarmendu du: «Horrelako irudiek eskualdeko historia ezagutzeko balio dute, baina, baita garai bat ezagutzeko ere». Gainera irudiak partekatzeak atzerrian euskal kultura eta historia zabaltzeko bide eman dezaketela nabarmendu du, eta hezkuntzan ere erabilgarri izan daitezkeela uste du.

Non eskuratu daitezke argazkiak?

TTIPI-TTAPAK digitalizatutako argazkiak interneteko https://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Images_from_Ttipi-Ttapa atarian daude esku-

ESKUALDEKO HISTORIAREN ISLA DIRA TTIPI TTAPAKO IRUDIAK

ragai, eta bertatik deskargatu daitezke zuzenean kalitate onean. Denera 2.017 argazki daude digitalizatuta, eta hainbertze irudiren artean, bilaketa errazteko asmoz argazkiak herriko, eskualdeko, zein

EDOZEINEK IGO DITZAKE BERE ARGAZKIAK WIKIMEDIARA

urteka bilatu daitezke. Gainera, argazki guzti horiek zortzi kategoriatan sailkatu dira, horien bilaketa errazteko asmoz: ekonomia, euskara, gizartea, hezkuntza, kirola, kultura, politika eta ikuspegia. Argazkiarekin batera irudian ikusten denaren inguruko informazioa ere bilduta dago: nor ageri den argazkian, zergatik atera den, zer ikusten den bertan... Dokumentazio lan sakona dago, beraz, irudi bakoitzaren atzean.

Argazkiak igotzeko bi baldintza

TTIPI-TTAPAK egin duen gisan, edozeinek igo ditzake bere argazkiak Wikimedia Commons-era. Aski da ordenagailu edo mugikor bat, eta internetarako konexioa izatearekin. Pulidoren hitzetan erraza da argazkiak igotzea, eta edozeinek egin dezake. «Wikimedian kontu bat sortu behar da, eta Wikimedia Commons atalean sartu eta hor igo botoia sakatuta agertzen dira azalpen guztiak».

Argazkiak igotzerako orduan kontuan hartu beharreko bi baldintza daudela nabarmendu du Pulidok: «Argazkia norberarena izatea, edo bestela, beste baten irudia den kasuan, egilearen baimena izatea». Prozesu erraza da, eta behin argazkia edo argazkiak igota deskribapena idatzi, eta kategoria batean sailkatu behar dela nabarmendu du, horrela argazkien bilaketa errazteko.

Gizarteari ekarpena egiten dion edozein irudi igo daitezkeela nabarmendu du, baina ohartarazpen bat ere egin du: «Kontziente izan behar dugu gero irudi hori edonork erabili dezakeela, eta, beraz, kontuan hartu behar da irudi pribatu bat bada, edo gero irudi hori saldu nahi badugu, behar bada hori ez dela partekatu behar».

«Emakumeek suizidatzeko saiakera gehiago egiten dituzte»

MARIA IRIGOIEN OTIÑANO BERA KO PSIKIATRA

«Betitik gustatu» izan zaio suizidioen prebentzioa eta horixe izaten ari da bere ibilbide profesionalaren oinarria. Suizidioari buruzko hainbat ikerketa egin ditu eta orain esku artean duenarekin ikusi du «medikuek bertze herritarrek baino suizidatzeko arrisku handiagoa dutela»

G. PIKABEA | BERA

«Suizidatzen den gehiengoa gizonezkoa da, baina emakumezkoek saiakera gehiago egiten dituzte». Halaxe, argi eta garbi, adierazi du Maria Irigoien Otiñanok (Berako, 1984). Psikiatra da lanbidez, suizidioen prebentzioan aditua, eta gaur egun medikuen artean suizidioari buruzko estatu mailako ikerketa bat zuzentzen ari da. Hortik ondorioztatu du «medikuek gainerako herritarrek baino suizidatzeko arrisku handiagoa dutela, bereziki emakume medikuek». «Prebentzio estrategiak» exijitu ditu eta «geure buruaren erantzuleak gu garela» ere nabarmendu du: «zain dezagun geure burua». **Suizidioen prebentzioan aritu zara lanean...**

2013an, nire espezialitatea egiten ari nintzenean, Madrilgo Jimenez-Diaz Fundazioko suizidio arriskuen prebentzioaren kontsultategian ibili nintzen, nire tesiko zuzendaria izan zen Enrique Baca medikuaren lantaldean. Handik itzulita Lleidako nire nagusiarri gaia proposatu nion eta baimena eman zidan. Betitik suizidioen prebentzioa hagitz gustukoa izan dut. Psikiatriako ZIUa bezalakoa da. Pazienteak bizitzaren eta heriotzaren arteko orekan borrokan ari dira, eta profesionalarentzat hagitz estimulatzaileria da. Nire ikerketa guztiak suizidioari buruzkoak dira.

Azken ikerketen arabera, 2019an Nafarroan 45 suizidio kasu izan ziren eta 2020an 43...

Suizidioak erregistratzerakoan egiazki izan direnak baino kasu gutiago zenbatzen dira, bai suizidioak baita suizidio saiakerak ere. Hortaz, segur aski kopurua handiagoa izanen da. Nafarroak 650.000 biztanle baldin baditu, 100.000 biztanleko 6,92ko suizidio tasa izanen litzateke. Estatu mailako tasa baino tikiagoa da, 100.000 biztanleko 7,79koa da, eta Europakoa 100.000 biztanleko 11,93koa. Heriotza aunitz dira, baina datu itxaropentsuak dira, beharbada prebentzio arloan garatu dituzten estratgien ondorio. Herritarrak neurri batean kontziente dira errealitate horretaz. Informazioa hor dago eta gero eta informazio gehiago ematen dute, baina bakoitzak erabakitzen du zeri buruzko informazioa eman. **Zer diozu datuen bilakaerari buruz?** Bilakaera horren esperoan nago. Konfinamendu garaian suizidioari lotutako larrialdi kasuak beheiti egin zuten, baina Lleidán, adibidez, ez dugu suizidio kopuruaren daturik, beti beranduago ailegatzen direlako.

«SUIZIDATZEN SAIATU IZANA ARRISKU-FAKTORE HANDIA DA»

Krisi garaietako suizidio kasuen gorakadari buruzko literatura zalantzarria da. Jakina da depresio ekonomikoaren garaian, suizidioek goiti egiten dutela, baina hondamendiak gertatzen direnean, gerrak izan direnean edo irailaren 11ko atentatu ondotik, adibidez, suizidio kasuak beheiti egin izan dute. Hortik ondorioztatu daiteke krisi sozialak daudenean gizarteak elkartzeko joera duela eta bizirauteko sena nagusitzen dela. Baina gizarte hau gero eta zatikatuagoa eta polarizatuagoa dagoela ikusita, zaila da sinestea fenomeno hori errepikatzea eta taldearen indarrak gutako bakoitza babestea.

Nola prebenitu daiteke suizidioa?

Gaur egun, arrisku-faktore nagusia lehendik suizidatzen saiatu izana da. Ezinbertzekoa da arrisku-talde horiei osasun zerbitzu espezializatu eskaintzea eta zuzeneko jarraipena egitea. Gizarteko alor guztietan prebentzio estrategiak landu behar dira. Osasun sisteman, hezkuntzan, gizartean... osasun arreta, sentsibilizazioa eta arriskuaren identifikazio goiztiarra egiteko osasun politikak hobetu behar dira.

«DENOK DITUGU NAHIGABEAK ETA HORIEK KUDEATZEA GURE ESKU DAGO»

Badira prebentzio politikak?

Suizidioaren kontrako estatu mailako plan bat lantzen ari dira. Erkidegoz erkidego estrategia zehatzak egin dituzte, eta orokorrean arreta goiztiarra eta jarraipena egiteko neurriak zehaztu dituzte, baina estatu mailan irizpideak eta erregistroak bateratzea falta da. Horrekin batera, medikuen institutuekin hitzarmenak behar dira eta autopsia psikologia indartuko balute, ezagutza handiagoa izanen guke.

Suizidioa gizarteko eta osasun publikoko arazotzat hartua da?

Bai, suizidioa mundu mailako osasun arazotzat hartua da. Baina gizarteko eragile guztien aldetik inplikazio handiagoa behar da, bai politikarien aldetik, baita gizarte zibilaren aldetik ere. Gizarte elkartuagoa eta solidarioagoa behar dugu.

Zein dira alarma seinaleak?

Suizidiorako jarrera dutenen %90ak psikiatriako aurrekariak ditu. Hala diote autopsia psikologikoen azterketek. Diagnostikorik ohikoena depresioa da, baina nahasmendu psikotikoetan ere gerta daiteke, batez ere gaixotasuna hastear denean. Edozein kasutan, heriotza-pentsamenduak nahiko sintoma dira osasun laguntza eskatzeko.

Arrisku-faktoreak aipatu dituzu. Gehiago zehaztuko zenituzke?

Suizidatzen direnen gehiengoa gizonezkoa da, baina emakumezkoek suizidatzeko saiakera gehiago egiten dituzte. Eta hori ikerketak egin diren herrialde guztietan ondorioztatu dute, Txinan izan ezik, han alderantziz gertatzen baita. Arrisku-faktore nagusia lehendik suizidiorako izan dezakeen jarrera da eta suizidio saiakera batetik bizirik ateratzea ere arrisku-faktorea da. Baina badira bertzelako faktoreak ere: langabezia, bakardadea, adin-tarte jakin batzuk, toxikoen kontsumoa...

Badago profil argirik?

Pazienteen ezaugarri garbirik ez dago, baina badira hainbat datu. Suizidatzen saiatu ziren



Maria Irigoien Oñiano beratarra Lleidako Santa Maria Unibertsitate Ospitaleko psikiatra da. 2015etik 2019ra Lleidako Medikuen Elkargoko idazkari nagusi izan zen.

711 pazienterekin egindako lagin batean, saiakera aunitz egindako pazienteak eta hagitz metodologia hilgarriak erabilitako pazienteak nolakoak ziren zehaztu genuen. Profil hori okupazio faltarekin lotutazegoela ondorioztatugenuen, suizidatzen saiatzerakoan metodologia bortitza erabiltzen zutenak eta aurrekari psikiatrikoak zituztenak zirela, bereziki depresioa zutenak eta psikiatrian lehendik ospitale-ratutakoak izandakoak.

Gaia tabua dela uste duzu?

Bai, neurri batean bai. Iduri du komunikabideak gero eta ardua handiagoarekin jokatzen dutela, informazioa emanez eta sensazionalismotik aldeniduz. Epaitu eta banalizatu gabe, informazioa emateak izan behar du horren oinarria.

Zenbat eta zergatik kostatzen zaigu suizidioari buruz solastatzea?

Suizidioari buruz solastatzea gehien kostatzen zaienak biziraun dutenak dira, hau da, suizidioaren bitartez hurbile-

ko norbait galdu dutenak. Eta hori akats larria da, biziraun duten horiek orokorrean bertze herritarrek baino suizidatzeko arrisku handiagoa dutelako. Paradoxa irudi dezake, baina suizidioa bizitzaren parte da. Gure antzinakoen artean sakontzen badugu, ohikoa da familian suizidio kasuak aurkitzea. Suizidioa bizitzako bertze fenomeno bat da, baina hagitz mingarria.

Zergatik izan daiteke garrantzitsua gaiaz solas egitea?

Arriskuan egon daitekeena identifikatzeko eta hari laguntzeko, eta bertzeak arintzeko.

Pandemiak nolako eragina izan du buruko osasunean?

Hainbat etapa izan dira. Konfinamendu garaian larrialdietako kasuak beheiti egin zuten eta nire kasuan, pazienteak maiatzera arte telematikoki artatu nituen. Espektrikoaren nahasmendua, bipolaritatea edo nahasmendu obsesiboa bezalako patologia-rik larrienak egonkor manten-

du dira, etxean egotea eta gehiegi ez sozializatzea erosoagoa egiten zaielako, aunitzetan harremanetarako zailtasunak izaten dituzte eta... Sustantzia toxikoak kontsumitzen dituztenen kasuan, ordea, konfinamendua hasi zenetik goiti egin dute larrialdietako kasuak eta aurrekaririk gabeko pazienteen artean ez dira sintoma berri gehiegi agertu. Hala ere, ekonomiaren bilakaerak izan dezakeen inpaktua nolako izanen den eta zaugarrienak babesteko neurriak hartuko dituzten edo ez ikusteko esperoan nago.

Gaur egun, alde batetik, medikuen artean izandako suizidioei buruzko ikerketa zuzentzen ari zara. Azalduko diguzu?

Espainiako Medikuen Elkargoaren Erakundeak eskatuta, medikuntza lanbide dutenen artean suizidioari buruzko ikerketa bat egiten ari naiz eta estatu mailako datuak esku artean, lehenbiziko aldiz, medikuek gainerako herritarrek baino

suizidatzeko arrisku handiagoa dutela ikusi dugu. Bertze herrialde eta kulturetan egin diren ikerketetan duela hamar-kada batzuk nabaritu zuten joera hori. Ikerketa honetan, bertzalde, adinari dagokionez medikuen artean izaten diren suizidio kasuak orokorrean herritarrean artean baino beranduago izaten direla ikusi dugu. Ez hori bakarrik. Saiakerak are kaltegarriagoak dira, beharbada metodoa aukartzeko duten ezagutzagatik eta erraztasunagatik. Horrez gain, suizidioa gizonezkoen artean baino ohikoago da emakumezkoetan. Emakumezko eta gizonezko medikuen artean ezaugarri berak ikusi ditugu, baina emakumezkoetan lanbidea eta bizitza pertsonala uztartzeko zailtasunak gehitzen dira. Orokorrean, medikuoi gehiago kostatzen zaigu pazientearen rola hartzea eta gure lanbidean estigmaren beldur gara. Horregatik garrantzitsua iruditzen zait medikuen →

elkargoen lana, sintomak izan eta bere lana arriskuan jar dezakeen medikua identifikatzeko. Lana behar bezala egiteko baldintza egokietan egotea betebehar deontologikoa da.

Eta bertzetik, medikuen suizidio saiakeretan pandemiak izan duen eragina aztertzen ari zara...

Bai, medikuen artean pandemiak izan duen eragin psikologikoari buruzkoa ikerketa da. 3.150 medikuren lagina hartu dugu, estatu mailako medikuen % 1 baino zertxobait gehiago. % 6,1en artean suizidiorako jarrera sumatu dugu, bereziki bakarrik bizi diren emakumezko medikuen artean, ohikoak ez diren ospitaleko hainbat alorretan lan egin behar izan dutenen artean eta alkohola edaten duten medikuen artean. Pandemiak honek ezaugarri bereizgarri batzuk ditu medikuentzat: lankideen heriotzak edo gaixotasunak, norbera eta hurbilekoak kutsatzeko beldurra, etengabe protokoloak aldatzeak sortzen duen ziurgabetasuna, hasieran eduki zuten material falta, erabaki eztaba-dagarriak hartzea... Horrek guztiak lehendik zauritua zegoen sistema batean tentsioa areagotu du, eta konponezina izan daitekeen haustura sortu aitzinetik egoera bideratzeko guztion enpatia eta konpromisoa beharko dira.

Gazteak eta haurrak ere arrisku-taldean daude?

Bai. 24 urtez azpikoen artean suizidioa da heriotzaren jatorri nagusia. Maila psikopatologikoan aztertzeko kolektibo konplexua da. Hainbat faktore hartu behar dira kontuan: inguruarekiko mendekotasun handia dute eta horrek zaurgarri bihurtzen ditu, berehalakotasuna nahi dute eta heldutasun kognitiboa falta dute. Azken horrekin erran nahi dut ez direla jabetzen heriotza itzulezina dela.

Pandemiak nola eragin die?

Suizidioari lotutako jarrera eta elikadura nahasmendu kasuetan gorakada sumatu dugu. Egoera delikatuak tokatu zaie,

Hotela amestetik «osasunaren hotelean» lan egitera

«Ez zen erabat bokazioz egindako aukeraketa izan. Nik hotel bat eduki nahi nuen». Halaxe aitortu du Maria Irigoienek. Baina azkenean medikuntza jo zuen begiz eta bide horretan segitzen du buru-belarri: «Amak beti animatu gintuen ikastera, ahizpa eta biok ekonomikoki independenteak eta autonomia pertsonala izatea nahi zuen». Horri bere «ikasteko jarrera ona» gehitu zitzaion: «ez nuen aisialdi handirik eta esfortzua-rekin eta dedikazioarekin selektibitatean nota ona ateratu nuen». Onartu duenez, «hotela buruan segitzen dut», baina gaur egun «ezin dut neure burua lan hau gabe irudikatu, nire izatearen oinarria da. Batzuetan ospitaleak osasuna ematen duten hotelak direla pentsatzen dut eta horrekin konforme nago».

Medikuen elkargoan

Bokazioa izan edo ez, 36 urterekin ibilbide oparoa egiten ari da. 2009an EHUn Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatu zen. BAME barneko mediku egoiliarren oposizioak Oviedon (Espainia) prestatu zituen eta



Irigoien ezkerretik hasita bigarrena, Lleidako Medikuen Elkargoko idazkari karguan, Espainiako Medikuen Elkargoen Erakundeko presidente eta idazkari nagusiarekin.

2014an Lleidako Santa Maria Unibertsitate Ospitalean (Herrialde Katalanak) psikiatrian espezializatu zen. Aldi berean, Lleidako Medikuen Elkargoan lanean aritu izan da, eta 2012tik 2014ra mediku egoiliarren saileko presidentea izan zen eta 2015etik 2019ra Lleidako Medikuen Elkargoko idazkari nagusi. «Beharbada izan dudana ohore handienetarikoa bat izan zen. 30 urterekin ardura handiko kargua hartu nuen». Bere ustez, «elkargoak profesionalengandik eta gizartearengandik urruti dauden erakundetzat hartuak dira, baina ez da horrela. Bere helburu nagusia medikuntzako deontologia betetzen dela bermatzea da, gizartea eta profesionalak babesteko».

Suizidioari buruzko tesia

Geroztik «poliki-poliki elkargoko lana utzi» du, eta «gaur egun Espainiako Medikuen Elkargoen Erakundeak eskatuta, medikuen artean suizidioari buruzko estatu mailako ikerketa bat» zuzentzen du. 2019an Espainiako Biologia Psikiatria Elkarteak bazkide ikertzaile izendatu zuten, eta «2020an egin nuen ikerketa bati aipamen berezia eman zioten». Gehiago ere bai: «Bartzelonako Unibertsitatean (Herrialde Katalanak) osasun zerbitzuen kudeaketaren eta zuzendari-tzaren inguruko master bat bukatzen ari naiz eta udazken honetan, Lleidako unibertsitatean, suizidioari buruzko tesia aurkeztea espero dut».

oraindik osatu gabea zuten egitura airean gelditu baitzaie. **Suizidatzen saiatu denarentzat zein izan daiteke tratamendurik egokiena?**

Dudarik gabe, aditu batek jarraipen zorrotza egitea. Antidepressiboek buruz aunitz idatzi dute, baina depresioaren diagnostikoa saiakeraren aitzineko pausoa dela ikusita, sintomak identifikatzea eta jarraipen zorrotza egitea garrantzitsua da.

Zein aholku emanen zenuke?

Aholkuak ematea harrokeria izan daiteke, baina eginen dut. Zain ezazue zeuen burua. Garrantzitsua da bizitzeko helburu bati eustea, zaila baita norabiderik edo motibaziorik gabe bizitzea. Autonomoak izaten

saiatu behar dugu, mendekotasunik gabe bizitzen, horrek frustrazioa eragiten duelako. Gure helburuak lortzeko bidean, konstanteak izan behar dugu, emozioak zainduz. Eta zailtasunak arrazionalizatzen eta gatazkak gain hartu aitzinetik soluzioak bilatzen saiatu behar dugu. Ahalik eta modu koherenteenean bizitzea garrantzitsua da, eta gorputza zaintzea eta ohitura osasungarriak izatea ere bai. Aisialdia eta jakinmina landu eta gure pozak eta tristurak bertzeekin partekatu behar ditugu. Elkartua dagoen gizarte batek zailtasunak gaindi ditzake eta momentu zailetan, oinarri sendoak baldin baditugu, aiseago eta agudoago sendatuko gara.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Autonomia pertsonala eta afektiboa izatearen beharra nabarmendu nahi dut. Bertzei gauzak exijitzeko ohitura dugu eta gure frustrazioen erantzuleak kanpoan bilatzen ditugu. Baina alderdi guztietan gu gara geure buruaren erantzule. Bizitza guk uste baino sinpleagoa da. Denok ditugu gure nahi-gabeak, eta denak mingarriak dira, eta horiek kudeatzea gure esku dago. Baina aldi berean aukerak eta ahalmenak ditugu, eta horiek probesten eta partekatzen jakin behar dugu. Bila dezagun gure bertsiorik hobereena eta erakuts dezagun. Ongi portatzeaz ez gara inoiz damutuko eta horrek ongizatea sortzen du.

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak


***Zonalde** ala eskualde?

Euskaltzaindiaren hitzetan, azken urteotako berrikeria da ***zonalde**, gaztelaniazko 'zona' hitzaren forma mozorrotua eta ez dago Euskaltzaindiaren Hiztegian. Bere ordeko egokiak, bertzeak bertze, hauek dira: *alde, parte, inguru, gune, eskualde, barruti, eremu* eta *zona*.

* Iزتخوا dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.


Bitxikeriak

Osatu erran zaharra.



TRANPA

POBREA
AMETS



Zein da zuzena?

***Norantza** ala **noranzko**?

***Norantza** baztertzeko hitza dela dio Euskaltzaindiak. Galdetzaileetatik izenak sortzeko **-ko** erantsi ohi da.

-Nondik > nondik(ak)o (eta ez ***nondika**)

-Norekin > norekiko (eta ez ***norekika**)

-Zergatik > zergatiko (eta ez ***zergatika**)

Horregatik ez da egokitzat jotzen ***norantza**. Haren partez, **noranzko** da izen egokia.

Esanahiari dagokionez, **noranzkoa** norabide batean higitzeko dauden kontrako bi eretako bakoitza da (es: *sentido* / fr: *sens*). Norabide bakoitzean, bi **noranzko** daude: joatekoa eta etortzekoa.

Norabidea, berriz, norbait edo zerbait nora doan edo nondik datorren adierazten duen lerro zuzena da.

Hizkera arruntean, **norabide** erabiltzen da maiz bi esanahiekin: **norabidea** eta **noranzkoa** adierazteko. Hizkera teknikoan edo zehaztu behar denean, ordea, ezinbertzekoa da biak bereiztea.

Azkenik, ohartaraztekoa da gaztelaniazko '*sentido*' eta frantsesezko '*sens*' hitzek, adiera batzuetan, **zentzu** hitza dutela euskal ordaina, baina **zentzu** ez dela **noranzko** hitzaren sinonimoa; ez da egokia, beraz, euskaraz izan ez duen adiera arrotz hori ematea **zentzu** hitzari

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak,
proposamenak,
azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Eguraldi eguzkitsua lagun, animazioa izan zen Altzateko plaza inguruan.

Azoka egun arrakastatsua ospatu dute urriaren 16an

Eskualdeko eskulangileen eta janari ekoizleen postuak izan ziren Altzateko eta Merkatuko plazetan

AINHOA LARRETxea AGIRRE

Egun seinalatua izaten da Beran urriko laugarren igandean ospatzen den Lurraren Eguna. Aurten, iaz bezala, bertan behera utzi behar izan dute osasun egoera dela eta, horren parete, Azoka Eguna antolatzen zuten udalak eta kultur batzordeak urriaren 16rako.

Egun osoko egitaraua izan zen Azoka Egunean. Goizean Altzateko eta Merkatuko plazetan eskualdeko eskulangileen eta janari ekoizleen azoka izan zen eta jende andana hurbildu zen produktuak ikusi eta erostera. Eguerdian Isidoro

Fagoga musika eskolako ikasleak, gaitariak eta atabalariak eta Berako helduen abesbatza ibili ziren karrikak alaitzen.

Arratsaldean ere musikak hartu zuen protagonismoa. Olaia lantzaren kontzertua izan zen Altzateko plazan, eta ondotik dantzagarriak izan ziren Kiki Bordatxorekin. Altzateko plaza dantzariz bete zen, eta giro alaiean ibili ziren dantzan.

Joan den igandean, berriz, urriaren 23an, Gure Txokoak antolatuta, Lizuniagako igoraren 40. en edizioa egiteko zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

'Largo' omendu du Gure Txokoak

Gure Txokoa elkarteak Jose Mari Telletxea *Largo* herritarrari omenaldia egin zion urriaren 16an Matzadan. Urte luzez Gure Txokoa egindako lana eskertu nahi izan dio elkarteak. Plaka bat eta taldeko kamiseta bat oparitu zizkieten, eta Jon De la Cruz dantzariak aureskua dantzatu zion.

'Autopsia' argazki erakusketa Ikastolako Aretoan

Asier Gogorza herriko argazkilariaren *Autopsia* argazki erakusketa ikusgai dago Labiaga Ikastolako Areto Nagusian. Larunbatetan zein igandetan ikusi daiteke erakusketa 16:00etatik 20:00etara. Bortz argazki multzok osatzen dute erakusketa. Jendez hustu diren herriak, leihoitsuak, Berako bordak, Portugalgo tren geltokiak eta lerroak, eta Okabeiko mairubartzetan egindako argazkiak. Urriaren 16an inauguratu zuten erakusteka eta aurkezpen ekitaldia ere egin zuten.

Nafarroako Orkestra sinfonikoaren emanaldia

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontzertua izanen da azaroaren 4an, ortzegunean, 19:30ean Kultur Etxean. Cecilia Bercovich eta Santiago Blanco zuzendarien gidaritzapean, Karl Jenkins, Antonín Dvorák, Johann Pachelbel, Richard Strauss, Tielman Susato, Henri Tomasi eta Aaron Copland konpositoreen zortzi obra interpretatuko dituzte. Ordubeteko manaldia izanen da denera. Orkestra Nafarroan egiten ari den biraren baitan antolatu dute kontzertua.

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Osatzuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki

GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak

619 343 755 Alzate 1 BERA



Toki Ona kiroldegia da udalak kudeatuko duen eraikinetako bat.

Kirol instalazioen kudeaketa publikoa eginen du udalak

Urriaren 7an onartu zuen udalak kirol instalazioak kudeatzeko merkataritza sozietate bat sortzea

AINHOA LARRETxea AGIRRE

Urriaren 7an egindako udal plenoan Berako kirol instalazioak kudeatzeko merkataritza sozietate bat sortzea onartu zuen udalak aho batez. Sozietate horrek % 100eko kapital publikoa izanen du.

Irailaren 15ean egindako osoko bilkuran proiektua aztertzeko azterketa batzorde bat sortzea erabaki zuen udalak. Azterketa batzordeak funtzionamenduaren alderdi juridiko, tekniko eta ekonomiko-finantzioaren garapena biltzen duen txostena egin zuen, eta egiaztatu zuen era-

ginkorragoa eta efizienteagoa dela kudeaketa kapital publikoko merkataritza sozietate baten bitartez egitea, udalak berak egitea baino. Azterketa batzordeak bere lana eginda, urriaren 7an, sozietatearen estatutuen proiektuaren zirriborroa ere aurkeztu zuten.

Orain, hogeita hamar egun naturaleko epea izanen du udalak memoria eta estatutuen proiektua jende aitzinean paratzeko, eta epe horretan aurkeztu ahalko dituzte herritarrek alegazioak eta oharak. Ondotik, behin betiko onarpena eginen dute.

NUPen eztabaida lehiaketan bigarren postua lortu dute Toki Onako ikasleek

Mikel Errandoneak, Naroa Garbisuk, Xabier Ruizek, Gaizka Yustek eta Mendi Zubietak osaturiko taldeak bigarren postua lortu du Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Parlamentuak antolatutako eztabaida debatean. *Laguntza publikoak*

murritzitu behar al dira krisi ekonomikoetan? galdera abiapuntu hartuta eztabaidatu zuten urriaren 15ean eta 16an Iruñean. Xabier Ruiz Martikorenak hizlari onenaren saria lortu zuen, gainera. Mikel Etxalar Elizaintzin filosofiako irakasleak prestatu ditu ikasleak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ernairen protesta urriaren 12aren kontra

Urriaren 12an, Hispanitatearen Egunean, «ospatzeko deus ez» dagoela salatu zuen Ernaik Mukixu zubian egindako protestan. Urriaren 12a «1978ko erregimenari arrakalak biderkatzeko eguna dela» nabarmendu eta «Euskal Herria askea, sozialista eta feminista» aldarrikatu zuten.

Auzoz auzo herritarrekin bilerak egiten ari da Berako udala

TTIPI-TTAPA

Irailan hasita, auzoz auzo herritarrekin bilerak egiten ari dira Aitor Elexpuru alkatea eta zinegotziak.

Orain artean, udalak ostatuei terrazak paratzeko utzitako guñeak izan dituzte hizpide. Uholde arriskuaz ere aritu dira, Zia errekek zuhaitz anitz dituelako uhalde bazterretan eta arriskutsua izan daitekeelako gainezka egiten badu. Herrian gehiegizko abiadura eta ibilgailu pisutsuen pasatzeaz ere egin dute solas, baita karriketako kableek ematen



Herritarrek bileretako batean.

duten itxura txarraz ere. Datozen bilerak azaroren 4an Bortziriak (18:30), Ibaialden (19:15) eta Agerran (20:00), eta azaroak 11n Zian (18:30) eta Kaulen (19:30) izanen dira.

Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK

• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450**

Legia, 23 - BERA



Toki Ona institutu ondoan paratu dituzte edukiontzi berriak.

Edukiontzi arrosak bularreko minbiziaz kontzientziatzeko

Ecovidriok eta Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak bat egin dute 'Beira birziklatu beraien alde' kanpainarekin

TTIPI-TTAPA

Urriaren 19an ospatzen da bularreko minbiziaren kontrako nazioarteko eguna, eta egun hori kari kontzientziazio kanpaina abiatu dute Ecovidriok eta Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak. Azaro hasiera bitartean, beira birziklatzeko bi edukiontzi arrosa paratu dituzte Toki Onako aparkalekuan *Beira birziklatu beraien alde* kanpainaren baitan. Ekimenaren helburua herritarrak beirazko ontziak birziklatzera mugitzea da, ingurumena zaintzeko eta, horrela, kausa solidario bate-

kin laguntzeko: bularreko minbiziaren prebentzioarekin. Ecovidrioak edukiontziaren utzitako beirazko ontziak dohaintzan emanen dizkio minbiziaren kontra lanean aritzen den Sandra Ibarra fundazioari.

Birziklapen datuak

Kanpaina aurkeztearekin bat Bortzirietako birziklatze datuak eman dituzte. 2020ko datuen arabera, Bortzirietako biztanleek 419 tona beirazko ontzi birziklatu zituzten, hau da biztanle bakoitzak 17,1 tona banaz bertze.



TTIPI TTAPA

Wifi ingurunea paratu dute Matzadan

Internerako konexioa hobetu asmoz, Matzada futbol zelaian doako wifi ingurunea paratu du Berako udalak. Gestel telefono konpainiak egin du instalazioa, udalaren laguntzarekin. Erabiltzaileentzat 300 Mbpsko abiadura eskainiko du zerbitzu berriak.

Frantziako Salles herriarekin senidetu eta bisita itzuli diote Berako ordezkariak

TTIPI-TTAPA

Abuztuan Sallesko herritarrak eta hautetsiak izan ziren Beran, eta urriaren 9an eta 10ean bisita itzuli zieten beratarrek. Hala, dagoeneko ofizial egin dute bi herrien arteko senidetza ituna.

Harrera hagitz beroa egin zieten Sallesen beratarrei. Larunbat goizean harrera instituzionala egin zieten, herriko musika bandak alaiturik. Bruno Bureau alkateak eta Sallesko senidetze batzordeko lehen-dakariak senidetzearen oinarriak azalduz hitzaldia egin



Berako ordezkariak Sallesen.

zuten. Hemendik aitzinera, helburua urtero elkarrekin ekitaldiren bat antolatzea da.

INTERNET MUGAGABEA

Kontratua orain egiten baduzu,

DEBALDE IZANEN DUZU

eta heldu den urtera arte ez duzu deus ordainduko!!!

T.: 948 63 01 32 / 637 40 86 40

E-mail: navarra@gestelcom.es

In. Zalain 4. nabea, 5. lokala - BERA



300MB

NON GAUDE:

- BORTZIRIAK
- MALERREKA
- BAZTAN
- URDAZUBI
- ZUGARRAMURDI



Bittiria karrikako 24ko gibelaldean aparkalekuak antolatu dituzte.

Plaza inguruko lanen bigarren fasea abiatu da

Oinez edo bizikletaz ibiltzeko aholkua eman du udalak, batez ere bi ikastetxetara joateko

AITOR AROTZENA

Erdigunearen eraberritze planaren bigarren fasea urriaren 19an hasi zen. Hori dela eta, Plaza Zaharretik hasita Matxinbeltzenearaino bidea itxita dago autoentzat. Zarandia karrika bi zentzutan irekita dago kotxez mugitu behar duenarentzako. Halere, herriko bi ikastetxetara oinez edo bizikletaz joateko gonbidapena egin du udalak, Zarandia karrikan autoen pilaketak ekiditeko eta kotxearekin beharrezkoak ez diren ibilerak saihesteko. «Oinez joatearen abantailak nabariak dira, bai haurren osasunean eta ongizatean, eta herrian ere aldaketa ttiki hauek izugarrizko onurak ekartzen dituzte» dio udalaren oharrak. Azkenik, udalak bere prestutasuna erakusi du edozein kezka edota zalantza argitzeko. Horretarako, 948 63 70 05 telefonora deitu, www.lesaka.eus webgunera jo edo udala@lesaka.eus helbide elektronikora idatz daiteke. Ildo horretan, albienteek herrigunean erabiltzeko bizikleta elektrikoa ere erosi du udalak.



Albienteek erabiliko duten e-bikea.

Aparkaleku berria Bittirian

Bittiria karrikako 24. zenbakiaren giblean dagoen parzelan apartzeko aukera izanen da hemendik aitzinera. Pibote batzuen bitartez seinalizatu dituzte aparkatzeko tokiak. Inguru horretan, ibilgailuendako norantza bakarrek karrikak antolatu ditu udalak. Honela, Bittiria karrikako 26tik sartu eta 28tik (Intzuri optika ondoan) atera beharko dute ibilgailuek. Modu horretara, karrika horietan aparkamenduak margotu dituzte eta plaza gehiago izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irantzu Pastorrek liburua argitaratu du

Irantzu Pastor Ordoki argazkilari lesakarrak eta Igone Mariezkurrena Fernandez kazetariak elkarlanean egindako *Luminiszentek/Luminiscentes* liburua aurkeztu zuten urriaren 13an Bilbon. Beraien lanaren erakusketa ere zabalik izan dute urriaren 9tik 26ra Bilboko Zabalgune eraikinean.

'Sormenean hezi' jardunaldia egingen dute azaroaren 13an Harriondoan

TTIPI-TTAPA

Sormenean hezi, kulturen bizi jardunaldien saioetako bat Harriondoan egingen dute azaroaren 13an. Larunbat goiz osoan hainbat kultur adierazpideren inguruan ikasteko aukera izanen da. Antzerkiari ariko da Adel Artedramako Mikel Unamun; *Nola sozializatzen dira gazteak dantzaren bueltan?* gaiari ariko da dantzan.eus webguneko Oier Araolaza. Atsedena diaren ondotik, *Gazteak eta kultur-gintzaren transmisioa, belau-naldiartekotasuna* izeneko

mahai-inguruan ariko dira Xan Berterretche, Baigura aldeko esperientziaren berri emanez eta Kimetz Arana, Meatzaldeko esperientziari. Ondotik, bigarren mahai-inguru bat ere izanen da, *Kulturgintza sozializatzeko plazak: aretoak, kaleak, internet* goiburuean. Faktoria kultur plazako Gartzen Garaio, Lekuona Kultur Fabrikako Iker Tolosa eta LABAko Iñaki SagarDOI eta Amets Aranguren. Bazkariarekin bukatuko da jardunaldia. Xehetasun gehiago 18. orrialdeko elkarrizketan.

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA

T. 948 637 826

DenokBat

Hemen erabili

kattagorria

LESAKA

948 627 514

www.kattagorria.com



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

«Euskal kulturgintzaren transmisioa ez dago bermatua gaur egun»

GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA IDAZLEA

Euskal kulturgintzaren transmisioan etena izan da. Hori izan zen 2019an Azpeitian egindako Sormenean Hezi, Kulturen bizi jardunaldien abiapuntua. Aurten segida izanen dute

A. AROTZENA

2019ko urrian ehun lagun baino gehiago bildu ziren Azpeitin Sormenean Hezi, Kulturen bizi I. jardunaldian. Jardunaldiok antolatzeko abiapuntua argia zen, antolatze lanetan ibili zen Gotzon Barandiaran idazleak (Larrabetzu, 1974) aipatu digunez: «euskal kulturgintzaren transmisioan etena» izan da. Ondorioz euskal kulturgintzaren transmisioa ez dago bermatuta hezkuntza arautuan, hezkuntza ez-arautuan eta familia edo etxe giroan. Azpeitiko jardunaldiak hezkuntza arautuan euskal kulturgintzaren transmisioaren egoeraren erradiografia egin eta Euskal Herri osoan elkarrekin aritzeko prest leudekeen eragileak identifikatzeko antolatu zituzten. Jardunaldi haietatik sortu zen gaur egun lanean ari den Euskal Herri osorako ikuspegia duen lantaldea. Abiapuntu eta helburu berberekin antolatu dituzte 2021eko urrirako eta azarorako bigarren jardunaldiak. Senperako Larraldean egin dute lehen saioa urriaren 23an, Ondotik etorriko dira Laudion (Araba) azaroaren 6an, Lesakan azaroaren 13an eta Azpeitin (Gipuzkoa) azaroaren 20an eginen dituzten lan-saioak. **2019an Azpeitian egin zenuten lehen jardunaldi hartako abiapuntua kezagarria zen: euskal kulturgintzaren transmisioan etena izan da... Bi urtean egoera zerbait aldatu da?**



Gotzon Barandiaran idazlea, agerraldi batean. UTZAKO ARGAZKIA

2019ko urriaren 19an ehun lagunetik gora bildu ginen Azpeitian 'Sormenean Hezi, Kulturen bizi' jardunaldian. Jardunaldiok antolatzeko abiapuntua argia zen: euskal kulturgintzaren transmisioan (ezagutzan eta praktikan) etena izan da. Ondorioz euskal kulturgintzaren transmisioa ez dago bermatuta ez hezkuntza-arautuan, ez hezkuntza ez-arautuan ez familia edo etxe giroan. 2019tik gaur artekoaren ia guztia pandemiarekin bizi izan dugu eta pandemiak eragin zuzena izan du

euskarazko kulturgintzaren transmisioan. Hezkuntza-arautuari dagokionez, iazko martxotik irailera milaka ikaslek euskararekin zuten harreman apurra galdu zuten, eskolaz kanpo kultur heziketa ia oro debekatu zituzten, kultur plazak itxita egon dira luzaroegi, kultur emanaldi andana bertan behera gelditu dira, sortzaile mordoak sekulako jipoia hartu du, etxeko-familiako kultur ohituretan batez ere erdarazko edukiak dira gehien kontsumitzen direnak, zer esanik ez iturri ia bakartzat

«HEZKUNTZA ARAUTUARI DAGOKIONEZ, IAZKO MARTXOTIK IRAILERA MILAKA IKASLEK EUSKARAREKIKO ZUTEN HARREMAN APURRA GALDU ZUTEN»

telefono mugikorra duten belaunaldiek.

Hezkuntza arautuaren erradiografia egin zenuten orduan... Zer ageri da erradiografia horretan? Zertan eragin daiteke?

Aurrez aipatu bezala, erradiografia horretan argi ageri da euskarazko kulturgintzaren transmisioa ez dagoela bermatuta hezkuntza arautuan. Ahulgune asko identifikatu genituen orduan, batzuk zerrendatzearen: Euskara eta Literatura moduko ikasgaietan soilik jorratzen da berariaz kultura (salbu eta Batxilergoko espezialitateetan), euskara ikasteko eta irakasteko tresna gisa sustatzen da euskal kultura eta honek, emaitza kaskarrak eman ditu, ez da euskal kulturaren curriculumaz zehaztu, garatu eta gauzatu, euskal kultura irakasteko material didaktiko eta baliabide adosturik ez dago, unibertsitateak ez ditu irakaskuntzako profesionalak euskal kulturen trebatzen, hezkuntzako kultur eragileen arteko sare sendorik ez dago, ez herrialdeka, ez herrialdeen artean ere. Ahulgune horiek indartzeko ekosistema gisa lan egitea da gure proposamena, alegia, euskarazko kulturgintzaren transmisio integrala izan dadin, kulturgintzan hezitzaile garen guztiok elkarrekin lan egitea (hezkuntza arautua, ez-arautua, etxea-familia).

Horretarako lantalde bat ere osatu zenuten, Euskal Herri osorako ikuspegia duena... Zertan aritu da lantalde hori? Euskal Herriko eremu-eskualdeen arabera egoera zerbait aldatzen da edo berdintsu dago?

Lantalde hori Euskal Herri osoko herritar guztiak aintzat hartuta ari da lanean, galdera zehatz bati erantzun nahian: zer jakin behar du euskal herritar batek derrigorrezko hezkuntza prozesua amaitutakoan euskarazko kulturgintzari buruz? Egoera arrazaz berdina da gure zazpi lurraldeetan, horregatik adostu nahi dugu bakarra guztiontzat.



«Euskararen eta kulturaren biziberritzean interesa duen ororentzat izango dira argigarri Lesakan adituko ditugunak».

Orain bigarren jardunaldiak antolatu dituzue... Azpeitian bukatuko dira aurten ere, baina bertze herrialde batzuetara (Lapurdi, Nafarroa, Araba...) ere hedatu dituzue... Zergatik? Zein helburu dituzue bigarren jardunaldi hauetan?

Euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatu nahi badugu Euskal Herri osoa hartu behar dugu aintzat. Gure ikuspegia nazionala da, euskararen herriarena. Bigarren jardunaldiotan hezkuntza ez-arautuan edo nahi baduzu, eskolatik kanpo, euskarazko kulturgintza nola bizi dugun ezagutu eta aztertu nahi dugu eta helburu nagusia Euskal Herri osorako ikuspegia duen lantalde bat osatzea da. Latal-

de horrek euskal kulturgintzaren transmisioa (ezagutza eta praktika) eskolaz kanpo nola bermatu genezakeen aztertu eta proposatzea izango du xede.

Hainbat testigantza bilduko dituzue, Senperen adibidez, ikusentzunezkoak, literatura, bertso-udalekuak, EuskArabentura, pantailak euskaraz, gazteak eta kulturgintzaren transmisioa...

Jardunaldiok lau egunez, lau lekuetan egingen ditugu. Hez-

kuntza araututik kanpo euskal kulturgintzaren transmisioaren (ezagutza eta praktika) egungo egoera esperientzia praktikoekin ezagutu nahi dugu. Egunerokoan gorpuzten diren esperientzia praktiko horien lagungarri, marko teoriko bat proposatu nahi dugu, zeina honako galdera hauek hausnartuta osatu asmo dugun:

1. Nola euskaltzaletzen gara?
2. Nola kulturzaletzen gara?

«GURE IKUSPEGIA NAZIOANALA DA, EUSKARAREN HERRIARENA»

«ADIERAZPIDE GUZTETAKO ESPERIENTZIAK HARTUKO DITUGU»

3. Nola sozializatzen gara euskarazko kultur sormenaren inguruan? Zein espazio ditugu euskarazko kultur sormenaren inguruan elkartzeko?

4. Zer egin genezake elkarrekin euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun Euska Herri osoko eragileok?

Kultur adierazpide guztietako esperientziak hartuko ditugu, ahalik eta argazkirik integralena, osoena, biltzeko asmoz. Hori da helburua.

Lesakako azaroaren 13ko jardunaldiari dagokionez, zein ariko dira solasean?

Esango nuke Lesakako lehenengo bi hitzartzeek estuki eragin diezaiketela hainbat belaunalditako lesakarrei, antzerkiaz eta dantzaz arituko baitira Artedramako Mikel Unamun eta *Dantzaneuseko* Oier Araolaza. Ondotik, lehenengo mahai-inguruan Xan Berterrechek eta Kimetz Aranak gazteak eta euskarazko kulturgintza hartuko dute mintzagai. Xanek Baigura aldeko esperientzien berri eman go digu, Kimetzek meatzaldean dagoen Trapagarangoa. Ingurune soziolinguistiko arras ezberdinetako bizipenen berri partekatuko dute gurekin. Azkenik, Harriondoa kultur-gunearen kudeatzaile, dinamizatzaile eta erabiltzaileen-tzat baliagarria datekeen mahai-ingurua izanen dugu. Bertan hizlari Audioko Ekin-tzen Faktoriako kide bat, Errenteriako Lekuna Fabrikakoa eta Iruñeko LABAko bi ariko dira kulturgintzarako plazek jendartearen sozializazioan duten eraginaz eta garrantziaz. Lau eguneko jardunaldiotako esperientziak guztiak dira baliagarriak, nork bere herriko egunerokora moldatzen asmatuz gero. Esanen nuke Lesakan adituko ditugun guztiak zinez baliagarri suertatuko zaizkiela lesakarrei. Baina ez soilik lesakarrei. Euskararen eta bere kulturaren biziberritzean interesa duen euskal herritar ororentzat izango dira argigarri.

Asteburu borobila prest dute gazteek urri hondarrerako

Ortziralean 'Dardara' filma emanen dute eta larunbatean mus eta patata tortilla txapelketak eta elektrotxaranga

IRUNE ELIZAGOIEN

Urriaren 29an, Berri Txarrak taldearen *Dardara* filmaren emanaldiarekin emanen diote hasiera herriko gazteek antolatutako asteburuari. Filma kultur etxean eskainiko dute ortziralean, 19:00etan, eta bi euroko sarrera ordaindu beharko da momentuan.

Biharamunean, larunbatean, mus txapelketa egingen dute frontoian 17:00etan. Izen-emaitea 16:30etik aitzinera egin beharko da leku berean.


Segidan patata tortilla txapelketa egingen dute. Hiru laguneko taldetan, patata, arrautzea eta tipula soilik erabiliz egin beharko dituzte tortilak parte-hartzaileek. Bi txapelketen sari banaketaren ondotik, 21:00etan Burrumba elektrotxaranga alaituko ditu ostatu bazterrak.



'Dardarak' filmaren irudietako bat.

Hegaztiei eraztunak jartzen

Cepal elkarteak, Aranzadirekin lankidetzan, hegaztiak eraztunak jartzen segitzen du. Aurten dagoeneko 100 txolomari eraztunak jarri dizkiete. Lehengo urtean egindakoetatik bi Landetara joanak harpatu dituzte eta bertze bat hemen inguruan gelditua. Hegoaldera joanen zirela uste zen, baina lehengo urteko emaitzen arabera, batzuk Landak ingurua nahiago izan dute.




Frontoian giro polita izan zen arratsean. JOSEBA OLAGARAI ETA ITSASO ELIZAGOIEN

Bi urteko geldialdiaren ondotik Usategietako Igandea ospatu da

I. ELIZAGOIEN

Urriaren 17an, Usategietako Igandea ospatu zen Etxalarren. Ez zen bertze zenbait urtetako animaziorik izan, baina aunitzek, ohitura mantenduz, goizean Lizariatatik Usategietara itzuli bat egin zuten, usazaleen lana ikusteko asmoz. Arratsaldean, udalaren eskutik Modesto akordeoilaria giro polita paratu zuen plazan eta Altxata elkarteak ostatua jarri zuen dantza taldearen alde dirua biltzeko. Jende aunitz eta giro polita sortu zen herrian, aspaldiko partez.



Usategietara ere joan ziren batzuk.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65



KAGU
LIBURUDENDA
 Tel. / Fax 948 638 232
 Koskontako bidea, 7
 (osasun-zentroaren parean)
 31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



UTZITAKOA

Planto! Haurrak SOS elkarretaratzea

Landagain eskolako zenbait guraso eta haurrek ere bat egin dute *Planto! Haurrak SOS* deialdiarekin. Urriaren 18an, astelehenarekin, eskolatik atera ondotik, eskolako atarian eserialdia egin zuten Lehen Hezkuntzan maskara derrigorrez erabiltzearen aurka.

DESKONTUAK

BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA



Erakutsi
eta aprobetxatu
aukerak!

Caser
RESIDENCIAL ANAKA

%5 DESKONTUA
egonaldietan

Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan eta
oroigarrietan

Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA
T. 948 63 54 58 | bagoaz@ttipi.eus

Tri Sarri
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran

Irrisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Semper
autobeskola

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98
LESAKA | T. 948 63 82 99

Arturo

%5 DESKONTUA
arropelan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

bixkaka
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

txinelka

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Arropa-denda

Albistur, 3 | LESAKA

KATEA BIKE

%10 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30etik goiti

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

EDARRIAK
MANUEL TARDENA K.L.

%5 DESKONTUA
(esnean izan ezik)

Bidasoa, 76 | BERA
T. 948 63 10 27

GAELA

%10 DESKONTUA
ongizate
zerbitzuetan

Pio Baroja, 11 behe | BERA
T. 666 42 61 96

cenor
ALZURI ETXETRESNAK

%5 DESKONTUA
etxetresnetan

Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
OSTEOPATA EUSKALDUNO

%5 DESKONTUA
bortz salako bonoan

Itzea, 20 behe | BERA
T. 607 85 32 08

ASPACE
PARALISIS ZEBARRAK
Nafarroa - Nafarroa

%5 DESKONTUA
30etik goiti

Otsango, 13 | LESAKA
T. 948 63 80 41

Urdu Bera
BERRIOZABALDE 1. BILDUZ

%20 DESKONTUA
urteko abonarekin
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | BERA
T. 948 63 09 99

ZK zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kattagorria

%5 DESKONTUA
haz arropetan

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

IGONE

%5 DESKONTUA
30etik goiti
(prentsan izan ezik)

Kanttonberri, 4 behe | BERA
T. 948 63 06 26

luredenda
dekorazioak
osagarriak
ZU

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30etik goitiko
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika
Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA
T. 948 63 12 83

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

intzuri
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

IRACHE
lanatorioak

%100eko DESKONTUA
Beila-gotaren erabileran
*Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren
gradu arteko senitatekoek txartela
fisikoki aurkeztu beharko dute.

Kanttonberri, 14 | BERA
Zarandia, 18 | LESAKA
T. 948 63 74 04 | T. 948 19 70 70

HKpodologia
NORA MAIZA

10€ko DESKONTUA
italkeraren arteaketa
digitala

Bernat Etxepare, 6 | HONDARRIBIA
T. 688 878 177

txinelka

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Zapata-denda

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94



Lehen Hezkuntzakoak Endarlatsara joan ziren bizikletaren egunean.



Herriko ikasleak Saran egin zen Ikusi-Mikusi Azokan.

Gogo berriturik hasi dute ikasturtea eskolako ikasleek

Bizikletaren eguna ospatzeaz gain, Sarako Ikusi-Mikusi Azokan izan ziren eta auzolanean ere hasiak dira

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Hain ezberdinak izan diren azken bi ikasturte hauen ondotik, badirudi eskola berreskuratzen ari dela bere ohiko martxa.

Urriaren hasieran, pentsatua zuten bezala, eguraldia lagun izan zuten, eskolako haurrek bizikletaren eguna ospatu zuten. Ttikienek herrian barna egin zuten ibilbidea eta Lehen Hezkuntzakoek Endarlatsarako bidea hartu zuten.

Urriaren 8an, berriz, Sarako Ikusi-Mikusi Haur eta Gazte Literaturaren Azokara joan ziren eskolako ikasleak. Lehen

ekitaldia urriaren 8an eta 9an izan zen Saran. Azokaren lehengo edizioa 2020an egitekoa zen, baina Covid-19a dela eta, 2021eko urrira gibelatu behar izan zuten. Hala, ikastetxeen egunean ikasleek euskaraz idatzitako liburuak, idazleak eta ilustratzaileak ezagutzeko aukera izan zuten eta ikusizunekin nahiz sortzaileen aurkezpenekin gozatu zuten herriko ikasleek.

Berreskuratu duteen bertze jarduera bat auzolana da. Lehen Hezkuntzako ikasleak, Berrizaungo auzora jaisten dira eta erreka bazterrek, bide



Ttikienek auzolanean frontoiko txikileak erretiratu dituzte. ESKOLAK UTZITAKO ARGAZKIAK

berdea eta trenbidea garbitzeko lana hartzen dute. Urtero, zoritxarrez, zabor boltsa pila ederra betetzen dute. Ttikienek, berriz, frontoiko txikileak erretiratzen dituzte eta aurtengoan ere eskolako

parkeko pareta txukunduko dute, goroldioak eta belar txarrak kenduz.

Eskolako ordutik kanpoko jarduerak ere itzuli dira, hala nola, musika eskola, bertso eskola eta multikirolak ere.



UDALA

Ainhua Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhooaltzuguren@gmail.com



EGUNEKO MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...
T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

Elizateko obrak hasiak dituzte

Urriaren 19rako Elizateko obrak hasia aurreikusita baze-
goen ere, azken ezuste baten ondorioz, 26an hasi dituzte.
Udaletik pazientzia eskatu dute obrek sor ditzaketen arazo-
en aitzinean, eta, aldi berean, eskerrak eman nahi dizkiete
lankidetzagatik, hauen eragina jasan beharko duten guztiei.



Eguzki-panelek sortutako energia herriko eraikin publikoetarako izanen da. UDALA

Frontoiko teilatuan eguzki-panelak paratu ditu udalak

Nafarroako Gobernuak gastu osoaren % 85 ordaindu du eta gainerako % 15a udalak

NEREA ALZURI

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak probestuz, hainbat berrikuntza egin ditu udalak frontoian. Batetik, itaxurrei aterabidea eman bidenabar, frontoiko teilatua berritu eta teilatuan eguzki-panelak paratu dituzte. Horrez gain, led argiak paratu dituzte.

Gastuak

Led argiak paratzea 6.339,19 euro gosta da. Instalazio fotovoltaiakoaren gastua, berriz, 24.264,51 eurokoa izan da, eta horietatik 18.494,96 euro instalazioa egiteko izan dira.

Eguzki-paneletatik sortutako energia herriko eraikin publikoetara bideratzeko asmoa du udalak. Frontoiko teilatua mol-datzeak, bertzalde, 17.999,25 euroko gastua sortu du.

Dirulaguntzak

Lan horiek egin ahal izateko, udalak bi dirulaguntza hartu ditu Nafarroako Gobernutik: tokiko ekonomia sustatzeko eta Covid 19ak sortutako beharrei erantzuteko laguntzak, hain zuzen. Zehazki, gastu osoaren % 85 gobernuak ordaindu du, eta gainerako %15a udalak.

Azaroaren 1ean XXIV. Baserritarren Eguna egingen da

N. ALZURI

Ortzirale honetan abiatuko da udazkeneko kulturaldia eta azaroaren 7ra bitarte izanen da non gozatu.

- **Ortziralean, Mendian hil, hirian hil** dokumentala ikusteko aukera izanen da, 19:30ean herriko etxeko aretoan.
- **Larunbatean, 20:00etan**, Andreina Jolin taldeak kontzertua emanen du gorapean.
- **Igandean**, Beatriz Egizabal aktorearen eta Ane Labaka bertsolariaren *Erradikalak ginen* antzerkia ikusgai izanen da, 19:00etan eskolan.
- **Azaroaren 1ean**, Baserritarren Egunaren 24.edizioa egingen da Ekaitza Elkarrekin antolatuta. Plaza eta frontoian herritarrek produktuak, nekazaritza tresnak, eskulak edota aziendak ikusgai

edota salgai paratzeko aukera izanen dute eta horretaz gain, gazta eta ahari lehia-ketak ere egingen dituzte. Ostatua ere zabalduko dute eta bildutako dirua Guraso Elkartearentzat eta eskolarentzat izanen da. Herriko trikitilariak bazterrak alaitzeaz arduratuko dira eta bertako produktuen saskiaren zozketa ere egingen dute. Txartelak egunean bertan 50 zentimotan salduko dituzte.

- **Azaroaren 6an**, Maddi Ane Txoperenak *Ene baitan bizi da* eleberria aurkeztuko du, 17:00etan liburutegian.
- **Azaroaren 7an**, 12:00etan *Ombuaren itzala* proiektuaren aurkezpena egingen du Patxi Biskertek eskolan eta 17:00etan *Ameli eta xirrikietuen jostunek* ipuin-kontalaria eskolan ariko da.

Egur loteak eskatzeko azken egunak

Egur loteen eskaerak ortziralea, urriaren 29ra, bitarte egin ditezke herriko etxean. Bi modutara egiteko aukera izanen da: Batetik, enpresaren bitartez, egurra kamioian etxeraino eramane da. Bertzetik, bakoitzak egurra nahi bezala garraiatzeko aukera izanen du.

Larreak erretzeko eskaera ilbeltzera arte

Larreak erretzeko eskaerak egiteko epea ere irekia dela jakinarazi du udalak. Herritarrek erreketak herri lurretan egin nahi baldin badituzte, eskaerak herriko etxean egin beharko dituzte. 2022ko ilbeltz hondarrera arte izanen dute horretarako aukera.



- Probextu eguzkiaren energia eta paratu EGUZKI PANELAK
- Proiektuak, baimenak eta diru-laguntzak bideratzen ditugu.

ekoiztu zure energia, izan EKologikoa

Jaurena

Denda. 948 631 217

T. 630 136 863

Julio Caro Baroja, 6 - BERA

jaurenabera@gmail.com

- Elektrizitatea
- Sukaldeak
- Etxetresnak
- Eguzki panelak
- Autoentzat kargadore elektrikoak



Nafarroako EHNEk urriaren 1ean egin zuen VII. kongresua eta Irisarrik orduan hartu zuen idazkari nagusiaren ardura. EHNE

«Errentagarria izateko ezin da orain dela 30 urte bezala lan egin»

PATXIKU IRISARRI ELIZAGOIEN NAFARROAKO EHNE SINDIKATUKO IDAZKARI NAGUSIA

Urriaren 1az geroztik Irisarri da Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna sindikatuko Nafarroako idazkari nagusia. Ondoko lau urteetan izanen du ardura hori «amaren ustiatagia» hartuta abeltzaintzan segitu nahi duen etxalartarrak. Oraingo eta etorkizuneko erronkez solastatu da

G. PIKABEA | ETXALAR

«Gu ere kontsumitzaileak gara eta, sinesten ez badugu ere, boterea gure eskuetan daukagu». Hala adierazi zuen Patxi-ku Irisarri Elizagoienek (Etxalar, 1969) Nafarroako EHNE sindikatuko idazkari nagusiaren kargua hartu berritan, eta hala berretsi dio TTIPI-TTAPARI, «gure saskia betetzeko gure eskuak erabiltzen ditugula»

oroitaraziz. «Lurretik hurbil eta bere lanean sinesten duen nekazaritza eta abeltzaintza eredu» aldarrikatu du. Horrekin batera, baserri munduarekin duen harremana «lotura, etena eta hurbilketa» hitzekin laburbildu du: «lotura 1990ean hasita 17 urtez ahateak gizentzen aritu nintzelako, etena hamahiru urte sektoretik kanpo eman nitue-

lako eta orain hurbilketa, amaren ustiatagia hartu behar dudalako».

Nafarroako EHNEko idazkari nagusiaren kargua hartu berria duzu. Lau urtez sindikatua zuzenduko duen lantaldean sartu zara. Zein dira erronka nagusiak?

Erronka nagusia afiliatuen beharrei erantzutea da, baita zerbitzuak ematea ere: Nafarroako Gobernuarekin min-

tzatzea, presioa egitea, negoziatzea eta nekazariei modu antolatuan ahotsa ematea.

Nafarroa iparraldeko eta hegoaldeko nekazariak eta abeltzainak bildu zarete lantaldean...

Fermin Gorraiz lehendakaria da, itotako Itoitz herrikoa eta haragitako behiak dituen. Patxi Enjake Abaurregainakoa da eta esnetako ardiak ditu. Lezaungo Javier Osesek haragitako behiak ditu. Diego Alonso alesbestarrak baratzea du eta Cortesko Antonio Albak zerealekin lan egiten du. Josu Jorajuria donamariarrak esnetako ardiak ditu eta Sartagudako Alberto Benitok mahastiak eta fruta-arbolak. Nafarroa luze eta zabalean hartzen duen lantaldea bildu gara.

Kargua hartu zenuen egunean boterea gure eskuetan dagoela nabarmendu zenuen. Azaldu...

Idea sinplea baina indartsua da. Pandemiarekin ikusi da inoiz baino beharrezkoak gara-ela janaria ekoizten dugulako, eta horretarako gure eskuak erabiltzen ditugu. Baina aldi berean kontsumitzaileak gara eta hor dago gu guztion indarra; gure eskuak erabiltzen ditugu gure saskia edo gurditxo batetzeko eta gure eskuekin hartzen ahal ditugu zero kilometroko janariak edo produktu ekologikoak. Edo gure auzokoei ere erosten ahal dizkiogu soberan dituen produktuak. Baina erabaki horiek hartzeko prest egon behar dugu.

Nolako nekazaritza eta abeltzaintza eredu aldarrikatzen du EHNEK?

EHNE sindikatuaren eredu familiarra da, lurretik hurbil dagoena eta bere lanean sinesten duena.

Abeltzaintzak eta nekazaritzak badute erreleborik?

Erreleboa zaila da toki guztietan. Bistan da erreleboan sartzen diren gazteek ez dituztela beraien gurasoen ideiak, eta gaur den egunean gauza gehiago egin behar dira aitzinera ateratzeko. Adibidez, zure produktuaren eraldaketa zure

gain hartu behar duzu edo zure produktua zuzenean saldu etekin gehiago ateratzeko.

Sektorea krisian dago?

Zein sektore ez dago krisian? Sistema kapitalista honek krisi ziklikoak sortzen ditu, eta gurean, sektore zabala garenez, batzuetan batzuk krisian daude eta bertzeak hobekiago, eta bertzeetan alderantziz. Momentu honetan, esnearen sektorea larri dago. Joan den urtean bildotsak erregalatzen aritu ziren... Errentagarria izateko ezin da orain dela 30 urte bezala lan egin. Janariaren kate horretan zenbat eta gehiago kontrolatu, orduan eta lan gehiago egin beharko da baina aldi berean, irabaziak ere gehiago izanen dira.

Zein da NPB dirulaguntzen inguruan EHNEren iritzia?

NPB Nekazaritza Politika Bateria berritzen ari dira eta aukera historiko baten aitzinean geunden. Geundela erraten dut, EHNEk muga batzuk eskatzen zituelako eta Espainiako Gobernuak ez dagoelako muga horiek jartzeko prest. Muga horiekin nekazarien artean NPB dirulaguntzen banaketa hobe eskatzen genuen.

Nolako nekazaritza politikak aldarrikatzen dituzue?

Nekazaritza politikak prezio justuan oinarritu behar dira, baina ez dituzte horrela egiten. Gordinki erran behar da; sistema kapitalista honek NPB dirulaguntzak prezioak apaltzeko edo gure erosketako saskia ez garestitzeko erabiltzen ditu. **Pandemiak nola eragin dio lehenbiziko sektoreari?**

Jendea etxean eta ostatuak itxita, jaitsiera galanta nabaritu zen haragiaren sektorean, baita edarigintzan ere, ardogintzan. Lanean beti bezala segitu genuen, baina ekonomikoki ederki sufritu genuen.

Pandemia garaian nekazarien eta abeltzainen etekinak igo edo jaitsi egin dira?

Joan den urtean baino gehiago aurten ari gara jaitsiera nabaritzen. Joan den urtetik hainbat produktu stockean



Nafarroako EHNEko zuzendaritza berria. Ezkerretik hasita lehena Josu Jorajuria donamaria eta bosgarrena Pabiku Irisarri etxalartarra.

geldituak ziren eta horrek aurtengo prezioak apaltzea eragin du.

Itxialdiak bertako produktuekiko joera areagotu zuen?

Hasiera batean bai. Jendeak bertako produktuak eskatzen zituen. Zirkuitu laburrak sortu ziren, baina hori poliki-poliki atzertzen ari zaigu.

Azken hamarkadetan zertan aldatu da nekazarien lana?

Lehen nekazarien lana produktoria mugatzen zen. Orain eraldaketan eta zuzeneko salmentan ere ari behar du nekazariak.

Espainiako Gobernuak otsoa babesteko espezieen zerrendan sartzea ez duzue begi onez hartu. Azalduko zenuke?

Otsoa bai edo ez erradikal horretan, badaude ñabardura batzuk. EHNE sindikatuak ez du nahi otsorik gure mendietan. Otsoak, noizbait Nafarroara etortzen bada, nekazaritza estentsiboarekin bukatuko du. Ez da kasualitatea Espainiako Gobernuak dekre-

tua onartu eta lau autonomia erkidegok helegitea aurkeztu izana. Erkidego horietan daude otsoen % 95. Beraz, badaukite zerbait otsoez eta orain arte modu kontrolatuan mantendu izan dituzte. Argi erranda, tarteka uxaldiak (*batida*) eginez hil izan dituzte. Hiltzeak ez du erran nahi denekin akabatzeak, kontrolatua izatea baizik. Orain ezin izanen dira hil. Horren inguruan leitzen nuen, oreinak, orkatzak eta basurdeak kontrolatzeko balio duela otsoak. Ni otsoa banintz eta menuan oreina, basurdea edo ardia edukiko banitu, bistan da nora joanen nintzatekeen, ahularen gana, hau da, ardiaren gana.

Nekazaritza Ministerioak estatu mailan behi ustategien tamaina arautzeko asmoa du. Nafarroan Caparrosoko makroetxaldea hor dago...

Eta horren kontra gaude. Orain dela 30 urte, esnetako behien 1.500 etxalde zeuden. Gaur egun ez dira 150era ere aile-

gutzen... Sektorearentzat desastre hutsa da.

Nola ikusten duzu nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizuna?

Badago etorkizuna. Janaria edo lehengaiak ekoizten ditugu eta jan gabe ezin bizi. Beraz, etorkizuna hor dago. Baina badira arriskuak ere, ama zelularekin haragi puska egiten edo 3D ereduaren txuletak egiten ari direla ikusita... Bakoitzak ikusiko du zer jaten duen. Bere eskuetan dago indarra, baita geure buruaren esku ere.

Cederna Garalur elkarteak presidentea ere bazara. Zein proiektu dituzue esku artean eskualde honi lotuta?

Azaroaren 14ra arte udalek eta partikularrek proiektuak aurkezteko aukera izanen dute. Proiektuen artean, berrix, belaunaldien arteko erreleboa lantzen ari gara.

Eta etorkizunera begira?

Urriaren 30 urte beteko ditugu eta bertze hainbertze egitea izanen da erronka. Hala ere, ez dugu atzendu behar Cederna Garalur elkarteak eta Nafarroan dauden bertze hiru garapen agentziak, nolabait errateko, Nafarroako Gobernuaren menpe daudela. Azken finean, Europako Batasuneko dirulaguntzak banatzeko sortutako erakunde bat da.

**«NEKAZARITZA
ESTENTSIBOA
AKABO DA OTSOA
ETORTZEN BADA»**

**«SEKTOREARENTZAT
DESASTRE HUTSA
DA CAPARROSOKO
MAKROETXALDEA»**

71.287 euro hartuko dute inguruko udalek kultura sustatzeko

Nafarroako Gobernutik, Artea eta Kultura 2021 eta Udal Platea Local kultur programen baitan

TTIPI-TTAPA

Artea eta Kultura 2021 eta Udal Platea Local kultur programak gauzatzeko 1.249.702 euro hartuko dituzte Nafarroako 103 udalerrik, Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiak emanak. Gure lurraldeko hainbat udalek hartuko dituzte dirulaguntzak bi programa horien baitan egin dituzten jarduerak ordaintzeko, 71.287,26 euro guztira.

Udal Platea Local

Udal Platea Local deialdiaren laguntza hartuko dute Nafarroako 30 udal erakundek. Ekimen honek babesten ditu Arte Eszenikoak eta Musika esparruetako udal programazioa, publikoekiko bitartekotza jarduerak, arte eszenikoak eta musika esparruetako egoitzak edota alorreko profesionalen eta enpresen kontratazioa. Eskualdean, **Lesakako Udalak** 15.836,29 euro hartuko du eta **Berako Udalak** 9.880,76 euro.

2021 Artea eta Kultura programatik 45.570 euro eskualdeko udalentsat

2021 Artea eta Kultura deialdiari dagokion dirulaguntza Nafarroako 103 tokiko erakundek hartuko dute, 547.702 euro osotara. Jarduera artistikoak eta kultur arlokoak sustatzera bideratuko jarduerak finantzatzeko dituzte horrekin.

Deialdi honen helburua da Nafarroako edozein herritan kultura ohiturak eta praktikak sustatzea, eta Udal Platea Local deialdiak ez bezala, ikusizunen kontratazio gastuak estaltzen ditu.

Eskualdean, **Baztango Udalak** 13.031,82 euro, **Goizueta-Udalak** 2.000 euro, **Doneztebeko Udalak** 2.300 euro, **Berako Udalak** 12.723,30 euro, **Lesakako Udalak** 10.686,08 euro, **Donamariako Udalak** 4.028,35 euro eta **Arantzako Udalak** eta 800,66 euro jasoko dute. Denera eskualdean, 45.570,21 euro jasoko dute udalek.



Amorantek irekiko du Sarako jaialdia. ARTXIBOKOA

Usopop hirugarren hitzordua azaroaren 14an izanen da Sarako Santa Katalinan

TTIPI-TTAPA

Bihotzak Josiko Ditugu Berriz kontzertu-sorta bukatzera doa Saran. Hirugarren eta hondarreko hitzordu horrekin, jadanik bere misioa bete du Usopopen ekimenak: «elkarrekin momentu goxoak bizi ditugu musikaren inguruan». Aldi honetan, bertze behin Sarako Santa Katalina kaperan elkartuko dira, azaroaren 14an, igandean, 17:00etan, «leku magiko horren bibrazioarekin murgiltzeko», bi proposamen artistikok lagunduta. Sartzeak hamar eurotan salgai daude my.weezevent.com webgunean.

Amorante bakarlaria

Alde batetik, Amorante ariko da. 2020an Iban Urizarren bigarren lanarekin loriatu zuen

jendea. Zazpi kantuz osaturiko bilduma aurkeztuko du eta Aitor Etxebarriaren ekoizpena nabarmendu daiteke. Urte berezi hau zeharkatzen lagundu duen diska bat da, folk herrikoi unibertso modernoaren artean.

Choc Gazi taldea

Bertzetik, edertasun gordin bat taularatu nahian Choc Gazl taldea bi kidek osatzen dute. Alde batetik, Cocanha talde okzitandarraren sortzailea den Lila Fraysse kantaria/jotzailea eta bertzetik Nicolas Lafourest rock gitarra-jotzailea. Bikoteak esperientzia hibrido bat eskaintzen du, tradizioa eta esperientziazioaren artean, eta 2022an lehen lan luzea plazaratzeko dute Pagans zigilupean.

Akademia programa izan dute Elizondoko Lanbide Eskolan

TTIPI-TTAPA

Orientazio profesionalaren arloan lankidetzakomunitarioa indartzea helburu duen programak bisita egin dio Elizondoko Lanbide Eskolari. Suediako, Alemaniako, Frantziako eta Lituaniako hainbat zentrotako borts orientatzailek Europako hezkuntza sistemaren berri eman zieten

«arras interesgarria eta aberasgarria» izandako solasaldian. «Gaitasunen arabera ikastea eta irakastea gure ikasleek etorkizun pertsonal eta profesionalari heltzeko modurik onena» dela egiaztatu zuten.

Aurtengo nazioarteko topaketan, Nafarroan egin zuten urriaren 4tik 8ra.



Europako borts orientatzaile izan ziren Elizondoko ikastetxean. UTZITAKO ARGAZKIA



Gaztainak jaten goitiko eskolako patioan. ESKOLAK UTZIAK

Gaztainak eta onddoak jateko aukera izan dute

Eskolako neska-mutikoek lehendik bildutako gaztainak jan zituzten urriaren 8an goitiko eskolako patioan

MAIDER PETRIRENA

Azken zenbakian aipatu bezala, ikasturteari hasiera ezin hobea emanez gaztain biltze-rajoa ziren. Ondorengo pausua, urriaren 8an, bildutako gaztain hoiekin gaztain jatea egin zuten goitiko eskolako patioan. Aspaldi elkartu ezinik egon ondotik, aurtengoan gozatu zuten, eguraldia lagun.

Onddoak aukeran

Bertze aldetik, azken aldiko eguraldia lagun ama lurrak

uzta ederra biltzeko aukera eman du. Aurretik gaztainak hizpide eta oraingo honetan onddoak. Aipatutakoaren arabera onddo aunitz biltzeko aukera izan da. Argazkietan ikusi daitekeen bezala, alde batetik 1,300 kiloko pisua duen onddo eder bat bildu du Fernando Irazoki Etxeberria herritarak. Bertzetik berriz, 1,650 kilo osatzen duten onddoek zerbait berezia eskaintzen digute. Azken hau Niebes Biurrarena Maiak eskuratua da.



Fernando Irazokik bildutako 1,3 kiloko onddoa eta Niebes Biurrarenak bildutako onddo-sorta ederra, mendian eta baskula gainean.



ESKOLAK UTZIA

Eskolan hasitako neska-mutikoak

Ikasturte honetan hasi diren ikasleak: Zutik, Laia Elizalde Gartzia, Michelle Arretxea Maritorea, Ixone Muñoz Arretxea eta Ander Petrirena Gorosterrazu. Beheitiko lerroan, Ximun Gaitan Eraçarret Goñi, Yereimi Jimenez Etcheverry, Olatz Ibarra Lanz eta Markel Apeztegia Arretxea.

Bidane Madariaga lehiakide Euskal Telebistako 'Baserria' saioan

Bidane Madariaga Iriarte herritarak Euskal Telebistan igandero ikus daitekeen *Baserria* programan parte hartu du. Camilo Astiz Lesakarra

bikote kide izan du eta bosgarren ataleko froga galdu ondotik, berriz ere kalera bueltatzea tokatu zaie. Halere, ibilbide polita egin dute.



Bidane Madariaga herritarra eta Camilo Astiz lesakarra proba batean.



Mugikortasuna hobetzeko pintaketa lanei ekinen diete

Horretaz gain, Parrokia karrikako lanak ere egingen dituzte eta sarbidea debekatua edo txandakatua izanen da

MARGA ERDOZAIN

Herriko mugikortasunaren hobekuntzak eta lanek bertze bultzada bat izanen dute, pintaketa lanak egingen baitituzte datozen egunetan.

Herriko Etxeak herriko hainbat gunetan ongi zehaztuko ditu aparkatzeko guneak, zama-lanak egitekoak, denbora txikiko edo errotaziorako aparkalekuak...

Mourgues etorbidean, Elizagibela karrikan baita turismo bulegoko aparkalekuan ere egingen dituzte pintaketa lanak. Horietaz gain, Intza-

kardi parkearen ondoan sortu den aparkatzeko gune berria ere pintatuko dute.

Parrokia karrikan

Parrokia karrikako lanak ere egingen dituzte eta moldaketa lanek irauten duten bitartean sarbidea debekatua egonen da edo txandakatua izanen da. Lanek bizilagun eta bertako denda eta zerbitzuen erabiltzaileri eragozpenak sortaraziko dizkiete baina beharrezkoak dira zola eta irisgarritasuna eraldatu behar baita.



NAFARROAKO BERTSOZALE EKARTEA

Zinema betea bertsolari txapelketan

Nafarroako Txapelketaren kanporaketa ederra bizitu zuten zinema aretoa lepo bete zuten entzuleek. Kultura segurua baino gehiago dela erran dezakegu: sendagarri, pizgarri eta zubi eraikitzailea. Finaleraino lan handia dute bertsolariek baina Donezteben jasotako txaloak ez dituzte atzenduko.

Bocabeats Comedia antzezlanaren urriaren 31n zineman

Taldeak bi emanaldi eskainiko ditu zineman doan, igandean 17:00etan publiko ttikiarentzat eta 19:00etan helduentzat. Ivan Perez eta Aitor Vidaurreta dira emanaldiaren artistak, Euskal Herriko umorista ospetsuak, Stand Up Comedy taldea osatzen dutenak. Bi artistek inprobisatzen dute, parodia egiten dute baina beti ikusleek eskatutako proposamenak jarraituta. Taldeak ibilbide arrakastatsua du: Interneten 10 miloi erreproduzio izan dute egindako lanek, 180.000 jarraitzaile dituzte eta: TVE, Tele 5, Antena 3 eta ETB2 telebistetan agertu dira. *Los villancicos vascos con beatbox*, *Tecno Vasco* eta *Reggae Vasco* dira bikote artistikoaren lan entzutetsu eta erreproduzio gehienak izan dituztenak.

Irakurle taldea, poesia tailerra eta erakusketa

Liburutegiko Gaztelaniako Irakurle Taldeak azarorako hautatu duen lana Amaia Oloriz nafar idazlearen *El largo sueño de tu nombre* izeneko nobela da. Azaroaren 29an izanen da liburu honen inguruko solasaldia. Poesia tailerrak azaroaren 15ean bigarren hitzordua izanen du. Azaroaren 15etik 18ra *Indarkeriarik kontsumitzen al dugu?* erakusketa ibiltaria ikusgai izanen da. Erakusketaz gain Kamishibai izanen da *Laika, beldar ausarta* ipuinarekin (4-10 urtekoentzat). Hurrengo alean zehaztapen gehiago argitaratuko dira.

Bertzetik, Mankomunitateko kontsumitzailearentzako bulegoaren zerbitzua azaroaren 5ean gurean izanen da. Hitzordua eskatzeko 948 45 17 46 telefonora deitu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haurrak SOS elkarretaratzea eskolan

San Migeleko eskolako zenbait guraso eta haurrek ere bat egin zuten *Planto! Haurrak SOS* deialdiarekin. Urriaren 18an, astelehenarekin, eskolatik atera ondotik, eskolako atarian elkarretaratzea egin zuten Lehen Hezkuntzan maskara derrigorrez erabili behar izatearen aurka.

BAZTAN-BIDASOKO EHIZARI BURUZKO XXIX. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Urriaren 16tik azaroaren 30era



Azaroaren 11ra arte eskatu daitezke Errigorako saskiak

'Herriak egiten du herria' lelopean abiatu dute kanpaina. Diru gehiago bideratuko dute aurten euskalgintzara

TTIPI-TTAPA

Ailegatu da berriz ere Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskara puzka* kanpaina. Urriaren 23tik azaroaren 11ra arte iraunen du eta Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko produktuz betetako hiru saski eskainiko dituzte.

Herriak egiten du herria lelopean, hasieratik hartutako sostengua nabarmendu nahi izan dute. 2013an martxan paratu zutenetik, 1.400.000 euro baino gehiago bideratu ditu Errigorak Nafarroa hegoaldean eta erdialdean eus-

kaldunak sortzeko egitasmoak babestera. Herritarrak kontsumitzaile edo erabiltzaile huts bihurtu diren garaian «auzolanaren balioa eta baliagarritasuna» frogatu dutela nabarmendu dute.

Bide horretan kokatu dute Agerraldia ekimenaren sorrera: «Denbora gehiegi joan zaigu Nafarroa hegoaldean eta erdialdean aldaketaren esperoan. Bokazio praktikoa du egiteko eta eginarazteko sortu da; instituzioen utzikeriaren edo, eragozpenen aitzinean, herri ekimena nagu-



Errigorako saskiak betetzen auzolanean. UTZITAKO ARGAZKIA

situ dadin, euskararentzat aro berri bat zabaltzeko».

Hiru saski aukeran

Urtero gisan, hiru saski daude aukeran: 60 euroko Errigorako saski klasiko beltza, 65 euroko balioa duen saski berde ekologikoa eta 70 euro balio duen saski zuri berezia. Saski guztiekin batera Errigoraren eta Agerraldiaren argazkiak eta informazioa biltzen dituen egutegia ere banatuko dute.

Saskien balioaren % 25 bideratuko dute euskalgintzara, eta saski bakoitzaren balioa bortz euro igota, ekarpena ere handiagoa izanen da. Diru ekarpenaren zati handiena Nafarroa hegoaldeko ikastolei, AEKren euskaltegiei eta eskualdean sare publikoan D eredua indartzeko Sortzenen dinamikei bideratuko diete. Gainontzekoa ekarpena, aldez, Agerraldia ekimenari bideratuko diote.



errigora

errigora.eus




ikastolenelkartea



Sortzen

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria



eskatu saskiak eta eman hauspoa euskarari



Imuntzo eta Belokirekin gaupasa egingen dute Aurtizen

Azaroaren 13an 19:00etan hasiko den emanaldiaren ondotik diskobesta izanen da ostatuan eta elkartean

A. MINDEGIA

Azaroaren 13an gaupasa antolatu dute Aurtizen gazteek. Larunbat horretan 19:00etan hasita, dantzaldia izanen da Imuntzo eta Belokirekin. Ondotik, elkartean eta ostatuan diskobesta izanen dute.



Imuntzo eta Beloki.

Ugaitz Elizalde

Ugaitz Elizalde herriko pilotaria han eta hemen ibili da udan Garferekin, txapelketa eta erakustaldietan parte hartzen. Orain, berriz, Uharteko lau eta Erdiko txapelketan hasi da. Nafarroako binakako txapelketan ere hastekoa da.

Pilotarako afizioak gogor jo du herrian. Neskak astelehenero Aurtizko Koianea txikia frontoian Ados pilota eskolarekin entrenatzen eta mutil gazte kuadrila bat Errekako pilota eskolan dabilta.

Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo aitzinera, Egoitz Gorosterrazu kanpoan

A. MINDEGIA

Doneztebeko zinean jokatu zen Nafarroako bertsolari txapelketako lehen faseko azken kanporaketa. Bertan, Gorosterrazu anaiek saio bikaina egin zuten lehenagotik Alazne Untxalok Tafallan egin zuen gisara. Alaznek eta Ikerrek

aitzinera egin dute eta azaroaren 6an Berriozarren eta azaroaren 14an ariko dira.

Bertzalde, gaztetxoek bertso eskolan segitzen dute ortzegunetan eskolazaharrean, Iker Gorosterrazu irakaslearekin. Norbait animatzen bada gerturatu dadila lasai ederrean.



UTZITAKOA

Bertizera eta Orero mendira ateraldia

Urriaren 14an egin zuten lehen ateraldia eskolako irakasle eta ikasleek, ingurumen tailerraren baitan. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak Bertizera joan ziren, Nartarteko plazatik oinez. Gainerako ikasleak Orero mendira joan ziren, eskolatik oinez abiatuta.



UTZITAKOA

Trikidantz taldea Nafarroa Oinez

Joan den urtean ez bezala aurtengoan ospatu berri da Nafarroa Oinez. Lizarra ikastolakoek ekitaldi ugari antolatu zituzten eta jende ugari bildu zen egunaz gozatzeri. Los Llanos parkea hankaz goiti jarri zuen herriko Trikidantz taldeak, gerturatu ziren guztiak dantzan eta kantuan jarritz.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 www.kateabike.com

AMA KONTXA
GASOLINDEGIA

· ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)

· 24 ORDUKO ZERBITZUA

· TELEFONOA ETA FAXA

· APARKALEKUA

· KUTXAZAIN AUTOMATIKOA

· SUPERMERKATUA

· LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA

· ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



Ekitaldian parte hartu zutenak, denak batera. ARGAZKIAK: ZASKUN ZUBIALDE



Garbitzaileek lixutegian egin zuten garai bateko lanaren erakustaldia.

Emakumeen lanari aitortza egin zaio lixutegian

Garai bateko lanaren erakustaldia, olio zaharrez egindako xaboiaren banaketa eta beste zenbait ekitaldi egin ziren

FERMIN ETXEKOLONEA

Emakumeak omentzeko eguna izan zen urriaren 17a Zubietan, eta urteetan garbiketa lanak egiteko erabili izan den iturriaz baliatu ziren horretarako. Abuztuan eta irailean olio zahararen bilketa egin zuten herrian eta Oihana Santamaria artisau gasteiztarrek xaboia egin zuen horrekin. Emakumeek xaboiarekin garbiketala lanak nola egin ohi zituzten erakutsi zuten eta haien testigantzak aditzeko aukera izan zuten herritarrek. Joaldunak ere ibili ziren.

Ondotik, egun horretarako Bittori Elizalde Sotok sortutako hiru bertsoak kantatu zituen eta Santamariak presatutako xaboiak banatu zituzten. Udala garai horietako argazki bat aurkitzen saiatu zen baina ez zuen lortu, beraz, irailean Irantzu Pastor argazkilaria errekreatzio bat egin zuen Zubietako emakumeekin eta argazki hori zubiko iturrian zintzilikatu zuten, Elizalderen bertsoetako batekin. Ekitaldia borobiltzeko, Edortak eta Txasek herriko plaza girotu zuten kantaldiarekin.



Edortak eta Txasek herriko plaza girotu zuten beraien kantaldiarekin.



Irantzu Pastorren argazkiarekin egindako panela zintzilikatu dute.

Eskulangileak, musika eta herri bazkaria izan dira Euskararen Egunean

F. ETXEKOLONEA

Ez da beste urtetako ospakizun handirik izan, baina, joan den urtean ez bezala, Euskararen Egunak bere lekua izan zuen urriko bigarren larunbatean. Goizean eskulangileek beraien lanak plazaratu zituzten eta herriko trikitilari

panderojole eta joaldunak ibili ziren. Mutxikoak dantzatzeko aukera ere izan zen. Herri bazkarian hainbat herritar bildu ziren. Arratsaldean, Neomak taldeak kontzertua eman zuen eta gauean, Trikidantz taldearekin dantzan borobildu zuten eguna.



Herritarrek elkarrekin bazkaltzeko baliatu zuten Euskararen Eguna. UTZITAKOA

Finalaurrekoetako saioak erabaki dira bertso txapelketan

Azaroaren 1ean Altsasun, 6an Berriozarren eta 14an Leitzan lehiatuko dira, azaroaren 28ko finalaren bila

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko zineman jokatu zen urriaren 16an Nafarroako Bertsolari Txapelketako laugarren eta azken final-laurdena. Maialen Belarrak aurkeztuta, sei bertsolari aritu ziren kantuan: Julio Soto Ezkurdia, Josu Sanjurjo Altzuri, Iker Gorosterrazu Elizagoien, Ekain Alegre Gil, Egoitz Gorosterrazu (272,5) eta Sahats Aleman Sadaba (267). 200 entzule inguru elkartu ziren Doneztebeko zineman, Nafarroako Bertsotale Elkarteak Doneztebeko Udalaren laguntzare-

kin antolatutako saioa zuze-nean entzuteko. Julio Sotok eskuratu zuen puntu gehien, 387,5, eta hortaz, Leitzako finalaurrekorako txartela eskuratu du. Haren atzetik sailkatu dira Josu Sanjurjo (335), Iker Gorosterrazu (304), Ekain Alegre Gil (284,5), Egoitz Gorosterrazu (272,5) eta Sahats Aleman Sadaba (267).

Gauzak horrela, osatu dira finalaurrekoetako hiru saioak, seina bertsolarirekin. Horietatik denetik, zortzi bertsolari sailkatuko dira azaroaren 28ko Iruñeko finalera.



Julio Soto kantari Doneztebeko saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

Finalaurrekoak

Azaroaren 1ean, 17:30ean, Altsasuko Iortia Kulturgunean Eneko Fernandez Maritxalar, Erika Lagoma Pombar, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Endika Legarra Nuin eta Oier Lakuntza Irigoien ariko dira. Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi Goñi

Azaroaren 6an, 17:30ean, Berriozarko Entzunaretoan, Eneko Lazkoz Martinez, Saioa Alkaiza Guallar, Josu Sanjurjo

Altzuri, Alazne Untxalo Erregerena, Mikel Lasarte Cia eta Patxi Castillo Graziarena ariko dira. Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

Azaroaren 14an, 17:30ean, Leitzako Herri Aretoan Joanes Illarregi Marzol, Julio Soto Ezkurdia, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Julen Zelaieta Iriarte eta Iker Gorosterrazu Elizagoien ariko dira. Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea Agirre.



Nafarroako

Bertsolari Txapelketa 2021

Finalaurrekoak

www.bertsozale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai



ALTSASU

Azaroak 1, astelehena. 17:30ean, Iortia Kulturgunean
Eneko Fernandez Maritxalar, Erika Lagoma Pombar, Xabat Illarregi Marzol, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Endika Legarra Nuin eta Oier Lakuntza Irigoien
Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi Goñi

BERRIOZAR

Azaroak 6, larunbata. 17:30ean, Entzunaretoan
Eneko Lazkoz Fernandez, Saioa Alkaiza Guallar, Josu Sanjurjo Altzuri, Alazne Untxalo Erregerena, Mikel Lasarte Cia eta Patxi Castillo Graziarena
Gai-jartzailea: Maialen Belarra Eñeterreaga

LEITZA

Azaroak 14, igandea. 17:30ean, Herri Aretoan



Joanes Illarregi Marzol, Julio Soto Ezkurdia, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Julen Zelaieta Iriarte eta Iker Gorosterrazu Elizagoien
Gai-jartzailea: Ainhoa Larretxea Agirre



Arkupeak elkarteko mendizaleak Kartxela inguruan. PABLO IRASTORTZA

Pirinioetara ateraldia egin du mendi taldeak

Irailaren 21ean Belaguako Kartxelara (1.987 metro) joan ziren 35 mendizale

P. IRASTORTZA

Nahiz eta 2020an ezin izan zen egin, mendiko batzordearen-tzat urteroko ohitura da hila-beteroko irtenaldietako bat prestatzea Pirinio aldera. Aurtien bai, irailaren 21ean, 1.987 metroko altuera duen Kartxela mendia igo zuten, Belaguan. 05:30ean atera ziren autobusez Doneztebetik, Arkupeak elkarteko 35 mendizale, 08:00etarako Juan Pito ostatuan zeuden. Berehala ekin zioten aldapa gorari eguraldi sanoarekin, nahiz eta gorantz igo ahala laino itxiak eta lanbro-langarrak inguruak eta kaskoko ikuspegi ederrak zeharo makurku

zituzten. Hezetasunak bidea ere nahiko baldintzatu zuenez, taldearen heren bat inguru izan zen -arreta eta arduraz-tontorra zapaldu zuena. Dena den, bortz ordu inguruko joan-etorria osatu ondotik, uste-kabeko kezkaririk gabe itzuli ziren ostatura, han baitzeukaten zain autobusa. Beherrakoan, Izaban egin zuten (umorez gainezka, mahai txikietan eta osasun neurriak errespetatuaz) "balentriak" merezi zuen bazkari goxoa. 19:30ak alderako Doneztebera ailegatu ziren eta elkar agurtu zuten, egun eder eta alaia disfrutatu eta gero.

Eguberrietako loteria eskuragarri dago

Urte bukaerako aferatako bat martxan dago aurtien ere, Eguberrietako loteria, alegia. Badira aste batzuk herri bakoitzeko delegatuek txartelak eskuetan dauzkatela. Animatu berandutu baino lehen, eta ez ahan-tzi iaz bi zenbakietako batek saria izan zuela.

Jubilatuentzat solasaldia Beran azaroaren 8an

Erretretako adin tartean bazaudete erakargarria eta egokia den gai batetaz eztabaidatzeko aukera paregabea izanen da azaroaren 8an, 18:30ean Berako Beralandetan. Ramoni Ordoki psikologoa izanen da *Jubilatu naiz, eta orain zer?* gaia jorratuko duena. Tel.: 618 56 78 37.



P. IRASTORTZA

Euxebi Mariezkurrenari iraileko saria


Iraileko galderari erantzunez, Martin Gartziarena Labaien aizkoran nabarmendu zela asmatu zutenen artean egindako zozketaren ondotik, Leitzako Euxebi Mariezkurren Saldias izan zen Lodosako Perón etxeko janari sorta etxeratu zuena. Milesker parte-hartzeagatik eta on egin diezazula!

Azaroko galdera

Eskualdeko zein herritan sortu zen Julian Retegi Barberia, pelotari ohia? ☎ 618 56 78 37.

Elena Olasagasti mendi kideak utzi gaitu

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN



Nahiz eta jakin zure osasuna herren zegoela, odola agorturik utzi gintuen zure azken arnasaren urri hasierako berriak. Aspaldian, bizitzako hainbat alderdi ilun eta gogorren eztenkada zorrotzak jasoagatik, elkartasun gehien behar zuen edonori laguntzeko, hango eta hemengo erakunde eta antolaketetan murgildurik, elkarlan mugagabea zen zure eguneroko eginahala.

Atsekabeturik, eta utzi duzun zuloa ezin beterik daude zure familia, lagunartea, eta zuregandik hainbeste babes eta sostengu jasotako guztiak. Zer esan dezakegu Arkupeak-eko mendizaleok? Kostaldeko itsas-argiak arrantzaleak gauez bideratzen dituen bezala, zu zinen "mendi-argi" edo gidaria, mendi taldea Txingudi aldera eta batez ere Hondarribira hurbiltzen zen aldiro. Elena, zein atseginak izan diren Nafarroako hainbat mendi-bisitarientzat, zuri esker, Jaizkibel mendiko tontor, kostalde eta xokoetako aurkikuntzak. Hagitz zaila izanen da, mendiak zure urruntasuna antzemanen Guadalupen behera isurtzen dituen hainbat negar malko xukatzea. Barka gaitzazu hain ahazkorrak izateagatik, zure esku zabalek eraikitako lanak ez baitu apenas esker apur txiki bat bertzerik jaso. Mila esker emandako guztiangatik Elena, eta bidai on azken mendira!!

Sarako 'errebestak' larunbat honetan ospatuko dituzte

Eguerdian hasita pala txapelketako sei final jokatuko dituzte eta gauean afaria egingen dute

TTIPI-TTAPA SARA

Buruileko bestak giblean utzita, asteburu honetan errebestak edo besta ttipiak antolatu ditu Sarako gazteriak. Larunbat honetan, urriaren 30ean, egina dute hitzordua eta kirolaz gozatzeko eta bes-tarako aukera izanen da.



Sarako bestetako irudia. GANEX

Pala txapelketako finalak

Eguerdian, 12:00etatik goiti aperitifa emanen dute eta ordu horretan hasiko dira pala txapelketako finalak plazan. Eguerdian hasi eta 18:00etan jokatuko dute hondar finala; guztira sei partida.

Gazteek lehen aldizkoz antolatu dute aurreten pala torneo, eta erantzun ona izan du 32 taldek parte hartu baitute. Finalak bestetan egiteko asmoa zuten, baina ordurako ezin izan zituzten partida guztiak

finitu eta hala, asteburu honetan egingen dute.

Afaria eta animazioa

18:00etan kiroldegian aperitifa izanen da eta 21:00etan afaria hasiko da. Txartelak 22 eurotan daude eta asteazken hau, urriaren 27a, izanen da txartelak erreserbatzeko hondar eguna. 06 26 76 43 57 telefonora deituta egin daiteke. Afaria girotzeaz Elektrozarata txaranga arduratuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Berako San Miguel zubian auzolanean

Bertze aldi batez, garbitu ederra eman diote Berako San Miguel zubi inguruari San Miguel Zubiko Lagunen elkarteko kideek eta Berako Udaleko langileak. Argazkian joan den irailaren 27an auzolanean aritu zirenak ageri dira, egindako lanarekin kontent.

Bortzirietako elikadura sistemaz lansaioa azaroaren 5ean Beran

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK

Tokiko ekonomia sustatzeko helburuarekin, lurraldeko elikadura estrategia lantzeko prozesua abiatu dute Bortzirietan. Zehazki «elikadura sistemak dituen indarguneak, aukerak eta arriskuak identifikatu» nahi dituzte, «bailarako lehen sektorea egonkortu eta sustatzeko proposamenak aztertzeko». Bide horretan, elikadura sistemaren diagnosis egin dute, bertzeak bertze, martxotik azarora hainbat aditu, etxalde eta kontsumo proiektu elkarriketatuz, eta emaitzak azaroaren 5ean, ortziralearrekin, Beran egingen duten jardunaldian aurkeztuko dituzte. Berako Kultur Etxeko erakusgelan, 18:30ean, egina dute hitzordua. Gaiaren harira bertze jardunaldi bat ere egingen dute azaroan, hilaren 26an. Etorkizun hurbilean, ekonomia zirkularrari eta tokiko produktuen kontsumoaren sustapenari buruzko proiektu bati ekiteko aukerak aztertu nahi dituzte.



Duela 16 urte hil zen Kotto.

Kotto gogoan ekitaldia egingen dute igande honetan Beran

TTIPI-TTAPA BERA

Igande honetan, urriaren 31n, 16 urte beteko dira Jose Angel Alzuguren Perurena Kotto hil zenetik, eta 16. urteurrenaren harira, ekitaldia egingen dute Beran. 09:30ean Altxateko plaza-abiaturatik, Otxandara oinez joanen dira. 11:00etan Otxandara ekitaldia egingen dute eta 14:00etan bazkaria Espidobaitan. Txartelak Katakun eta Errekalden salgai daude eta asteazken hau izanen da erosteko hondarreko eguna.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pentsio duinak aldarrikatuz

28 lagun elkartu ziren urriaren 18an Beran, Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduak deitutako elkarretaratzean. *Pentsio duina, bizi duina* lelopean, «guttieneko 1.080 euroko pentsioa» eskatu zuten. Hurrengoa azaroaren 15ean Donezteben izanen dute, eskola aitzineko biribilgunean, 12:00etan.

Buruz buruko hirugarren pilota txapelketa bukatua

Eskualdeko pilotariek hainbat txapel lortu dituzte Mendialdeko pilota txapelketako finaletan

TTIPI-TTAPA

Leitzako Aurrera, Goizuetako Umore Ona, Araxes eta Larraun pilota eskolek antolatutako Mendialdeko Buruz Buruko III. Pilota Txapelketako finalak urriaren 10ean jokatu zituzten eta Umore Onako pilotariek hainbat txapel lortu zituzten.

Kimuen aurreneko mailan: **H. Sagastibeltza (Aurrera)** 17 - A. Balda (Larraun) 18.

Haurren hirugarren mailan, G. Viana (Larraun) 13 - Eg. Oreja (Larraun) 18.

Haurren bigarren mailan, A. Olleta (Larraun) 18 - E. Ijurko (Larraun) 13.

Seinenetan, **I. Andiarena (Aurrera)** 18 - **A. Olaizola (Aurrera)** 5.

Kimuen mailan, **A. Sagardui (Umore Ona)** 18 - **G. Imaz (Aurrera)** 2.

Kimuen bigarren mailan, **A. Salaberria (Umore Ona)** 18 - **A. Dorronsoro (Aurrera)** 6.

Kimuen hirugarren mailan, E. Satrustegi (Araxes) 18 - A. Goikoetxea (Larraun) 11.

Kadeteen aurreneko mailan, J. Sotil (Larraun) 18 - **O. Legarreta (Umore Ona)** 2.

Haurren aurreneko mailan, **J. Baleztena (Aurrera)** 12 - **E. Bidart (Aurrera)** 18.

Kadeteen bigarren mailan, M. Goikoetxea (Larraun) 3 - **X. Telletxea (Aurrera)** 18.

Gazteen mailan, **E. Mateorena (Aurrera)** 18 - **E. Elizegi (Umore Ona)** 17.



Buruz buruko III. txapelketako finalista batzuk. IGOR ELIZEGI

Sanmartinen seinalea azaroaren 13an eta 14an

Larunbatean bertso zahar musikatuak izanen dira eta igandean pilota partidak

TTIPI-TTAPA

Bertsoa eta kirola uztartuz, sanmartinak ospatzeko aukera izanen dute herritarrek aurtengo. Azaroaren 13an, iluntzean, bertso zahar musikatuak izanen dira. Unai eta Eñaut Agirre anaiek bertso zaharrak kantatuko dituzte Imanol Kamio

musikariaren doinuek lagunduta. Azaroaren 14an, berriz, eguerdian, Ados pilota enpresakoek pilota partida jokatu dute. Berez udan aritzekoak ziren, baina eguraldiagatik bertan behera gelditu zen. Hitzabeteta, sanmartinetan etorriko dira.



OHIANA KALPARSORO

Markel Oiartzabalen liburu aurkezpena

Urriaren 10ean Amaia gidoi-liburua aurkeztu zuen Markel Oiartzabalek Maisuenean. Hernaniarra bada ere, lotura estua du Aranorekin, ama bertakoa baitu, eta autoedizioan argitaratutako bere lehen liburuaren aurkezpen polita egin zuen. Bildutakoak gustura gelditu ziren.

Balikebale lehiaketa abenduaren 17an

Azaroaren 15era arte izanen da lehiaketan izena emateko aukera, euskara zerbitzura deituta edo idatzita

TTIPI-TTAPA

Leitza ezagutzen duzula uste baduzu eta ongi pasatu nahi baduzu, hortxe agendarako hitzordua: Balikebale taldekako lehiaketa abenduaren 17an, ostirala, egingen dute, 19:00etan Herri Aretoan, eta antolatzaileek aurreratu dutenez, «galdera, ariketa eta proba berriak» izanen dira lagarren edizio honetan.

Izen-ematea zabalik

Izena emateko epea zabalik dago eta interesatuek azaroaren 15era arte izanen dute horretarako aukera. Izena euskaraz zerbitzuan eman behar da, 948 51 08 14 telefonora deituta edo laga@iparmank.eus helbidera idatzita.

18 urtetik gorakoek izanen dute lehiaketan parte hartze-ko aukera eta guztira lau talde

ariko dira, horietako bakoitza hiru lagunez osatua. Izena ematen duten taldeak lau baino gehiago izanez gero, zozketa egingen dute eta aurreratu dutenez, lehiaketan inoiz parte hartu ez duten lehiakidez osatutako taldeek izanen dute lehentasuna.

Sariak

Parte-hartzaileak ez dira etxera esku hutsik joanen. Aurten go Balikebale lehiaketako irabazleek 450 euroko txekoa eskuratuko dute eta horrez gain, parte hartzen duten guztien artean sari ederrak banatuko dituzte: otorduak, kultur ekintzetarako sarrerak, herriko produktuak...

Bestalde, Covid-19a dela eta, «beharrezko segurtasun eta osasun neurri guztiak bermatuko» dituzte iragarri dute.

Erantzun ona izan dute Anikote kiroldegiko ikastaro berriek

TTIPI-TTAPA

Berrikuntzekin hasi du ikasturtea Anikote kiroldegia. Alde batetik, Les Mills ikastaroetan alta eman dute eta horri esker nahi duenak hitzordua eskatuz *body pump* eta *body combat* saioetan izena eman dezake. Saioak goizetan, eguerditan eta arratsaldetan izaten dira norberak leitza.reservas24h.es atariaren bidez aukera dezake noiz nahi duen. Miren Latasa kiroldegiko kudeatzailearen hitzetan, «oso erantzun ona izan du, uste baino hobea. Lan txandaka ari direnentzat

oso proposa da, goizetik ezin badu arratsaldeko klasera joan daitekeelako eta alderantziz». Are gehiago, «bi ikastaroak oso ezberdinak dira baina jendea biak egiten ari da eta oso gustura dabil».

Bestetik, kiroldegiko bazkideentzat txirrindularitzako *bestcycling* saio birtualak ere antolatu dituzte, *spinning* gelan jarri duten telebistaren bitartez. Bazkideentzat doako zerbitzua da eta kasu honetan ere, leitza.reservas24h.es en erregistratuta eskatu behar da hitzordua.



2019ko mendi erronkan hartutako irudi bat. EHME

Otsailean irekiko dute EHME izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Tiki-taka, tiki-taka... Badator VIII. Euskal Herria Mendi Erronka. Antolatzaileek uda hasieran aurreratu zuten 2022ko ekainaren 4an izanen dela 67 kilometroko lasterketan eta orain, izen-ematea otsailean zabalduko dutela jakinarazi dute. Pandemia tarteko, 2020ko eta

2021eko lasterketak bertan behera utzi ondoren, «ilusioz eta indarrez» itzuli dira, «ofizialtasuna, euskara, mendizaletasuna eta auzolana uztartzen dituen ultra traila antolatzeko». Lasterketa bakarka edo errelebo egiten ahalko da, eta azken horretan gutxienez batek emakumezkoa izan behar du.

Liburutegiko liburuzain aldaketa azaroan

Gaur egun liburuzaina den Harkaitz Delgadok azaroan utziko du herriko liburutegia, Erriberriko liburutegian egokitu zaiolako plaza. Azaroaren 2tik aurrera Elena Arteta izanen dela Leitza liburuzaina. Zorte on, Harkaitz!



Opari-txartelen saridunak zein diren jakinarazi du Kaxkabeltza elkarteak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 7tik 14ra erosketak Kaxkabeltza elkarteak dendentan egin zituzten bezeroen artean, hainbat opari-txartel zozkatu zituzten: 20 euroko opari-txartelen irabazleak Irati Lazkano, Tere Arraras, Lorena Almandoz, Carmen Olano

eta Laura Sanchez izan dira. 50 euroko txartelen irabazleak Lurdes Zabalo, Nora Gil, Susana Lasarte eta Axun Zabaleta izan dira eta 100 euro sariak Nerea Gonzalez, Rosari Lasagair eta Arantxari egokitu zaizkie. Urriaren 22an bukatu zen txartelak gastatzeko epea.

Etxalderen eskutik jardunaldia ostegunean

Etxalde baserritarren mugimenduak antolatuta, hainbat hitzaldi izanen dira Herri Aretoan

TTIPI-TTAPA

Elikadura sistema eta nekazaritza ekoizpen iraunkorra dute begiz joa, eta horri heldu nahi dio hurrengo hamarkadan Etxalde nekazaritza iraunkorraren eta elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduak. Bide horretan, udalaren laguntzarekin, hitzaldiz, mahai-inguruz eta eztabaidaz hornitutako jardunaldia antolatu du Etxalde aste honetan Leitza. Ostegun honetan, urriaren 28an, izanen da eta goiz osoko egitaraua prestatu dute Herri Aretoan. Hizlari guztiak Etxaldeko kideak izanen dira.

Egitaraua

- 10:30ean, **Gotzone Sestorain** herritarrek ongietorria egingen du eta txostena aurkeztuko du, zergatiak eta helburuak azalduz.
- 10:45ean **Mikel Hiribarren** laborariak testuinguru orokorra azalduko du: nazioartea, Euskal Herrian, Covid-19a, elikadura sistemak, nekazaritza...
- 11:05ean Bizkaiko EHNEko **Andoni Gartzia** hartuko du hitza eta Europako Batzordearen proposamena, *Baserriak mahaira* estrategia eta NPB dirulaguntzak Europa eta Euskal Herrian nola dau-den kontatuko du.
- 11:25ean **Amets Ladislaoren** txanda izanen da eta *Baserriratzeko prozesuak lehentasunezko helburua, eta elikadura politika publikoen ardatz egituratzaile gisa* gaia- ren bueltan ariko da.
- 11:45ean **publikoak** hartuko du hitza eta 12:15ean atse- denaldia egingen dute.

- 12:30eko mahai-inguruarekin berrartuko dute saioa, **Gotzone Sestorain** moderatzaile dutela. Lau hizlarik parte hartuko dute mahai-inguruan eta horietako bakoitzak 20 minutuko tartea izanen du.

Miriam Otxotorena NPEK-eko lehendakaria, esaterako, 2030 urterako lurren % 25 ekoizpen ekologikokoa izateko, plagizida eta antibiotikoen erabilera % 50 murrizteko eta ongarri kimikoak % 20 gutxiago izateko erronkari begira jarriko da.

Alberto Llona EHNEko teknikariak, berriz, *Abeltzantza eta ekoizpen eraldaketak, Europako herrialdeetako tendentziak, merkaturatzea eta kontsumoa* izanen du hizpide.

Esti Besa ardo ekoizleak ardogintzaren ibilbidean oinarrituta, jatorrizko izendurez, kalitate politikez, lehentasunezko merkaturatze estrategiez eta barne merkaturaren egonkortzeaz hitz egingen du.

ELB sindikatuko **Panpi Sant Marik**, azkenik, borroka eta aldarrikapenak ekarriko ditu erdigunera: *Borroka eta aldarrikapena ezinbesteko osagaiak oinarritzko baliabideak bermatzeko, herritargoarekin konplizitateak eraikitzearen garrantzia* izanen du hizpide. Horretarako, ahateen afera eta nekazaritzalurren defentsa izanen ditu abiapuntu.

- Mahai-inguruaren ondoren, 13:50ean **eztabaida** irekia egingen dute publikoaren eta mahaikideen artean.
- Eta 14:30ean lau orduko jardunaldiari bukaera emanen diote.

Eskualdeko plan estrategikoa helburu duten hausnarketa prozesuak martxan

TTIPI-TTAPA

«Hausnarketarako garaia da eta herrian eta eskualdean horretan ari gara». Halaxe aitortu du Mikel Zabaleta alkateak. «Hainbat arlo lantzen» ari direla gaineratu du, «aurre egin beharreko hainbat erronka daudelako» eta horien artean, «despopulazioa, elikadura, turismo eredua...» aipatu ditu.

Turismo eredua

Alde batetik, Plazaola Turismo Partzuergoak turismoaren eredua eta marko estrategikoa diseinatzeko prozesua abiatu du eta horretan parte hartzen ari da udala. Hainbat lansaio egiten ari dira eta horietako bat, ostegun honetan, urriaren 28an, Herri Aretoan egingen dute, 15:30ean.

Elikaduraren gaia

Bestalde, elikaduraren gaia ere esku artean dute. Uztailean sortu zuten mendialdeko elikadura mahaia eta geroztik hainbat bilera egin dituzte talde eragilea osatzen duten Cederna Garalur elkarte teknika-riek, Habelarte Mendialdeko Baserriarren Elkarteko kideek, eskualdeko udal ordezkariak eta Leitzeko kontsumo taldekoek. Hurrengo hitzordua azaroaren 2an egingen dute, Lekunberrin, 18:00etan.



Elikadura mahaiaren urriko bilera.

Energiaren alorra

Goieneko kooperatibaren aholkularitzarekin, «Energia Berriztagarrien Komunitate bat sortzeko lehen pausuak ematen hasiak» direla ere adierazi du alkateak, eta gaineratu duenez, «datozen hilabeteetan parte-hartze prozesua abiatuko dugu, energia alorrean herritarrek ahaldundu eta burujabetzan aurrera egiteko asmoz». Besteak beste, «herrian bertan energia sortu eta kontsumitzeko proiektuak gartzea» dute begiz joa.

Zabaletaren hitzetan, guztia- ren helburua «bestelako garapen eredua» da, «burujabetzagoa, justuagoa eta parte-hartzaileagoa». Bere ustez, hori gakoa da «etorkizunean gure herriak bizirik mantendu eta gizarte jasangarriagoa nahi badugu». Horrekin batera, «laster eskualdeko plan estrategikoa martxan jarriko» omen dute «alorrez alor sortzen ari diren hausnarketak bilduko dituen».

Mari eta Warmi Sisay dira erraldoi berriak

306 lagunek parte hartu dute urriaren 2an aurkeztu zituzten bi erraldoi berriei izena aukeratzeko egin duten galdeketa. Baserri- rarentzat Mari izena aukeratu dute eta kichwarra- rentzat Warmi Sisay.





Kemen taldeko kideak LHLko lantaldearekin. LHL ERRONKA

23.000 euro bilduta LHL lehentasunak zehazten hasiko da

Hainbat eragileri ekarpenak eta iradokizunak egiteko proposatu diete

TTIPI-TTAPA

Ongi merezitako udako atse-denaldiaren ondoren, martxan da berriz ere LHLko lantaldea. Irail bukaeran bildu ziren aurreneko aurrera begirakoak zehazteko.

Bildutako diru kopuruaren zenbatekoa ere zehaztu zuten eta pozik gelditu dira emaitzarekin: «tabernetan jarriak genituen itsulapikoak biltzera bidali genituen haurrak. Kontularien zenbatekoei haurrek zenbatutakoak gehituta, 23.000 euro inguru bildu ditugula konturatu ginen. Ez da kopuru makala!». Horregatik eskerak eman nahi izan dizkiete «proiektu honi babesak eman dieten norbanako, entitate eta eragile guztiei».

Elkarlanean

Hurrengo pausoa «bildutako dirua zertan inbertitu ongi

pentsatzea» izanen dela aurreratu du LHLko lantaldeak, eta bide hori ez dute bakarrik egin nahi: «LHLkook geure ideiak mahai gainean jarri ditugu, eta beste hainbat eragileri beren ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera luzatu diegu: gizarte zerbitzuari, jubilatutako elkarteari, Okille tailerrari, udalari, herriko ikastetxei, Kemen pertsona ezinduen kirol klubari eta hainbat norbanakori, tartean, Udaneren ama Josu-neri eta Luis Mari Lezeari». Urriaren 17an, esaterako, Kemen taldeko bi kideren bisita izan zuten, «haien begiradarekin herriaren irisgarritasuna hobetzeko proposamenak jasotzeko» eta adierazi dutenez, «ekarpen bikainak egin zizkiguten».

Jasotako ekarpenak bildu ondoren, bilera egingen dute «lehentasunak zehazteko».

Emakume baserritarrei keinu egin diete ikasleek

Azpiko Etxeko Karidadekin baserriko lanak bertatik bertara ezagutu dituzte eskolako neska-mutikoeak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 15a, Emakume Baserritarren Nazioarteko Eguna da, eta hori gogoan, egun horretan ateraldi bat egin zuten Nazabal eskolako ikasleek. Azpiko Etxeko Karidadi bisita egin zioten, eta baserriko lana zer den bertatik bertara eza-

gutzeko aukera izan zuten. Karidaden azalpenak entzuteaz gain, ukuiluko behi eta txekorreirei jaten ematen aritu ziren neska-mutikoak, baratzean ere ibili ziren... Emakume baserritarren lana aitortu bide-nabar, aski tarte atsegina pasatu zuten.



Eskolako ikasleak Azpiko Etxeko Karidadekin. JAIONE OLAZABAL

Liburutegi ibiltaria asteazkenean Areson eta ostegunean Goizuetan eta Aranon

TTIPI-TTAPA

Liburutegi ibiltariaren urriko hitzorduak ere zehaztu dituzte. Leitzako liburutegian aste honetan egingen du geldialdia Areson, Goizuetan eta Aranon.

Aresora, esaterako, asteazken honetan, urriaren 27an, egingen du bisita, 14:15etik 15:00etara.

Ostegunean, berriz, urriaren 28an, Goizuetako eta Aranoko liburutegien txanda izanen da: 14:30etik 15:30era Goizuetan eta 16:00etatik 16:30era Aranon.

Beti bezala, aurretik liburuak eska daitezke Whatsappez 617 38 58 82ra edo e-mailez *bibli lei@navarra.es*era idatzita.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Kultur zinegotzia izanen da Igor Elizegi urriaren 28tik aurrera.

Elizegik ostegunean hartuko du zinegotzi kargua

Igaratza Apezetxearen lekukoa Igor Elizegik hartuko du udalean eta kulturaz arduratuko da

TTIPI-TTAPA

Udalak duela aste batzuk iragarri zuen udal taldean zinegotzi aldaketa izanen dela eta aste honetan izanen da aldaketa hori. Orain arte zinegotzi izan den Igaratza Apezetxeak, arrazoi pertsonalak tarteko, kargua utziko du, eta Igor Elizegik hartuko du bere lekukoa, duela bi urteko udal hauteskundeetara EH Bilduren zerrendan hurrengo zenak. Ostegun honetan, urriaren 28an, egitekoa duten batzar orokorrean hartuko du Elizegik kargua eta Apezetxeak orain arte izan duen arloaz arduratuko da, kulturaz.

Elizegik «gogotsu» dagoela adierazi dio TTIPI-TTAPARI eta bere hitzetan, «udalean dagoen lan politenatariko bat izanen da kulturakoa». Dena den, herri gintza ez da kontu berria beretzat, «beti ibili gara batean eta bestean gauzak antolatzen». Horren seinale da egindako bidea. Gazte Asanbladan ibilia da, Guraso Elkarteko eta Umore Ona elkartetako zuzendari-tzatan ere bai eta azkenaldian pilota eskolan dabil.

Udalak ongi etorria egin nahi izan dio, eta Apezetxeari, berriz, eskerrak eman dizkio, bere «ekarpenagatik eta lanagatik».

Hodei Lujanbio nagusi Urdazubiko lasterketan

Baialtzinikin Hodei Lujanbiok Urdazubiko Kontrabandisten lasterketa irabazi zuela gaueko lasterketan bigarren eta maratoi erdian laugarren eginda? Urriaren 17an, berriz, Malagan izan zen, klubaren arteko txapelketan.



PIERRE EZKURRA

XVII. Feria Eguna azaroaren 27an izanen da

Feria Batzordeak aurreratu duenez, azaroaren 27an XVII. Feria Eguna egingen da. Azien-dak, eskulanak, produktuak... erakusgai edo salgai jarri nahi dituztenek azaroaren 5erako udaletxera deitu behar dute (948 51 40 06).



IGARATZA APEZETXEA

Artikutzako trenaren ibilbidean barrena

Plazatik Bianditzeko lepora autobusez joan, eta handik oinez Arriurdiñetara joan ziren hainbat herritar urriaren 17an. Anton Mendizabalen gidaritzapean, Artikutzako trenaren ibilbidea barrena, hainbat azalpen entzuteko aukera izan zuten. Arriurdiñetatik herrira kotxez itzuli ziren.

Udal eraikinak egokitzeko eta ur hornidura sarea hobetzeko lanak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Covid-19aren ondorioz sortutako beharrei aurre egiteko banatu dituen dirulaguntzak aprobetxatuz, herriko eraikinak egokitu eta ur hornidura sarea hobetu ditu udalak.

Dirulaguntza deialdian, zehazki 46.144,82 euro egokitu zaizkio Goizuetari. Udalari gutxienez % 15eko finantzaketa egitea eskatu zioten, eta Goizuetako Udalak gastuaren % 30 bere gain hartu du gastu guztiak estaltzeko. Hala, guttira 51.530 euroko inbertsioa

egin dute herrian. Bestek beste, Tifanitxo eraikinean ate berriak jarri dituzte (4.798 euro). Horrez gain, udaletxe-ko gasoliozko galdara zaharra aldatu eta, energetikoki efizienteagoa den galdara berria jarri dute udal eraikina berotzeko (6.296 euro). Goxalin ere berogailua jarri dute (4.503 euro); uraren presioa erregulatze-ko instalazioa egin dute (15.268 euro) eta ur-hornidura sarearen ekoauditorea egin dute (4.800 euro). Azkenik, eskolako argiak ere aldatu dituzte (15.861 euro)

Ferriak eta pilota partidak Elizondon urriaren 29an

Aziendak eta makinak egonen dira ikusgai, baita artisauen eta komertzioen postuak ere

TTIPI-TTAPA

Iaz ez genuen udazkeneko ferriak ospatzeko aukerarik izan koronabirusak sortutako egoerarengatik, baina urriaren 1etik aitzinera Nafarroako Gobernuak murrizketak kentzea erabaki zuenez, aurtengo ferrietaz gozatzeko aukera izanen dugu. Ez dira kanpoko komertziorik ezta artisaurik etorriko, baina bertako abeltzainen azienda eta makinaria ikusgai egonen dira egun osoan merkatuko plazan. Baztango hainbat artisauek eta komertzioek ere haien produktuak karriketara aterako dituzte.

Pilota partidak

Eguna girotzeko, Elizondoko Herriak Aspeko pilotari profesionalen bi partida antolatu ditu. 18:00etan hasita, Julen Egiguren V.a eta Xabi Erostarbe Iker Salaberria goizueta-rraren eta Oier Etxebarriaren kontra arituko dira. Bigarren, Iker Irribarria eta Beñat Rezusta Peio Etxeberri eta Jose Jabier Zabaletaren aurka arituko dira. Baztan pilotalekuan izanen dira bi partidak eta sarrerak salgai daude dagokien Futbolen ostatuan eta Internet bidez. Ortziralean ere 17:00etatik aitzinera leihatilan erosi ahal izanen dira.

'Trans egoera: Zorroztu dezagun begirada' mahai-ingurua azaroaren 4an

Baztango Berdintasun Zerbitzuak eta Talde Feministak antolatua, transexualitatea izanen dute hizpide azaroaren 4an 18:00etan Arizkunenea Kultur Etxeko sabaian eginen duten mahai-inguruan. Bertan, Brayan Altimasberes, Aitzole

Araneta eta Mireia Delgado hizlariak arituko dira gaiari buruz eta Aintzane Ariztegi izanen dute moderatzaile. Trans pertsonen egungo egoera aztertuko dute hainbat ikuspuntu eta errealitateetatik begiratuta.



600 bat lagun elkartu ziren Elizondon urriaren 9an eta 10ean. EHKO NESKA* GAZTEAK

Euskal mugimendu feministaren indarra

TTIPI-TTAPA

«Elkar ezagutu, indartu eta sartzeko aukera» izan dute asteburuan Euskal Herriko neska gazteek, baita «aurrera begirako erronkak finkatzeko» ere. «Azken urteetan Euskal Herri osoko herrietan eman den neska* gazte taldeen loraldiaren ondorio izan da Elizondon sortutakoa, baina baita inflexio-puntu bat ere mugimenduan».

Elizondoko herria bi egunez gazte feministaz betetzeak kuriositate handia piztu du herritarren eta kanpotarren artean. Mahai-inguruak, solasaldiak, tailerrak, kontzertuak eta manifestazio jendetsuak egin dituzte, bertzeak bertze, karriketan. «Baina hau ez da asteburu bakarrean geldituko, egunero-egunero gure bizi-tzako esparru guztiak astintzeko prest gaudelako».

BRIKO
LIMPIEZA, SL
MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...
konfidantzazko zerbitzua
T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108
Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304



Hainbat emakumek parte hartu zuten talde-elkarriketan. UTZITAKOA

Emakume migratuekin bildu da Baztango Berdintasun Zerbitzua

TTIPI-TTAPA

Baztango Berdintasun Batzordeak talde-elkarriketen prozesua abiatu du Elhuyarren bitartekaritzarekin, I. Berdintasun Planaren barnean. Bailerako neska eta emakumeen behar eta arazoak ezagutzea du helburu prozesuak.

Emakume migratuak izan dira lehenbiziko parte-hartzaileak. Urriaren 14an Arizkuneneako batzar gelan bildu ziren arratsaldean, haien bizi-baldintzak hobetzeko proposamenak aztertzeko. Udaleko teknikariak adierazi duenez, «Saio gogorra izan zen, haien bizi-esperientziek neskame eta morroi garaietara eraman gintuzten. Familiak urruti utzi behar izan zituzten, sostengu ekonomikoa ziurtatzearen truke. Egoera ekonomiko zailak bakardadea eta tristura gehitzen zaie». Saiok «erron-

ka mordo» gehitu zizkion berdintasun planari.

Aitzinera begira

Urriaren 20an egin zuten bigarren bilera, hainbat arlotako emakumeekin: kultura, kirola, politika, hezkuntza... Hirugarrena eta azkena lurrarekin harremana duten emakumeekin izanen da; nekazariak, abeltzainak, baserrian bizi direnak... Azaroaren 10ean izanen da bigarrena, 17:00etatik 18:30era, Arizkunenean. Baztango udalerriak alkate juratuekin ere elkartzeko dira herriz herriko balorazioa egiteko.

Bertako emakumeen behar eta arazoak identifikatuta, kontraste saioa egingen dute Mugimendu Feministarekin eta bertze hainbat eragilerekin eta azken emaitza herritar guztiekin partekatuko dute.

'Karlos III. Gurutzea' emanen diote Lorentzo Sarrateari

Elizondoarra 25 urtetik goiti aritu da «Erronkariko Jatorri Izenapeneko gasnak sustatzearen alde lanean»

TTIPI-TTAPA

Bortz lagun sarituko ditu aurtengo Gobernuak Karlos III.aren Gurutzearekin: David Beriain eta Florencio Domínguez kazetariak, Isabel Sola koronabirusean aditua, Helena Taberna zinema zuzendaria eta Lorenzo Sarratea Azkarraga Erronkariko Jatorri Izendapeneko presidentea.

25 urte baino gehiago aritu da Sarratea Erronkariko Jatorri Deituraren alde lanean eta gaur egun Kontseilu Erregulatzailearen burua da. Harekin batera, Nafarroako Gobernuak Erronkariko Jatorri Izendapena bera ere saritu nahi izan du, «Nafarroa-



Lorentzo Sarratea elizondoarra.

ko enbaxadore izateagatik eta gure komunitatea elikagaien lanketan bikaintasunarekin lotzen laguntzeagatik». Sari banaketa udaberriaren egitekoaren baina gibelatu behar izan zuten eta azaroan egitea aurreikusitako dute.

Vaudí Cavalcanti laukotearen kontzertua

Vaudí Cavalcanti artista brasildarraren laukoteak *bossa nova* eta samba eritmoak ekarriko ditu Elizondora. Kultura Batzordeak antolatua, kontzertua azaroaren 7an Arizkunenean izanen da 19:00etan.

Jesus Yoldi Bereauri buruzko liburuaren aurkezpena Arizkun

Arizkun sortua, fisikan katedraduna eta Granadako Unibertsitateko errektore izan zen Jesus Yoldi Bereauri 1936an fusilatuta zuten arte. Azaroaren 12an 19:00etan Arizkongo herriko ostatuan Roque Hídalgo bere liburuaren aurkeztuko du.

ANZABAL

inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrí, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804

anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Husqvarna

DISTRIBUIDOR OFICIAL

BB BLOK BAT

TALLERES

biokbat.com

C/ Santiago 85 ELIZONDO 948 580 898

Udalak alojamendu turistikoari buruzko azterketa egin du

199 alojamendu turistiko daude guztira bailaran eta 2.497 ohatze plaza eskaintzen dira, 32 plaza 100 biztanleko

TTIPI-TTAPA

Baztan jomuga erakargarria da turismoarendako eta horrek eragin zuzena du lurraldeko ehun sozioekonomikoan. Azken bi hamarkadetan alojamendu turistikoaren kopuruak nabarmen egin du goiti eta gehiago espero dira hurrengo urteetarako.

Baztango erronketako bat «jendea herrietan finkatzea» eta «etxebizitzaren aukera erraztea» da, eta jomuga turistiko bat izateak «etxebizitzaren, lurraren eta alokairuaren prezioan eta alokairuko etxebizitzaren parkean» eragiten du. Udalak identifikatu duen bertzeko arrisku bat «gehiegizko eskaintza» da, «ez bakarrik sortzen ahal den burbuilagatik, baita herri eta auzoek turismoaren etorrerajasateko duten muga fisikoengatik ere». Horregatik, «Baztango bizi-moduari eusteko eta turismoarendako erakargarri izaten segitzeko» lanean ari dira. Hau lortzeko, alojamendu turistikoaren errealitatea eta hauek izan duten eragina aztertu

dute Ostatu Turistikoaren Azterketan.

Ostatu Turistikoaren Azterketa

Bizi-Biziki aholkularitzak egin du azterketa eta datuak Nafarroako Turismo Behatokitik, Errealitate Sozialaren Behatokitik, NASTATetik, Baztango Hirigintza Planetik eta egin-dako inkestetatik atera dituzte. 199 alojamendu turistiko daude guztira Baztanen eta 2.497 ohe plaza eskaintzen dira, hau da, 32 plaza 100 biztanleko. Erratzuk du kopuru handiena, 150 plazekin 100 biztanleko, Gartzain ondotik 102 plazekin, Azpilkueta 56 plazekin, Lekaroz 53 plazekin eta Arizkun 43 plazekin. Bertzeko muturrean daude Irurita 6 plazekin, Elizondo 11 plazekin eta Aniz eta Berroeta 18 plazekin. Laburbilduz, Baztango kuartelean 82 plaza daude 100 biztanleko, Elizondon 60, Erberean 44 eta Basaburuan 13.

Hala ere, «tipologia bakoitzak ez du berdin eragiten, herri eta auzo bakoitzaren ezauga-

rri urbanistikoak kontuan hartu behar dira datuak aztertzerakoan, bigarren etxebizitza eta etxebizitza huts kopurua zein den, zerbitzu eskaintza, ibilgailuen harrera gaitasuna, errepide sarea...». Errealitate soziala ere kontuan hartu behar da, «ez baita berdin despopulazio arriskuan dagoen edo herritarrak bertan finkatzeko zailtasunak dituen herri bat eta Elizondo».

Datuak eskualdekoekin ere konparatu dituzte. Baztanen gibeletik Bortzirak daude, 104 ostatu turistiko eta 1.226 ohatze plazarekin. Malerrekan 81 ostatu eta 1.243 plaza daude. Bertizaranan 81 ostatu eta 180 plaza daude. Urdazubi eta Zugarramurdi 38 ostatu eta 279 plaza daude. Gainera, etorkizunera begira, Baztanen guttienez 816 plaza berri espero dira eta kopurua guztira 3.313 plazara igoko litzateke.

Landetxei dagokionez, 108 badaude Baztanen, eta ohatze plazan %37a eskaintzen dute. Nafarroako landetxe guzien

%15a Baztanen daude, eta honek landa turismoan bereziki posizionatutako lurralde gisa ezaugarritzen du. Honez gain, 68 apartamentu turistiko daude, eskaintako plazan %14a, eta hauetatik 38 Elizondon daude.

Jabeei dagokionez, ostatu turistikoaren jabeen %65ak jardura osagarritzat du kudeaketa, eta nagusiki Baztango herritarrak dira eta bertan dute bizilekua. Hala ere, kanpoko inbertsoreak etortzeko joerak goiti egin du. Ostatuaren %70ak ez du langile plantillarik behar, eta behar direnean orduak kontratazioak dira, hotel eta aterpetxeetan izan ezik.

Bigarren azterketa bat ere egin dute; Amairuko bisitarien profilaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa. Ondorioztatu dutenez, etortzen den bisitaria «landa paisaia bila dator, lasaitasunaren, herrien eta naturaren bila». Baztango webgunean eskuragarri daude egindako bi azterketen dokumentuak.

Nafar Lansareak zerbitzari ikastaroa antolatu du Lekarozen

Azaroaren 2tik heldu den urteko otsailaren 4ra egingen dute ikastaroa Lekarozko aterpean. 210 orduko ikastaro presentziala izanen da, 09:15etik 14:30era (15 minutuko atsedendialdiarekin). Barrako eta salako zerbitzua, lehengaien

hornikuntza eta aperitiboaren eta plater konbinatuaren prestatketa landuko dituzte. Formakuntza gehigarria izanen du: lan-arriskuen prebentzioa, genero berdintasuna eta alfabetatzeko informatikoa. Informazio gehiago navarra.es-en.

**INDAUTO
TAILERRAK** *ELITE*

**Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Ibilgailuen salerosketa**

Ind. Ordoki · Arizkun (NA)
T. 948 453 488 · M. 675 324 960

info@indauto.es

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
VALLES DE CANTEKIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Bertan elkarteak kideak aurkezpenean. UTZITAKOA

LarunBertan ekimena antolatu dute merkatariek

Produktu berriak, deskontu bereziak eta haurrendako jarduerak izanen dira La Palma irlari laguntzeko

TTIPI-TTAPA

Bertan elkarteak eta Rural Kutzak LarunBertan ekimena antolatu dute bertako merkataritza sustatzeko eta bertan kontsumitu dadin. Urrian hainbat deskontu, jarduera, tailer, zozketa, pintxo eta produktu berezi izan dituzte eta azaroaren 6an, 13an, 20an eta

27an ere eskainiko dituzte. Honez gain, Kanarietako platanak banatu eta salgai paratu dituzte La Palma uharteari elkartasuna adierazteko.

Egingen diren jarduerak eta parte hartzen duten komertzioen produktuak bertanbazztan.eus webgunean daude eskuragarri.



Irati Usandizaga eta Julen Arburua lehen sariarekin eskutan. UTZITAKOA

Kortariko gasna txapeldunen txapeldun izan da Ordizian

TTIPI-TTAPA

XXXIV. Ordizia Txapeldun gasna lehiaketa egin zuten urriaren 13an, eta bertan azken hamar urteotan Ordizia-ko lehiaketan gasna onenaren saria irabazi duten gasnagileak lehiatu ziren elkarrekin.

Orabideko Kortariko gasnak bi aldiz irabazi duenez, bi gasna aurkezteko aukera izan zuen

Julen Arburuak eta lehenbizi-ko eta hirugarren postuak lortu zituen. Gainera, urrezko gasnaren saria ere eraman du, 8,5eko nota gainditu duelako, 9,07 punturekin, hain zuzen ere. Oatza gaztandegiko Joseba Insausti ordiziarrek lortu du bigarren postua eta «maila paregabea» eman dute lehiakide guztiek.

Udaltzain izateko bi lanpostu betetzeko deialdia

Udaltzain izateko bi lanpostu betetzeko oposizio bidezko deialdia egin du udalak. Lanpostu bat txanda irekikoa izanen da eta bertzea igoera txandakoa. Hautagaiek hainbat baldintza bete beharko dituzte, bertzeak bertze, euskarako C1 maila eta gidabaimena. Eskabidea aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita 30 egunekoa da. Beharrezko dokumentazio guztia Baztango Udalaren erregistroan aurkeztu beharko da. Informazio gehiago www.baztan.eus webgunean.



ARÓZ-BERRI

Orain Kubota ere!



NEKAZARITZARAKO TRESNERIAK

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, 0,8 km - IRURITA
 Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - www.arozberri.com

«Jendearen memoria ailegatzen den lekuraino ailegatzen gara gu»

SUBERRI MATELO ETA MAITE ERRARTE ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Baztango landa-paisaiaren eboluzioa aztertzen ari dira Etnografia Saileko Matelo eta Errarte. Baserrietako bizimodua eta ohitura zaharrak ezagutzeko, bailarako jende adinduari elkarrizketak egiten ari dira eta nahi duten guzietan parte hartzera animatu diete



Suberri Matelo eta Maite Errarte ikerlariak Fermin Leizaola etnografoarekin. UTZITAKOA

R. OSKARIZ

Aranzadi Zientzia Elkarteko etnografoak dira Suberri Matelo Mitxelena oiartzuarra eta Maite Errarte Zurutuza beasainarra. «Aranzadik, Amaiurko herriak hala eskatuta, 2006an bertako gazteluko indusketa lanak hasi zituen, eta gu boluntario gisa hasi ginen bertan lanean duela zortzi urte». Horrela ezagutu zuten Baztan, «eta ikaragarri gustatzen zaigu ingurua».

Zergatik sartu zineten elkarteko Etnografia Sailean?

Historiako Gradua ikasi genuen, eta Aranzadin arkeologia lanetan hasi ginen. Hala

ere, berehala konturatu ginen guri benetan etnografia gustatzen zitzaigula. Etnografia, modu arrazabalean azalduta, gizartearen jokaera kulturalak deskribatu eta dokumentatzen dituen arloa da. Guk, errate baterako, gure arbasoen bizimodu tradizionala ikertu eta zabaltzen dugu: baserrietako bizimodua, antzinako kultura, galdu diren usadioak, paisaia nola aldatu den... Hori dela eta, Aranzadiko Etnografia Sailean sartu ginen, arkeologian hasi baginen ere.

Noiz hasi zineten Baztango paisaiaren eboluzioa ikertzen?

Duela urte pare bat Aranzadiko bertze bi ikerlarik, Mattin Aiestaranek eta Josu Narbarrek, Baztango paisaiaren ikerketa arkeologiko bat hasi zuten. Gu ikerketa horretara gehitu gara, gure ikuspuntua emateko asmoz. Baztan beti izan da arrazabale interesgarria etnografiaren alorretik: baserriko mundua, paisaia, usadioak... Oso bizirik mantendu dira eremu aunitzetan, eta oraindik jende aunitz bizi da nekazaritza eta abeltzaintzatik. Horregatik, beti iruditzen zaigu interesgarria bailara eta beti nahi izan dugu halako proiekturen bat hemen egin.

Zein da zuen helburua?

Landa-paisaiari buruzko galdeketa egiten ari gara. Adineko jendea elkarrizketatzen dugu, gure asmoa paisaiaren gaineko erabilerak biltzea delako. Adibidez, menditik zer probesten zen, etxe inguruan zer landatzen zen, edo paisaia nola aldatu den galdetzen dugu, hori interesatzen zai-gulako. Galdeketa hauekin azken 100 urteak dokumentatzen ditugu, jendearen memoria ailegatzen den lekuraino ailegatzen gara gu. Hala ere, ikerketa orokorra zabala goa da, arkeologiaren bidez, adibidez, ehunka urte gibelera egin daiteke.

Zergatik adineko jendeari?

Guretako informazio iturri dira. Bailara hauetako gure adindunak, batik bat, baserri-tik bizi izan dira, eta bizimodu hartatik ezagutzen dutena galdetzen diegu. Norbaitek azienda bazuen etxean, hortaz solastatuko digu, bertze batekin gisu-labeei buruz, bertze batzuekin sendabelarren inguruan... paisaiaren erabilerarekin erlazionaturiko informazio oro interesatzen zaigu. Horrekin batera, argazki zaharrak eta mapa zaharrak ere erabiltzen ditugu, ingurua nola aldatu den jakiteko.

Zenbat pertsona elkarrizketatu dituzue?

Oraingoz bortz elkarrizketa egin ditugu, udan hasi baikara. Anizko, Amaiurko eta Lekarozko jendea elkarrizketatu dugu; Amaiurren galdetu genuen lehenik, eta bertze herritara mugitu ginen. Ideia da Baztango herri gehienetako jendea elkarrizketatzea, zenbat eta jende gehiagorekin orduan eta ikuspuntu zabala goa delako.

Beti dira ongi etorriak elkarrizketatuak izan nahi duten adineko pertsonak. Norbaitek parte hartu nahiko balu edo parte har dezkeen norbait ezagutzen badu, gurekin harremanetan jar daiteke etnografia@aranzadi.eus korreo elektronikora idatziz



Carlos Amat argazkilaria 1910eko hamarkadan Baztango baserri batean egindako argazkia. NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA

edo Aranzadiko telefonoan (943 46 61 42) gugatik galdetuta. Informazio oro interesgarria da guretako eta gustura adituko dugu.

Kontatzeko gogotsu daude?

Egia erran arras elkarrizketa interesgarriak eta mamitsuak egin ditugu. Orokorrean erraza da adineko jendeak baserriko munduari buruz solastatzea, hori bizi izan baitute, eta kontatzeko dutena beti da aberasgarria eta garran-

tzitsua. Gure kasuan, landa paisaiari buruz galdetzen dugunez, denek dute zerbait errateko eta guk zerbait berria ikasteko. Bereziki bitxia egiten zaigu gazte garaiko eguneroko bizitzari buruz edo azindari, baserriari edo mendiari buruz galdetzerakoan aunitzetan guttietsi egiten dutela informazio hori eta ez digutela kontatzen, «hori aspergarria da zuendako», eta guk behin eta berriz

galdetu behar. Batendako normala eta ohikoa dena bertzearendako bitxikeria izaten da. Zailena jendea rengana ailegatzea da aunitzetan, guk ez dakigulako nola jarri harremanetan bertako adinduekin.

Nola egiten dituzue elkarrizketak?

Haien etxean edo herrian gelditzen gara elkarrizketa egiteko. Argazki batzuk atera eta elkarrizketan errandakoa grabatu egiten dugu mugikorra-

rekin, guk informazio hori ez atzentzeko. Jendea eroso sentitzen da, egiten ditugun galderak ez direlako batere arraroak, ez da azterketa bat! Pasta batzuk eraman eta kafe bat hartuz tertulian ibiltzen gara, goiz edo arratsalde pasa atseginak izaten dira, orain arte arras jende irekia tokatu zaigu eta poza ematen du halako jendearekin egoteak.

Nola aldatu da landa-paisaia?

Ez gara, oraingoz, ondoriorik ateratzen hasi, baina erran dezakegu bertze leku aunitzetan gertatu dena hemen ere antzeman dugula: Baztane bere landa munduarekiko lotura handia izan du, landa eguneroko bizimoduaren parte zen, baina guttina-ka galtzen joan da lotura hori. Gero eta jende guttiago bizi da aziendatik, menditik, baratzetik... baserritik orokorrean, eta gure asmoa da galdu diren usadio eta bizimodu horiek gogora ekartzea.

Zer egingen duzue lortutako informazioarekin?

Printzipioz txosten batean bilduko dugu dena eta udalari aurkeztuko diogu. Ondotik, material horrekin guziaz erekin milaka aukera daude, baina garrantzitsuena dena ongi biltzea da, ondotik zabaldu eta jakitera emateko. Beraz, adinduak elkarrizketak egitera animatu nahi ditugu, seguru aunitzek badutela zer erran eta zer kontatu! Eta elkarrizketatu ditugun guziei; *esker mile aunitz!*



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean





Lehendabiziko eta bigarren mailako finalistak. UTZITAKOA

Iruritako XV. Pala Txapelketako finalak jokatu dituzte

Lehendabiziko mailan Albiasu eta Martikorena izan dira garaile, bigarrenen Barberena eta Baraibar

TTIPI-TTAPA

Urriaren 12an Iruritako XV. Pala Txapelketako finalak jokatu zituzten. 11:00etan izan zen lehenbiziko partida, bigarren mailakoa. Patxi Barberena zigatarra eta Aitor Baraibar almandoztarra Unai Santxotena eta Patxi Irigoien erratzuarren kontra aritu ziren,

eta zigatarra eta almandoztarra nagusitu ziren, 30-22. 12:00etan jokatu zuten bigarren partida, lehenbiziko mailakoa. Gaizka Martikorena eta David Albiasu Julen Iriarte eta Jose Luis Merindanoren aurka aritu ziren, eta Albiasu eta Martikorena izan ziren garaile, 30-18ko markagailuarekin.



Elizondoko osasun etxeko atean egin dituzte elkarretaratzeak. ONDIKOL

Medikuen plazak bete gabe segitzen dute Osasun Zentroan

TTIPI-TTAPA

Egoera gero eta larriagoa da baztandarrendako, lanpostuak bete ordez, medikuen kopurua gero eta gehiago murrizten ari baita Elizondoko Osasun Etxean. Urrian ere bi elkarretaratze jendetsu egin dituzte langile eta herriarrek. 100 lagunetik goiti bildu dira profesionalen falta salatzen.

Duela urtebete baino gehiago pediatra plaza erdia bete gabe dago, ekainetik larrialdi-dietarako zerbitzuen mediku plaza bat, uztailetik bertze mediku plaza bat, eta urriaren 1az geroztik bertze mediku baten lanaldiaren bi heren. Horri baja hartu duen bertze mediku baten plaza hutsa gehitu behar zaio.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Kontrabandisten lasterketa arrakastatsua

Gaueko lanetan Jon Ridruejo eta Maria Ordoñez nagusitu ziren eta maratoi erdian Ander Iñarra eta Alizia Olazabal

ARANTXA ETA IRAIA

Urriaren 9an eta 10ean iragan zen Urdazubiko kontrabandisten lasterketa. Larunbatean lasterkariak 9,5 km-ko ibilbidea gauzatu behar izan zuten lehenengo kontrabandisten modura, gauez, eta igandean erdi maratokia izan zen.

Gaueko lanetan, gizonekoetan Jon Ridruejo izan zen irabazlea, Hodei Lujanbio bigarren eta Mathieu Gachen hirugarren. Emakumezkoetan Maria Ordoñez izan zen irabazlea eta ondotik Naiara Irigoyen eta Elisa Gonzalez sartu ziren. Herritarren artean Mikel Zenoz eta Letizia Arrieta izan ziren bizkorrenak.

Igandeko maratoi erdiko irabazlea Ander Iñarra izan zen, eta hurbiletik ailegatu ziren Iñigo Macias eta Damien Saint Martin. Emakumezkoetan, joan den urtean bezala, Alizia Olazabal izan zen lehena, eta Lurdes Oiartzabal eta Vero Couvreur ailegatu ziren ondotik. Zorionak irabazleei eta baita parte hartzaile guztiei ere! Aurtengo maratoi erdian ere berrikuntza bat izan zen:

16. kilometroan xingar bat zegoen ezkutatuta eta helmugara eramaten zuenak etxera eramane zuten. Maratoiko sari gehigarri hau ere Ander Iñarrak hartu zuen eta, beraz, helmugara bizkarrean eraman zuenez, etxean honetaz ere gozatzeko aukera izanen du.

Bitxikeria moduan aipatzekoa da larunbateko lasterketa hasi aitzinetik artoa mozteko makina izan zela lehena plazaatik pasatzen. Helmugatik pasatzeko zailtasunak izan zituen eta bertan ziren lasterkari eta bisitarien artean ikusmina sortu zuen. Ezin Urdazubik duen laborantza airea egun bakarrez ere ahanzi!

Pintxo lehiaketa Dantxarinean
Aurten ere urriaren 15etik 31ra pintxo lehiaketa antolatu dute Dantxarinean. Bertako bentek pintxo bereziak prestatu eta erosleek pintxo onena bozkatzen ahalko dute Facebook bidez. Honela, irabazleak benta irabazlean bi pertsonendako bazkaria irabaz dezake. Beraz, hurbildu pintxo berezi hauen dastatzera!



Gaueko lanak eta maratoi erdiak utzitako irudiak. OSKAR MONTERO ETA P. EZCURRA



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzea bigarrenez

Irailaren 12an egin zen Urdazubi eta Zugarramurdiko lehen jaunartze "ofiziala", baina egun hartan konfinaturik zegoen bat eta ezin izan zuen egin. Urriaren 16an Jonek lortu du kominia-tzea, eta bera bakarrik ez uzteko, ondoan izan zituen bere "komunio-kideak", Maialen, Julen, Peio, Gexane, eta Maddi.

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Zangoak Arin taldekoak Pays Cathareko Pech de Bugarach mendian. UTZITAKOA

Zangoak Arin elkarteko biltzar nagusia egin dute

Jean Granetek segituko du lehendakari, Xabi Larregle diruzain eta Béatrice Ollivier idazkari

GANEX

Zangoak Arin elkarteak egin zuen bere Biltzar Nagusia urriaren 14an Lur Berri gelan. Jean Granet lehendakariak denei ongi etorria egin zien, baita oroitzapena ere mundu honetatik gan diren kideei. Bruno Dubosq Departamenduko lehendakaria kexu da pandemia honekin laguntza gutiago dutelako elkarteetan, baina Saran ez dute holarik, emendatu baitaie eta denak kontent dira. Gero mintzatu ziren aurtengo egin dituzten aktibitateei buruz, baita heldu den urteko ez ere. Xabi Larregle diruzainak eman zituen urteko kontuak, positiboan, eta horretan bukatu zen bilkura. Ondotik 60 bat kidek bazkari on bat egin zuten Pikassari jatetxean, Jean Jeacquek prestatua eguna bukatzeko dena umore onean.

Bulegoan aldaketarik ez

Bulegoa ere bozkatu zuten baina ez da aldaketarik: Jean Granet lehendakaria, Xabi Larregle diruzaina eta Béatrice Ollivier idazkaria.



Biltzarra eta Jean Granet lehendakaria.

Pays Catharerat ateraldia

Aipatzekoa da aintzin horretan Zangoak Arin elkarteko bederatzi kidek egin dutela ateraldi bat Pays Cathare ingurura. Queribus eta Peyrepertuse gazteluak, Galamus ibaiak, arrokan egina den ermita bisitatu dituzte. Pech de Bugarach mendiratzat (1.230m) ere upatu dira. Ateraldi gaitza egin dute eta denak izigarri kontent itzuli dira. Urtero taldeak egiten dituzte horrelako ateraldi batzuk.



Anai Artea elkarteak ohoratu zuten Idazleen Biltzarrean. GANEX

Lau egunez egin dute aurtengoan Sarako Idazleen Biltzarra

GANEX

Surtengoan, Sarako Idazleen Biltzarrak lau eguneko egitarau bete-betean ekarri du. Urriaren 8an eta 9an Ikusi Makusi Haur eta Gazte Literatura Azoka egin zuten. Ortziralean eskolen eguna izan zuten eta larunbatean familiena. Urriaren 11n eta 12an, berriz, Idazleen Biltzarra egin zuten.

Ikusi Mikusik egin zuen bere erakusketa ortziralean eta larunbatean. Behar zen ikusi horko haurketa! Euskal Herri alde guzietatik bazen etorria, Iparraldetik zein Hegoaldetik. Segur denera 800 haur bede-

ren bazirela, eta haurren burusoak ere, horiek larunbatearekin.

Igandean egin zen Biltzarrean 130 bat erakustoki bazen beren liburuen erakusten eta saltzen. Anai Artea elkarteak ohoratu dute. Jean Fagoaga saratarra elkartearen lehendakari izan zen aintziz urtez. Ez zen hor 93 urte badituelako, baina bere lague aintziz hor ziren. Astelehenez profesionalentzat azoka izan zen. Dena izigarri ongi pasatu da, izan dute jende azkar eta aroak lagundu ditu, zeren ederra baitzen. Denera eskerrak.



GANEX

Erretretatuaren ateraldia Larhunerat

Urriaren 13an erretretatuak ateraldia egin zuten Larhunerat. Denbora ederra zuten, eguzkitsua, baina haize hotza. Denen Etxea bentan barnea berotu zuten, bestetako gazteek eskaintako gosari eder batekin. Mendi gainetik beheiti jautsi eta Trois Fontaines jatetxean bazkari ederra izan zuten.

5.400 dosi eman dituzte herriko txertaketa gunean

Herriko etxeak eskerrak eman dizkie parte-hartzaile guziei, Jacques Shreiber axuantak emandako hitzaldian

JEAN LOUIS BESSONART

Izurrite bete-betean ginelarik, publikoari hurbiltzeko gisan erabakia izan zen Donibane-Lohizuneko txertaketa zentroa Senperera etor zedin astearte eta ortziraletan, Stéphanie Daragnes medikuaren zuzendaritzapean.

Herriko etxeak, bere aldetik, hogoi bat kide bildu ditu lan egiteko, hauetan herriko langile, herriko hautetsi eta boluntario andana, Jacques Schreiber axuanta zutelarik kudeatzaile. Martxoaren 26tik irailaren 7ra arte, Larrekon eta Xabatene salan aritu dira, has-tapenean modu ezti batean, haatik, uztailaren erditsuan, osasun baimena baitezpada-koa agindu zelarik, olatuaren moduan jendea hurbildu da, egun batzuetan 260 presune-taraino.

5.400 dosi

Bitarte horretan, 5.400 dosi banatuak izan dira, hamabi urtez goitikoei. Geroztik ber-tze 300 dosi gehiago ezarriak izan dira kirol zelaiko salan.



Jacques Shreiber hunkiturik.

Honek hartu du segida astearte arratsaldetan, eta oraindik har daiteke hitzordua telefono zenbaki honetan: 07 49 55 31 61.

Urriaren 8an, elgarretaratze bat antolatua zuen herriko etxeak. Mahai inguru batean parte-hartzaile guztiak esker-tu zituzten. Jacques Schreiber axuantak, emozioz beteriko hitzaldian, xehetasun asko eman zituen. Ekimen hori eraman duten guziek txaloak ongi merezi dituzte.



Aktore ezagunak Senpere bisitatu du. UTZITAKO ARGAZKIA

Dani Boon aktore ezagunak bere azken filma ezagutzera eman du herrian

JL BESSONART

Senpertar anitzendako sor-presa polita izan zen urriaren 7an jakin dugularik frantziar aktore xelebreak bere azken filma, *8 rue de l' Humanité*, aurkeztera heldu zela Larreko kulturgunera. Egia erran, Goudier Adrien, Mahatxa arnote-giko nagusiaren eskertzeko egin zuen Senpereko bidaia, Frantzia guzian bortz herri baizik hautatuak zituen ekitaldi horrendako. Adrienek, konfinamendugaraian, ekimen berezi bat antolatu zuen bere

margolari ezagutza batzuekin, Facebook erabiliz. Beraz obra batean bilduak izan ziren mar-go, marrazki andana bat eta honen ondorioz, bildua izan diren irabaziak zuzenki isuriak izan dira Secours Populaire erakundeari.

Dani Boon artistak herriko karrikanagusia zeharkatu zuen, gurutzatu jendeen artean ikus-min handia sortuz. Hortik landa gomita batzuek filmaren ikusteko parada ukan dute eta gehienek irribarrez buelta eman dute.

Antzerkia larunbatean Larrekon

TTIPI-TTAPA

Le cas Martin Ciche antzezla-na emanen dute urriaren 30ean, larunbatean 21:00etan Larreko kultur gunean. Dene-

ri edekitako emanaldia izanen da. Sartzea 16 euro ordaindu beharko dute nagusiek eta 10 euro, hemezortzi urtez beheitikoe.

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Irun	LUZAIDE 31660 Luzaide	DANTXARINEA 31712 Urdax
------------------------------	------------------------------	---------------------------------	-----------------------------------

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Jarrai gaitzazu!

«Guttitan gertatuko da Beti Gazte hirugarren mailan ikustea»

OIER IANTZI ORDOKI LESAKAKO BETI GAZTE TALDEKO FUTBOL JOKALARIA

Lehen partidak jokatura, emaitzak ez dira «nahi bezalakoak» izan Oier Iantzi Beti Gazteko jokalarientzat. Azken denboraldia du taldean eta hirugarren mailan jokatzen «gozatu» nahi du

AINHOA LARRETXEAGA AGIRRE

«Joko aldetik nahiko ongi, baina emaitza aldetik ez sobera». Halaxe deskribatu du Oier Iantzi Lesakako Beti Gazte futbol taldeko jokalaria beteranoak taldeak hirugarren mailan egindako denboraldi hasiera. Azken urteak Gipuzkoako Ohorezko mailan eman ondotik, iazko ekainean lortu zuen igoera Beti Gazte, eta, hau idazterakoan, lehen bederatzi jardunaldiak jokatura, zazpi puntu bakarrik eskuratu dituzte. 31 urterekin taldeko jokalaria beteranoena da Iantzi, eta lesio baten ondorioz, oraindik hirugarren mailan debutatzerik izan ez badu ere, «ilusioz» bizitzen ari da etapa berria.

Hasiera gogorra

Hasiera emaitza aldetik espero bezain ona izan ez bada ere, orain arte egindakoaren «balantze positiboa» egin du jokalaria lesakarrak: «Guttitan gertatuko da Beti Gazte hirugarren mailan ikustea eta aprobetxatu behar da». Denboraldi hasiera «gogorra» izan da bere hitzetan eta partidak «hagitz gogorrak» izaten ari direla dio: «Dena ongi egin beharra dago, bertzela akats ttikienarekin ere gola egiten dizute». Gipuzkoako Ohorezko Mailatik Hirugarren mailarako kategoria aldaketa «anitz» nabaritzen dela dio Iantzik, eta oraindik ere egokitzen ari direla. Hala ere,



Lesakako Beti Gazte taldeko jokalaria beteranoena da Oier Iantzi.

esperantza badu, eta taldea hirugarren mailan utzi nahiko luke denboraldi bukaeran.

Izan ere, futboleko jokatzen urte anitz eman ondotik, Iantzik erabakia du azken urtea izanen duela Beti Gazteko jokalaria gisa. «Hau izanen da nire azken denboraldia Beti Gazten». Iaz ere zalantzan ibili zen utzi edo ez utzi, baina igoeraren ondotik, azken denboraldia hirugarren mailan «gozatze» aprobetxatu nahi

du. «Hirugarren mailan egoitearen esperientzia bizi nahi nuen, eta segitzea erabaki dut bertzte urte batez. Debutatze» irrikitan nago».

Talde indartsua

Azken urteetan Mastegin egindako «lan serioari esker» argi du talde indartsua utziko duela Beti Gazten. «Azken hamar urteetan salto handia egin dugu, eta hobekuntza nabaria da». Gainera, beheko katego-

rietatik iritsitako jokalariek «hagitz ongi» egonkorte direla iruditzen zaio, eta «fitxaketa berriek ere taldea osatzen lagundu» dutela.

Azken urteetan taldearen bizkarrezurra izandako jokalaria batzuek taldea utzi ondotik, fitxaketa batzuk egin ditu taldeak aurretik. «Igoera lortu zuen taldea Bortzirak eta Mallerrekako jokalariek osatzen zuten. Lesakarrak ginen gehienak eta bertzte herri batzuetako jokalariren bat ere bazegoen». Aurretik, aldiz, urrutira joan dira jokalaria berriak eske «Hondarribia eta Irun aldera, baina ez urrutiegi. Hala ere oraindik ere «oinarria herriko jendea da».

Ilusioa nagusi

Lesakan, eta batez ere Beti Gazteren zaleen artean egun bereziak izan ziren ekain erdialdekoak. Eibarren kontrako finala galdu arren, mailaz igotzea lortu zuen Beti Gazte. Iantzik ere ilusioz oroitzen du iazko denboraldi bukaera. «Igoera hagitz zaila izan zen, aurkariak Lesakaren aldean herri kokorak dira, Elgoibar, Hernani, Oiartzun...» Igoera zaila izanagatik, ilusioz oroitzen du ekain erdialdea: «Hagitz egun politak izan ziren, inoiz ez nuen espero horrela» zerbait pasako zenik. Modu intentsioan bizi izan genuen, ilusio handia zegoen eta urduritasuna ere bai».

Aurtengo denboraldian ere iazko ilusio bera mantendu nahi du Oier Iantzik. Gainera, taldeko beteranoa izaki gazteekin jokatzea egokitu arren, «hagitz gustura» dagoela dio. «Gaztetatik hasi diren jokalariek dira, eta gustura egoten naiz beraiekin. Gainera, denak hagitz ongi egokitu dira taldera eta hagitz jokalaria onak dira». Futbol jokalaria gisa egiten duen azken denboraldian, orain arte bezala gozatzen segitu nahi du, eta argi du taldea hirugarren mailan utzi nahi duela, «esperantza hori daukat eta saiatuko gara!».

**«SALTO HANDIA
EGIN DUGU ETA
HOBOKUNTZA
NABARIA DA»**

**«GOLA EGITEKO
AKATS TXIKIENA
ASKI DUTE TALDEEK
MAILA HONETAN»**



Azaroaren 5ean bueltatuko dira errugbi eskolako entrenamenduak Lekarozera: ortziraleroko 18:00etatik 19:30era.

Menditarrak BRT taldea lehian hasi da urte eta erdi geroago

Gasteizen jokaturako ligako lehen partidara garaipena lortu zuten eta gazteak Irun eta Zarauzko jokalariekin batera ari dira

TTIPI-TTAPA

Urte eta erdi baino gehiago emana zuten BRT Menditarrak taldeko errugbi jokalariek beraien azken partida jokatu zutenetik. Ia bi hilabeteko aurre-denboraldiaren ondotik, entrenamenduz, lanez eta sakrifizioz prest jarri ondotik, senior zein sub-18 taldeek

lehiaketa ofiziala hasi zuten urriaren 16an, Gasteizen eta Irunen, hurrenez hurren. Biek ala biek garaipen garbiekin gainera.

Senior taldean 26 jokalariditu Iñaki Ezkurra entrena-tzaileak, taldean sartzen diren gazteak gozatu, lehiatu eta trebatzeko helburu argiarekin.

Gazteak Itsamendi BRT taldean

Sub-18 taldeari dagokionez, adin horretako Baztango eta Ultzamako bederatzi jokalariekin abiatu dira eta euskal ligan lehiatu ahal izateko, Txingudi Irun eta Zarautz Beltzak taldekoekin bat egin dute, Itsamendi BRT taldea osatuz. Kategoria honetan itxaropen handiak jarriak ditu BRT Menditarrak taldeak, «beheitiko kategorietatik ari baitira lanean, eta klubari poz aunitz emateko kalitatea eta konpromisoa dute».

Errugbi eskolari dagokionez, azaroaren 5ean hasiko dira entrenamenduekin Lekarozen. Ortziraleroko 18:00etatik 19:30era bilduko dira. Tel.: 616 21 87 19.

Aimar Olaizolaren agurrerako sarrerak salgai dituzte Goizuetan

TTIPI-TTAPA

Aimar Olaizolaren agurraren azaroaren 13ko Goizuetako pilota jaialdira joan nahi dutenek bi modu dituzte sarrera eskuratzeko: aurrez aurre, Amaiarenean eta estankotan (herriar errolatuentzat zerrenda bat bada eta errolatu gabeentzat bestea) edo online, kartelean QR kodearen gainean sakatzuz (behean).

Izena ematen duten guztientzat sarrerarik ez balego, errolatuek izanen dute lehentasuna. Errolatu guztientzat sarrerarik ez balego, zozketa publiko bidez banatuko dituzte. Pertsona bakoitzak sarrera bakarra eskuratu dezake. Gonbidapena dutenak ezin izanen dute bestelako sarre-rarik eskuratu.



UTZITAKOA

Nafarroako arpana txapelketa mistoa

Nafarroako arpana txapelketa mistoaren finala jokatu zuten urriaren 9an Larrainzarren. Eltsoko Ainhoa Iraizoz eta Iraizotzeko Josetxo Barberena nagusitu ziren. Lekarozko Sela Goñi eta Jesus Goñi izan ziren bigarren eta Dani Saldias arraioztarra eta Antsoaingo Iruñe Biurrun hirugarren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Mindegia 3. mailako finalera

Euskal Herriko hirugarren mailako aizkora txapelketako hirugarren eta azken kanporaketa jokatu zuten urriaren 10ean Larrabetzun. Hamar aizkolariditu ziren lehiara eta Patxi Mindegia zubietarra izan zen bizkorrena. Suharri Rodriguez gipuzkoarrak ere lortu zuen finalerako txartela.

URRIAK 28 - AZAROAK 11

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



VALLEDEBAZTAN.COM

ELIZONDO Udazkeneko Feria

Bertako abeltzainen aziendak eta makineria, herriko artisauak eta komertzioak.
Urriaren 29an, Elizondoko karriketan eta Merkatuko plazan

IKUSKIZUNAK

ARANTZA

'Mendian hil, hirian hil' dokumentala

Herriko Etxeko aretoan, urriaren 29an, 19:30ean.

'Erradikalak ginen' antzerkia

Beatriz Egizabal eta Ane Labakarekin.

Eskolan, urriaren 31n, 19:00etan.

Ameli eta Xirrikituena Jostunek ipuin kontaketa

Eskolan, azaroaren 7an, 17:00etan.

LESAKA

'Amua' antzerkia

Harriondoan, urriaren 31n, 19:00etan. Sarrerak salgai www.lesaka.eus-en 8 eurotan.

'Txapeldunen bihotza' bakarriketa

Harriondoan, azaroaren 5ean, 19:00etan. Dohainik.

AZOKAK

ELIZONDO

Udazkeneko Feria

Bertako abeltzainen azienda eta makinaria, komertzioen postuak.
Urriaren 29an.

Artisautza azoka

Plazan, urriaren 30ean, 10:00etatik 14:00etara.

LESAKA

Merkatu Ttikia

Beheko plazan, urriaren 30ean, 10:00etatik 14:30era.

ESKU-PILOTA

ELIZONDO

Aspeko pilotarien partida

Baztan pilotalekuan, urriaren 29an, 18:00etan. Sarrerak www.entradasfronton.com-en.

ARANO

Adoseko pilotarien partida

Pilotalekuan, azaroaren 14an, eguerdian

JARDUNALDIAK

LEITZA

'Elikadura sistema eta nekazal ekoizpen iraunkorrerako bidea'

Hitzaldi eta mahai-inguruak.
Herri aretoan, urriaren 28an, 10:30etik 14:30era.

SARA

Errebestak

Pala txapelketa plazan eta afaria eta elektrotxaranga frontoian.
Urriaren 30ean.

BERA

'Kotto gogoan' 16. urteurrena

Ibilaldia, ekitaldia eta bazkaria.
Urriaren 31n. Bazkariko txartelak Katakun eta Errekalden.

KONTZERTUAK

LESAKA

Ibil Bedi

Harriondoan, urriaren 30ean, 20:00etan. Sarrerak salgai www.lesaka.eus-en 5 eurotan.

ARANTZA

Andreina Jolin

Gorapean, urriaren 30ean, 20:00etan.

ELIZONDO

Alos Quartet

Arizkunenean, urriaren 31n, 19:00etan. Sarrerak 18:30etik aitzinera jasotzen ahalko dira.

Vaudí Cavalcanti laukotea

Arizkunenean, azaroaren 7an, 19:00etan.

BERA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Kultur Etxean, azaroaren 4an, 19:30ean.

ARANO

Bertso zahar musikatuak

Azaroaren 13an, iluntzean.

AURKEZPENAK

LESAKA

'Palabra de árbol' liburuaren aurkezpena

Francisco Javier Irazoki.
Harriondoan, azaroaren 6an, 18:30ean.

ARANTZA

'Ene baitan bizi da' liburuaren aurkezpena

Maddi Ane Txoperena.
Liburutegian, azaroaren 6an, 17:00etan.

'Ombuaren itzala'

proiektuaren aurkezpena

Patxi Biskert.
Eskolan, azaroaren 7an, 12:00etan.

ARIZKUN

'Jesus Yoldi Bereau' liburuaren aurkezpena

Roque Hidalgo Alvarez.
Herriko ostatuan, azaroaren 12an, 19:00etan.

Nire aukera

«Beti egon naiz musikaren inguruan bueltaka»

JOKIN PINATXO OLAZIREGI BERAÑO MUSIKARIA



Musikaria eta kimikan dokto-
retza egiten ari den 25 urteko
beratarra da Jokin Pinatxo.
Kirola eta zinema ditu gustu-
ko, «egunerokotasunetik atea
eta arnas pixka bat hartze-
ko balio didatelako», baina
musika da, zalantzarik gabe,
bere zaletasunik handiena;
«pasioa da, astean ordu pila
bat eskaintzen dizkiot eta
hortan ez nagoenean ere musi-
karen inguruan edozer gauza
egiteko gogoz egoten naiz».

Ttikitako pasioa

«Beti egon naiz musikaren
inguruan bueltaka». Haurra
zela hasi zen Berako musika
eskolan gitarrekin eta pianoa
eta saxofoia jotzen ere ikasi
zuen. 18 urte zituela, ordea,
kantatzen hasi zen. «Mikroa-
ren aitzinean eroso sentitu
nintzen eta poliki-poliki hori
lantzen segitzen dut».

Etxean izan du erreferen-
tzia-rik handiena; «Estitxu nire
arrebak izan ez balitz, auni-
tzez ere gehiago kostatu iza-
nen zitzaidan erabakia hartzea.
Ondoan izan dut beti eta
hamaika gomendio eman diz-
kit». Baina ez da erreferentzia
bakarra izan, «ez dakit zenbat
aldiz aditu ditudan Pettiren
abestiak» eta sortzaileek ere
eragina izan dute Pinatxoren-
gan; «ezin alde batera utzi Igor
Telletxea». Kanpora begira,
bertze hainbat erreferentzia-
ko artista izan ditu: «Bruno
Mars, Charlie Puth, Damien
Rice eta Chris Cornell».

Hala ere, ez ditu instrumen-
tuak alde batera utzi. «Gaur
egun, pianoa konposatzeko
erabiltzen dut, gitarra nire
kabuz gehien lantzen dudana
da eta saxoa Elutxa txaranga
eta Berako eta Lesakako ban-
dekin jotzen segitzen dut».

Azken Trenaren abiatzea

Unibertsitateko lehen urtean
«Jon Macicior eta bioi kon-
tzentu bat egin genezakeela
bururatu zitzaigun eta kanta
batzuk prestatzen hasi ginen.
Carlos Goikoetxeari aipatu
genion kajoia jotzeko eta kon-
tzentuak ematen hasi ginen
abestien bertsio akustikoak
egiten». Taldea aldatzea era-
baki zuten eta Mattin Arbelaitz
bateriarekin eta Manex Orma-
zabal baxu-jotzailearekin
«izaera aldatu eta gure abes-
tiak idazten hasi ginen». Azken
Trena sortu zuten.

Gitarra akustikoa elektrikoa-
rekin aldatzean, «eszenatoki
handiagoak zantpatzeko
gogoa» sortu zitzaion, eta
hainbat herritan jotzen hasi
ziren. «Taldearen lorpenik han-
diena eta gehien emozionatu
nauena Lesakako bandarekin
Mikel Laboari egindako ome-
naldia izan zen. Ikaragarritzko
erronka izan zen baina emai-
tza bikaina izan zen eta per-
sonalki inoiz hartu dudan lanik
handiena izan da».

Zerotik diskoa grabatu zuten
Elkar argitaletxean Victor
Sanchez teknikariarekin.
«Nahiz eta hasieran inpresio
pixka bat egin, segituan etxean
bezala sentitu ginen eta elkar-
lana bikaina izan zen».

Pinatxok idazten ditu abes-
tiak, «beti gustatu izan zait
sormen prozesu hori». Musi-
karekin hasi eta letra paratzen
die gero, ondorengo musikariei
aurkezten die bakoitzak nola
ikusten duen jakiteko. «Hore-
la emaitzak aberatsagoak dira».
Bada denbora taldea ez dela
elkartzen, «bakoitzak bere
bidea egin du eta hainbat
lekutara eraman digute, elkar-
tzea ezinezkoa bihurtuz».

«ABESTIAK IDAZTEKO PROZESUAN AUNITZ DISFRUTATZEN DUT»

Etiket mundura

Etiket musika ekoizten ikasi
du itxialdian, «pila bat gozatzen
dut ekoizpen, grabaketa eta
nahaste prozesuarekin nahiz
eta oraindik aunitz dudan
ikasteko». Ekipoa «poliki-po-
liki» lortzen joan da, «oraindik
ere oinarrizko gauzak ditut,
baina denborarekin eta ikasi
ahala lan-tresnak aldatzen
joanen naiz».

Youtube du erakusleioeta-
ko bat, «noizbehinka abestiren
bat igotzen dut, baina maiza-
go egitea gustatuko litzaida-
ke. Plataforma ona da, mun-
du guztiak ezagutzen du eta
bertze artisten lanak kontsu-
mitzeko ere erabiltzen dut».

Plataforma honen bidez
Gaztea Cover lehiaketan par-
te hartu du aurten eta 200
bideo baino gehiagoren artean
Pinatxorena hurrengo fasera
pasatu zen. «Sorpresa polita
izan zen. Bertsio akustiko bat
egin ez zuen bakarrenetakoa
izan nintzen eta horrek berei-
zi ninduela erranen nuke».

Telebistan ere ikusi izan dugu,
eta kameraren aitzinean eta
jendaurrean bere burua «ero-
so» ikusten duela aitortu du.
«Horrelako gauzetarako kon-
fiantza dezente dut eta dena
ongi prestatuta eramaten dut
beti».

Etorkizunera begira

Musikariz betetako herri batean
bizi da Pinatxo. «Belaunaldiz
belaunaldi pasatzen ari den
zerbait da. Aspalitik segitu
ditut Estitxu Pinatxo, Joseba
Irazoki, Joseba B. Lenoir, Igor
Telletxea... eta azkenean
beraien bidearekin segitzeko
gogoa sortu zitzaidan».

Etorkizunera begira, «proiek-
tu berri batekin nabil buru-
belarri eta denbora guttira
eginen dugu publiko. Ikara-
garritzko gogoarekin nago dena
marxan paratzeko eta mugit-
zen hasteko. Ibilbide berri
honetan lagun berriak elkar-
tuko gara eta benetan izuga-
rrizko ilusioa egiten dit».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

BORTZIRIAK. Borda salgai. ☎647 58 81 63 (deitu gauze).

LEITZA. 110,85 m²ko pisua salgai. 3 logela, bi komun, sukalde-jangela eta bi terraza handi. ☎679 27 23 60.

LEITZA. 85 m²ko pisua salgai, igogailuarekin. Zaharberritzeko. ☎636 85 05 70.



SUNBILLA. Baserria salgai. ☎699 69 13 80.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Pertsona batentzako logela errentan emateko. Urte osorako. Erretzailea ez dena eta animaliarik ez. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.

ERRENTAN HARTZEKO

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitzak behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

BERA EDO LESAKA. Donostiako bikote bat lanagatik pisu edo logela bila. Sei hilabetetarako errentan hartu nahi dute. ☎657 70 38 98.

EROSI

Baserriak, bordak edo eraiki daitekeen lur eremuak erosi nahi dituzte. ☎693 69 49 76 (Jose Mari).

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

ELIZONDO. Baztanberrin lur azpiko garaje batean garaje-marra errentan emateko. ☎649 44 67 32.

LESAKA. Eltzetako plazan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎629 48 06 24.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

LANA

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Mikelenborda jattetxean asteburueterako langilea behar dute. ☎690 38 81 34.

ZUGARRAMURDI. Ansalas ostatuan zerbitzaria behar dute, euskara eta frantses pixka bat jakitea kontuan hartuko dute. ☎948 59 90 82 / 948 59 92 30.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean, egun osoz aritzeko biltegizain/apal-betetzaila, janari-dendako saltzailea eta harakina behar dituzte. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com.

BERA. Ibardinen, Beola Etxean, asteburuetan egun erdiz aritzeko zerbitzaria behar dute. Bidali curriculum: beolaetxea@gmail.com.

IRUN. Denda batean astelehenetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara aritzeko sukaldaria behar dute. Bi-

dali curriculum: irunjanari@gmail.com. ☎ 948 63 77 35.

BERA. Ibardinen, Beola Etxea bertako arropa-dendan asteburuetan lanean aritzeko saltzailea behar dute. Hilabetean asteburu bat libre. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute. ☎ 948 63 07 09 (Deitu astelehentik ortziralerara 09:00etatik 13:00etara) edo idatzi beolaetxea@gmail.com helbidera.

BERA. Botxo ostatuan zerbitzaria behar dute. ☎617 72 34 75.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

BAZTAN-BORTZIRIAK. DBHko irakasle esperientziaduna Baztan eta Bortziria aldean etxez etxeko klaseak emateko prest. DBH eta Batxilergoko ikasgaiak: Matematika, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia. Hizkuntzak: Euskara C1 maila

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,18
- 1.koa 4,06
- 2.koa 3,91

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,15
- 2.koa 4,01

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/9,50
- 8-10 kilokoak: 7,70/8,30

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 34 €

Zerri gizona 1,051 €

Zerramak 0,330€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

arte; Ingelesa B2 maila arte. ☎688 87 61 12 (Joseba).

HEZITZAILE EMOZIONALAK

BERA. Hezitzaile emozionala, *coach*. Gatazken konponbidea, helburuak osatzea, helburu planak. Lehen kontsulta doan. krecoach@gmail.com. ☎625 03 40 26.

ANIMALIAK

SALGAI

Bi urteko **ahari mutur gorria** salgai. ☎606 01 93 37.



LEITZA. Txerrikumek salgai. Pintoak. Aukera paregabea gizentzeko negurako. Labeen erretzeko ere prestatzen dituzte. Informazioa WhatsApp-pez edo telefonoz. ☎690 98 61 18.

Monturako zaldia salgai. 15 urtekoa eta izaera lasaia duena. Edozeinek erabiltzeko aproposa. ☎653 62 91 20.

OPARITZEKO



Bi txakurkume ar oparitzeko, hilabete eta erdi dute eta mastinaren eta ehiza zakurraren arteko nahasketa dira. ☎659 50 57 00.

DENETARIK

SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.

90 cm-ko ohe artikulatua salgai, igoi eta jaisteko karroa eta segurtasun barrekin. Egoera onean. 450 euro. ☎636 55 70 48.


Jantokiko bi **mahai** salgai: bat (haritz egurra) sei **aulkirekin**, bi besaulki opari. 113 cm x 113 cm, eta

handitzeko taularekin (300 euro). Bertzea 140 cm x 78 cm, egongelako mahaiarekin (58 cm x 80 cm) bat datorrena (200 euro + 100 euro). ☎680 27 82 23.



Sofa, relax **besaulkia**, belarridun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi **mahai** (bat lakatu zuria eta bertzea berniztua) eta alfonbra salgai. Dena egoera onean. ☎610 38 58 67.

Egongelako altzari klasikoa (240 x 210 x 41 cm) 400 eurotan eta **pianoa** salgai. ☎948 63 05 67.



Egurrezko ontzitegi lakatua, egurrezko **mahai** lakatua (handitzen dena) eta egurrezko lau **aulki** lakatu tapizatuak salgai. ☎610 38 58 67



Bitrina salgai. 1,94 metroko altuera, metro 1 zabal eta 0,36 metroko sakonera du. Beira bikoitzeko 3 apal ditu eta azpian kajoj edo tiradera eder bat du. Egoera hagitz onean. 150 euro. ☎647 06 27 73.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. Informazio gehiagorendako deitu konpromisorik gabe. ☎690 08 56 65.

GALDU-AURKITUAK

LESAKA. Urriaren 13an giltzak galdu dituzte. Motor baten giltzatak dute, Nissan giltza eta garajeko agintea (mando). ☎645 70 05 49.

MOTORRAK

SALGAI



Opel Mokka 1.4T Excellence 4x2 autoa salgai. 2016 urtekoa, 60.345 km ditu, mantentzea eguneratua eta egoera ezin hobean. Erabilera faltagatik salgai. 13.500 euro. ☎647 06 27 73.




744 484 361

ttiipi-ttapa

URTEBETETZEAK




Adur eta **Oinatz Arozena Elrio** beratarrek 8 urte bete dituzte urriaren 22an. Zorionak!!! **txabaloteak!!!!** Muxu potoloak familiaren partetik!!



Arantzako **Aimar Baleztena Goñik** 4 urte beteko ditu urriaren 29an. Zorionak familia guziaren partetik.



Sunbillako **Hegoa Irazoki Urtxegi** eta **Anparo Gelbentzu Errandoneak** urriaren 22an eta 30ean urteak beteko dituzte. Aunitz urtez biei familia guziaren partetik eta ongi ospatu zuen urtebetetze egunak.



Ibaik urriaren 28an 6 urte beteko ditu. Zorionak! Aunitz maite zaitugu!!!



Leitzako **Haizeder Mariezkurrenak** 3 urte beteko ditu urriaren 22an. Muxu haundi bat June, Lide eta Izargiren partetik. Zorionak sorgintxo!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo [ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA](http://erran.eus/TPV/ORDAINKETA) webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
epemuga 2023/04
Zk. 372

HARTU TTIPI TXARTELA eta erabili

pegatina hau ikusten
duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!

URTEURRENA

**Jose Angel
ALZUGUREN PERURENA**
Kotto

Beran, 1966/03/03 - Sorian, 2005/10/31
XVI. urteurrena

Izan zirelako gara
Garelako izanen dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.



ETXEKOAK

HILBERRIAK

- **Pedro Martin Irigoien Lertxundi**, Elizondokoa, urriaren 10ean, 72 urte zituela.
- **Hilaria Zubieta Irigoien**, Leitzakoa, urriaren 11n.
- **Josefa Bengoetxea Berridi**, Elizondokoa, urriaren 13an, 92 urte zituela.
- **Noel Etxeberria Eiheregarai**, Arizkungoa, urriaren 14an, 67 urte zituela.
- **Gregorio Zozaia Lasaga**, Berakoa, urriaren 17an, 75 urte zituela.
- **Iziar Bergara Elizondo**, Arantzakoa, urriaren 19an, 71 urte zituela.

BB
BAZTAN
BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBEN** Aparan ind. 1-3
web: **funerariabaztanbidasoa.com**

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka



OROIGARRIAK



- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

 **KULTURKARI**
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@titi.eus
www.kulturkari.com

 **IZARRA**
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜE A TU LADO

948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe

IRACHE
tanatorioak

 **948 63 74 04**
948 19 70 70

 **BERA**
(Kanttonberri, 14)



Zuen ondoan, betidanik


- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzako taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiekin lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxeko zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorrak.

HITZ GEZIDUNAK

	Kostaldeko hegaztia	Gaina, tontorra	Funtzioak	Su arma mota	Jan-edanen zerrenda
	◆ Izena	Joan den urteko	Harrapa ezan!		Mutazioa egin
				Haur	
	Trebetasun			◆ Sorteria	
	Poxi, pixka, apur				
◆ Deitura	Alaitasuna		Gaixotu		
Umore onekoak	Etsaia, aurkaria		Bokal biribila		
			Haragia		Otarrea, otzara
			Lerroan		
Ardi, hitz elkartzeetan		Interjekzioa	Buztan		
Zuhaitz mota		Euskaltegi sarea	Traidorea		
		Gipuzkoako udalerria		Bi bokal	
		Eztiaren zaporeko		Aluminioa	
Birao egin				Bokala	Kontsonantea
Ibaiko igarobide				Ergatiboaren marka	Arrainen galtzaile
		Gudalburuak			
		Estrontzioa			
Alderantziz, begirada		Gonak, kotak		Musika nota	
Klerak		Bokal mehea		Sufrea	
				Sutea	

◆ Gure lurraldeko kantaria eta soinujolea


GOITIBEHERA




Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Abereen gorotza, ongarrri gisa erabiltzen dena. [2] Arropak-eta gordetzeko altzari. [3] Gure lurraldeko herria, Baztanen. [4] Ipar Afrikako herritar. [5] Miresmena. [6] Jardun. [7] Gipuzkoako ibaia. [8] Patua, asturua, zortea. [9] Intsektu bizkarroia, gizakiaren odola xurgatuz bizi dena. [10] Gure lurraldeko herria, Baztanen. [11] Kroaziako herritar.

ERANTZUNAK



PLAZAN BAZAN





DOMINOAN

Ba al dakizu zer jaten duen aldameneko txoriak? Bada, euliak, eltxoak, ehunzangoak, zizareak, kakalardoak eta sitsak, eta sei elementu horiekin domino segida hau osatu beharko duzu.

ORBELA

Bost txatal hauetatik bi irudi nagusitik hartuta daude eta beste hirurak engainagarriak dira. Bereiz itzazu.





UI! TXORIA!

Seiko sudoku hau TXORIA hitza osatzen duten hizkiez egina da. Hutsuneak bete behar dituzu, eta horretarako, kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

	X		T		O
	T				A
		T		A	R
X					
		I			X
	R		I	O	



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

792 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - Bi sarrera
Amaia Monasterio Mazizior | IGANTZI

Buatxabal - Kamiseta bat

Martin Jaunsaras Braña | DONEZTEBE

Salting Iruñea - Bi sarrera

Jasone Sagastibeltza Elizalde | LEITZA

Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat

Gurutze Garraus Rekondo | IRUÑEA

BKZ abentura - Sarrera bat

Isabel Goia Maritxalar | LESAKA

Arkupe Gozotegia - Lote bat

Nekane Zozia Mariezkurrena | URROZ

Ibaizabal - Liburu sorta bat

Isabel Aleman Irungarai | AMAIUR

Ibaizabal - Liburu sorta bat

Ana Mari Telletxea Perurena | ELIZONDO

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA

www.saltngcenters.com



Bi sarrera

KUKUKA HAUR ARROPA DENDA

Zazpigarutze, 1 | Doneztebe | Tel.: 948 45 02 52



Haurrendako lote bat

IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com



Sarrera bat

OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

**LIBURUA
MUSIKA
DVD**

Pirritx, Porrotx
eta Marimotots
MUSUA



Pirritx, Porrotx
eta Marimotots
BIZI DANTZA

Katxi porreta

www.katxi porreta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ttarttalo.eus



www.irisarriland.eu